

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2014-10-06  
ASTELEHENA  
468. ZENBAKIA  
11. URTEA  
1,10 EURO  
GOIENA.EUS  
TOKIKOM



**"Ezin daiteke egon  
EAJren eta ezker  
abertzalearen arteko  
borroka suizidarik"**

F. Letamendia 'Ortzi' | Irakaslea | 8

Kaleak hartu ditu kulturak Bergaran,  
askotariko espresibideekin | 28



Anaitasuna indartsuarekin  
berdinketa Ford Mugarrik | 25



Kalitate handia erakutsi eta Gernika  
Bizkaiaarentzat Euskal Kopa | 24

Zapatuko azokan,  
salerosketan.



## Kolorearen ondotik, kolore gehiago

Baserriko produktuek jantzi zuten,  
besteak beste, Herri Eguna Oñatin;  
gaur mozorroen txanda izango da. | 14

IMANOL SORIANO

## lazko uzta baino hobea jaso dute aurten bailarako askotariko produktoreek

- ▶ Mahats, sagar eta ezti uztak jasotzen ari dira ekoizleak
- ▶ Sagar urtea da aurten, eta sagarrondoak beteta daude | 2

## Bakarrik bizi diren nagusien premiak aztertu dituzte

Bergarako Udalak egin du azterketa, eta aurre egiteko neurriak hartuko dituzte orain | 16

## Palestinarekin elkartasuna Maritxuren mirarian | 12



### SINADURAK

	NAROA ELORTZA   9
	9   LARRAITZ ZEBERIO
	AITOR OROBENGOA   15
	17   JOSU ELORTZA
	ELIAS ZUMALDE   18
	19   JOSU ZALOÑA
	IMANOL GALLEGO   37
	40   XABIER ZUBIZARRETA

**Egin iezaiezu  
SCHOOL VISUAL TEST-a  
zure haurrei**

Erreflexuen aurkako lente fin eta apurtezinak dituzten betaurrekoak 97€

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

kontsulta irazazu zure kontrolaren kanpainaren ezazu zuzenik. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95  
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75  
BERGARA

**MULTIÓPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan

# lazko uzta baino hobeago jaso dute aurten ekoizleek

- ▶ Mahats, sagar eta ezti uztak jasotzen dihardute Debagoieneko ekoizleek
- ▶ Sagarrondoak bete-beteta daude
- ▶ Udaberria ederki hasi zen, baina uda ez da ona izan uztarendako

MIREN ARREGI | ARRASATE

Ereindakoak jasotzeko garaia da. Mahats, sagar eta ezti ekoizleak lanean ari dira asteotan, lehen-gaia batu eta txakolina, sagardoa eta ezti egiten hasteko garaia baita. Batzuek jaso dute uzta, beste batzuk horretan dihardute; baina, hilabeteren bueltan jasota izango dute guztiak ere.

Debagoiengan txakolingile, sagardogile eta eztingileak badira: askok etxerako egiten dute. Beste batzuek, gero herriko denda, jatetxe eta tabernetan saltzeko. Kanpora esportatzen duenik ere bada.

Klimak baldintzatzen du bereziki uztaren kantitatea eta kalitatea. Baina ez horrek bakarrik, izan ere, lurraren eta kokapenaren arabera ere bada. Hala, produktoreek atera duten artean, desberdintasunak badira.

## Sagar uzta, orokorrean "ona"

Sagar urtea da aurten eta sagarrondoak sagarrez beteta ikusi ditugu abuztuan eta irailean. Aurten, gainera, aurreratu egin da sagarra eta irailean 18tik dabilta jo eta ke lanean, Aramaioko Sagartzaleen Elkartearen makinak. "32 zampaketa baino gehiago egin ditugu egun horretatik. Sagarrondoak da eta igartzen da", dio Iker Ezpeletak, elkartearen langileak. Aramaioko ekoizleak, Oñatikoak, Aretxabaletakoak... Kanpotik ere eroan dituzte Aramaiora sagarrak azken asteotan.: Larrabetzu, Ataun eta Sopelatik, esaterako.

Zampaketa bakoitzetik ateratzen den litro kopurua sagar barietatearen arabera da baina gutxi gora behera, 400 litro inguru ateratzen dira ekinaldi bakoitzean. "Gehienbat andra mari eta errezil sagarrak jaso ditugu, baina denetik dago".

Sagar Zumoa egiten dute Aramaioko Sagartzaleen Elkartearen. Hori pasteurizatu eta botilaratu egin dezakete zukua gura duten ekoizleek, eta sagardoa egin gura dutenen kasuan, zukua etxera erosten dute norberak bere sagardoa egin dezan.



Erlezaina, erlauntza ondoan. | BERNAT ALBERDI

Oraindik lanari ekin besterik ez dio egin Sagartzaleen Elkarteak. Urriko bigarren astetik aurrera espero dute eta kopururik handiena.

Arabako Sagardogileen Elkartearen lehendakari da Juan Antonio Aretxagak. Aretxagak aramaiarra. Sagardoa ekologikoa egiten du etxean bertan. Hiru tonatik gora batu du orain artean, tartean gezamina, txalaka eta maximela barietateak. Errezila eta urdin

sagarra, esaterako, hilabete barru-edo jasoko ditu. Urte ona izan da haren etxean. Sagarrondoak lepo egon dira eta dira sagarrondoak. "Iazkoarekin alderatuta hemen oso urte ona izan da", dio Aretxagak. Izan ere, iazko udaberriaren euri asko egin zuen eta eguzki faltagatik loratzea galdu egin zen. Aurten baldintzak hobeak izan dira.

Lehen zampaketak egin dituzte Juan Antonio Aretxagaren



Sagarrondoak, sagarrez lepo. | INAZIO ARREGI

etxean. Zati bat dagoeneko kupeletan sartuta dute eta ontzen hasita dago. "Ontzea ona ari da izaten eta dentsitatea ere ona du", dio Aretxagak. Sei gradu inguru izango ditu uzta honetatik aterako den sagardoa. Hilabete barru-edo itxi egingo dute kupela eta martxotik aurrera sagardoa edateko moduan izango da. Gelditzen dena, sagar zukua egiteko erabiliko dute.

## Mahatsa ere iaz baino gehiago

Mahatsak ere batzeko momentua du orain—hori ere aurreratu egin da aurten—. Arrasateko Hegi Handi baserrian, esaterako, dena batu dute dagoeneko. Oñatiko Murgialdain joan den asteburuan egin zuten lehen ekinaldia eta Upaingoan asteon egingo dute, makinarekin jasotzen baitute eta horregatik "bukaerara arte" itxoi-ten dute.

Sagar ekoizleak moduan, mahats ekoizleak ere "pozik" dira aurtengo uztarekin. "Nahiko urte ona izan da mahatsarendako. 13.500 kilo inguru atera ditugu hektareako. Iaz baino gehiago", dio Kataide txakolina ekoizten duen Hegi Handiko Javier Arregik. Musakolako baserrian bertan egin du txakolina Arregik. San-

to Tomasetarako "zertxobait" probatzeko moduan izango du eta beste guztia, otsaila-martxoa alderako egongo da dastatzeko moduan. Kalitate oneko txakolina izango da aurtengoa, Arregiren esanetan: hamaika gradu inguru izango ditu.

Oñatiko Murgialdai baserriko Aritz Galdosek Getariara erosten du mahatsa, han gero, txakolina egiteko. Dagoeneko jaso du uztaren zati bat eta "iaz baino gehiago" batu du: "Udaberria oso ona izan da, baina uda kaxkar samarra" eta horrek konplikatu egin duela dio. Hondarrabi zuri, Petit Courbu eta Riesling barietatekin lan egiten du Galdosek eta 11,5 gradu eta 12 graduren bueltan izango ditu haren txakolinak. Etxean bertan salduko du eta baita Oñatiko denda eta tabernetan ere. Bi urte daramatza txakolina egiten eta "onarpenean" izan duela dio.

Upaingoa baserrian makinarekin jasotzen dute mahatsa eta hori horrela, bukaerara arte itxoi-ten dute uzta jasotzeko. Asteon egingo dute hori. "Iazkoa baino gehiago" izango da aurtengoa Oñatiko Zañartu auzoko mahastietan. Udaberri onak, horretan eragin du. Txakolina

## Lehen aipamenak XIV. mendekoak

Sagardoa ekoizteko eta kontsumitzeko ohitura aspaldikoa da Euskal Herrian. Hain justu ere, erromatarren garaian jada irasagarraren antzeko jakiren bat egiten zela erakusten duten aipamenak badira.

Debagoiengan ere, duela mende askokoak dira sagarrari eta sagardoari egindako lehenengo erreferentziak. Inazio Zumaldek, haren *Ensayos de historia local vasca* liburuan dio, Oñatin sagarrari egiten zaizkion lehenengo erreferentziak XIV. mendekoak direla. Hain zuzen ere, Zumalderen arabera, 1.389an Beltran de Guevara Oñatiko jauntxoak hainbat oñatiar zigortu zituen, eta besteak beste, zigortuen sagarrondo guztiak moztu zituen.

Sagardoari buruzko lehenengo aipamena Oñatin, 1.467 urtekoa da. Hain justu ere, garai hartako jauntxo Iñigo de Guevara eta herritarren artean adostutako hitzarmen baten jasotzen da. Haren arabera, gerra garaian, jauntxoaren tropetan sartzen zirenei sagardo anoa banatuko zitzaizkien, ogia, eta urdaiarekin batera.

## Propietate handiko jakiak, hirurak

Munduan landatzen den frutarik ugarienetakoa da mahatsa, laranjaren ondoren, baina, ekoizten den mahatsaren zati txiki bat soilik kontsumitzen da fruta gisa. Ura da haren osagai nagusia eta odolera erraz pasatzen diren glukosa eta fruktosa azukreak ditu. Azukreez gain, bitaminak eta sustantzia fitokimikoak dira osagai aipagarrienak.

Sagarra jatea osasunarendako ona dela entzun izan dugu beti. Egipiziarrek, babiloniarrek eta antzinaroko beste herri batzuek sagarra sendagai gisa erabiltzen zuten. Gaur ere hala da, izan ere, tentsio altua dutenendako gomendagarria da, erreuma dutenendako ere bai eta baita beherako edo idorreriarako ere. Ikerketa berriek adierazten dutenez sagarrak kolesterol txarraren dosiak jaisten omen ditu.

Erle produkturik ezagunena da ezti. Infekzio, erredura edo zaurietarako egokia izateaz gain, elikagai moduan propietate asko ditu: besteak beste, azukre kopuru handia du eta ondorioz, antiseptiko oso ona da. Idorreria arintzen du, beherakoa gertatzen den kasuetan ere ona da, arnasbideak arintzen ditu, ezdarri eta aho mukosen gorritasunak desinfektatu, kaltzioa xurgatzen laguntzen du, eta lasaigarri arina da.



erlauntzako, 10 kilo ezti. "Urte txarra izan da. Ez da asko atera dudana. Udaberria ondo joan zen eta Oñatin lan handia egin zuten erleek", dio. San Inaziotatik aurrera, baina, ez dago loraldi gehiago. Kasu horretan, erlauntza txilar ondoan badago lanean jarraitzen dute, bestela ez dute egiten.

Getariako eztegitira eroan du Jauregiartzok ezti. Han komertzializatu egingo dute eta berak bere kasa ere salduko du: "Deba-goieneko azokatan izango naiz", dio.

Andoitz Barriolak ere Araotzen ditu erlauntzak. Guztira zortzi. Atzo batu zuen horiek egindako ezti eta harendako ere, ez da aurtengoa urte ona izan: "Eskas egin dute lana. Ondo hasi ziren baina San Juanetatik hona ez dute lanik egin", dio. Eta gaineratu du: "Dena den probatzeko zerbait atarako dugu, iaz baino hobeto, izan ere, iazkoa are eskasagoa izan zen".

Iritzi berdinekoa da Inazio Arregi oñatiarra ere. Zubillagan ditu hark lau erle. Guztira 67 kilo inguru atera ditu. Lanaldia motza izan da, "ekainerako egin beharreko guztia eginda" baitzuten Arregiren erleek. Listor asiarrak ere ikusi du erlauntzen inguruan. "Irailean etorri dira, aurretik ez, baina erleak jaten dituzte eta beraz, onik ez die egingo", dio oñatiarrak.

Iazkoa baino hobea izan da beraz, aurtengoa, aipatutako hiru alorretan. Oso ona zetorrena, baina, zapuztu egin da gero.

barik, ardo zuria da Upaingoako mahatsarekin egiten dutena. Horregatik, ekainera arte ez da hangoa edateko moduan izango.

Jatetxe onenetan eskuragarri dago Upaingoa txakolina, baita herriko tabernetan ere: "Txakolinaren kontsumoak behera egin du, gora berriz ardo txuriarenak. Hala ere, zaila egiten zaigu kalean saltzea", dio Arzelusek. Upaingoaren apustuak, dena den, Euro-para esportatzean datza, besteak

beste, Alemaniara edo Danimarkara saltzen dute.

#### Erleen lana, "eskasa"

Mikel Jauregiartzo oñatiarrak 51 erlauntza edo erle ditu. 11 Ugaztegin, eta 40 Arabako Arriola herrian -40 horiek Oñatiko Gari-bai auzoan egin dute udaberria-. Joan den astean batu du ezti Jauregiartzok, bai Ugaztegin eta baita Arriolan ere. Guztira 350 bat kilo atera ditu. Bataz beste



Erlauntzatik ateratako argizaria. | IA

## Erleak, argizari sortzaile

Argizari sortzaile dira erleak. XIX. mendera arte landare-jatorria aitortzen zitzaion argizariari. Uste zuten, erleak propolioa, polena edo ezti neurri handi batean bildu egiten dituen bezala, argizaria ere landareetatik biltzen zuela. François Huberrek frogatu zuen 1814an, erleak berak sortzen zuela argizaria bere gorputzean.

Jaio eta hamahiru egunetara dute argizaria sortzeko gaitasun handiena. Argizaria gelaxka txikiz beteriko abaraskak egiteko erabiltzen dute. Abaraska da erlauntzaren bizilekua.

#### Argizariaren erabilera

Oso estimatua zen garai baten erle argizaria; elizkizunetarako, esaterako, ezinbestekoa zen. Hori lotzeko modu bakarra erleak ziren eta, beraz, argizaria ez zen erlearen bigarren mailako produktu bat, lehen mailakoa baizik. Gaur egun garrantzia galdu badu ere, oraindik gauza askotarako erabiltzen da: besteak beste, altzarietarako, ukenduetarako edo depilatzeke.

#### Argizaria nola egin

Abaraskako gelak ezti bete ondoren, argizarizko tapa hexagonal batez estaltzen dituzte erleak. Abaraska bi urtean behin-edo aldatu beharra dago, zahartu egiten baitira. Abaraska zaharrak ur irakinetan sartu behar dira argizaria atera ahal izateko.



# ALMACENES ARRASATE

MERKATUKO MARKARIK ONENAK. Etxetresnetan sekulako eskaintzak!  
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.

REMOVE  
PLANA



BERME  
2  
URTE

1000 b/min  
6 Kg

A+++ Saikapen energetikoa

GARBIGAILUA 3TS-864B

Balay

325  
-125  
200 €



BERME  
2  
URTE

1200 b/min  
7 Kg

A++ Saikapen energetikoa

GARBIGAILUA VTO-720

Otsein

330  
-105  
225 €



BERME  
2  
URTE

1200 b/min  
7 Kg

A+++ Saikapen energetikoa

GARBIGAILUA 3TS-72125XA

Balay

460  
-125  
335 €



BERME  
2  
URTE

1200 b/min  
8 Kg

A+++ Saikapen energetikoa

GARBIGAILUA WM12Q468ES

SIEMENS

475  
-125  
350 €



BERME  
2  
URTE

1400 b/min  
8 Kg

A+++ Saikapen energetikoa

GARBIGAILUA L-73486FL

AEG

435  
-125  
310 €



BERME  
2  
URTE

A+ Saikapen energetikoa

ONTZI-GARBITZAILEA ADP 400 IX

Whirlpool

475  
-105  
370 €



BERME  
2  
URTE

A+ Saikapen energetikoa

ONTZI-GARBITZAILEA ESF6521LOW

Electrolux

390  
-105  
285 €



BERME  
2  
URTE

INDUKZIO PLAKA  
PIJ651B17E

420 €



LABEA  
HB74AR521E

440 €

BOSCH



BERME  
2  
URTE

186  
x  
60  
x  
65

A+++ Saikapen energetikoa

HOZKAILUA K636MX142

SIEMENS

770  
-125  
645 €



BERME  
2  
URTE

200  
x  
60  
x  
67

A+ Saikapen energetikoa

HOZKAILUA KGM-39X130

BOSCH

750  
-105  
645 €

#### Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.

Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3an.

Eskaintza baliagarria akats tipografikorik ez dagoen neurrian.

**3.**  
FASEA

[www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net)



**herri**tarrekin  
martxan en marcha



**Gipuzkoa**  
BERRIA



Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua

**Gipuzkoa**  
BERRIA

Informazio gehiago:  
[www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net)

## GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZU BERRIA EZAGUTU NAHI?

4.000 herritar baino gehiagok egindako ekarpenak kontuak hartuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak autobus zerbitzu berria jarriko du martxan 2015ean. Zerbitzu berriak ezagutzeko, zatoz zure eskualdean egingo den bilerara:

**Urriaren 15ean Arrasaten,  
Kulturateko areto nagusian, 18:00etan.**

# Gaur aurkeztuko dute ikasturtea Goienagusikoek

Hitzaldi ugari antolatu dituzte elkartekoek datozen hilabeteetarako

IRATI GOITIA | ARRASATE

Gaur egingo du Goienagusi elkar-teak 2014-2015 ikasturtearen hasiera ekitaldia Arrasateko Etxaluze eraikinean, erretiratuen egoitzan, 11:00etan. Ikasturte berrirako antolatu duten programazioa aurkeztuko dute eta luncha ere izango dute, besteak beste.

## Helburuak

Goienagusiko presidente Begoña Markaidek adierazi du hainbat helburu izan dituztela kontuan ikasturte berria antolatzeko orduan. Zehazki, ondorengo hauek: arlo ezberdinetako eza-gutza handitzea eta gaitasun intelektualak trebatzea; aisialdiaz gozatzeko; beste ideia eta pentsamolde batzuetara zabaltzea; eta gizartean eragiteko lan aktibo erabilgarria behar bezala garatzea. Markaidek gaineratu du interesa pizten duten gaiak eta hitzaldiak antolatzen saiatzen direla, orotariko gaien inguru-koak. Aurtengo ikasturtean hizlari arituko dira, besteak beste: Juanjo Alvarez, Jexux Mari Mujika, Txente Rekondo eta Jose Mari



Velez de Mendizabal. | GOIENA

Velez de Mendizabal [ikus eskuinteko taula]. Hitzaldiez gain, bidaia bat ere egingo dute Goienagusi elkartekoek abenduaren 10ean.

## Punta puntako hizlariak

Juanjo Alvarez jurista, unibertsitateko maisu eta hainbat libururen egile zumaiarra izango da



Juanjo Alvarez. | GOIENA

Goienagusikoen ikasturte berriko hizlarietako bat. Zehazki, krisi finantzarioaren eta baloreen krisiaren gainean jardungo da urriaren 20an, Etxaluze erretiratuen egoitzan.

Bestalde, Jose Mari Velez de Mendizabal aramaioarrak ere emango du hitzaldi bat. Urte luzez

## GOIENAGUSI 2014-2015 IKASTURTEA

### BIZITZARAKO FILOSOFIA

Hizlaria: Jose Domingo.

Non: Etxaluze.

Noiz: Urriak 8, 15, 22 eta 29.

### ZER DA BIOETIKA ETA ZERTARAKO BALIO DU

Hizlaria: Koldo Martinez.

Non: Etxaluze.

Noiz: Urriak 13.

### KRISI FINANTZARIOA, BALOREEN KRISIA. ZEIN DA ERANTZULEA

Hizlaria: Juanjo Alvarez.

Non: Etxaluze.

Noiz: Urriak 20.

### EMAKUMEAK ETA GIZONAK: XXI. MENDEA

Hizlaria: Jexux Mari Mujika.

Non: Etxaluze.

Noiz: Urriak 27.

### BELAUNALDIARTEKOTASUNA ETA HEZIKETA

Hizlaria: Jexux Mari Mujika.

Non: Etxaluze.

Noiz: Abenduak 1 eta 17.

### NAZIOARTEKO GAURKOTASUNAREN BEHATOKIA

Hizlaria: Txente Rekondo.

Non: Etxaluze.

Noiz: Azaroak 3, 10, 17 eta 24.

### BERPIZKUNDEKO MARGOLARIAK

Hizlaria: Urko Barros.

Non: Etxaluze.

Noiz: Azaroak 5, 12, 19 eta 26.

### JOXE MIGEL BARANDIARAN ETA ARRASATE EUSKARAZ

Hizlaria: Jose Mari Velez de Mendizabal.

Non: Kulturate.

Noiz: Abenduak 3.

### ZER GERTATZEN DA MAITE DUGUN NORBAIT HILTZEN DENEAN. NOLA AURRE EGIN AULKI HUTSARI

Hizlaria: Iñaki Peña.

Non: Etxaluze.

Noiz: Abenduak 15.

### BIDAIA

Noiz: Abenduak 10.

enpresa kudeaketan eta zuzendaritzan ibilitakoa da Velez de Mendizabal, baina taratean beste hainbat alorretan aritutakoa ere bai, batez ere kultura dibulga-

zioan. Hala, liburu ugari idazlea da eta baita kontaezinezko artikuluen egilea ere. Urrezko Zeledoa jaso berri du aramaioarrak Gasteizen.

## Nazioarteko Zine Ikustezinaren Jaialdian lehiatuko da 'Aulki Hutsak'

I.G. | ARRASATE

Arteman komunikazio enpresak eta Iñaki Peña medikuak ekoiztutako *Aulki Hutsak* dokumentala Nazioarteko Zine Ikustezinaren Jaialdian lehiatuko da. Zehazki, Giza Eskubideen kategorian, euskaraz egindako film onenen multzoan.

Kultura, Communication y Desarrollo izeneko gobernu kanpoko erakundeak antolatzen du jaialdia eta emanaldi gehienak Bilbon izaten diren arren, beste hainbat herritar ere zabaltzen dituzte proiektioak. Horrela, *Aulki Hutsak*, esaterako, urriaren 6an Eloorrioko Arriola antzokian proiektatuko dute, 20:00etan.

Beste hainbat jaialditan parte hartzeko izena dute emanda lanaren egileek, eta erantzunaren zain daude orain.

## Dolua oinarri

Dokumentalak heriotzaren osteko dolu prozesua lantzen du eta profesionaleri eta norbait galdu duten senideei egindako elkarrizketak batzen ditu. Heriotzaren aurrean sentitzen diren mina, haserrea, tristura, burumakurtasuna eta bakea jorratzen ditu lanak, besteak beste. Ikus-entzunezkoan parte hartzen dutenetako batzuk bailarakoak dira, zehazki, oñatiarrak, aretxabaletarrak eta arrasatearrak.



Aulki Hutsak dokumentalaren irudia. | ARTEMAN

## Euskararen alde topa egiteko elkartuko dira euskaltzaleak zapatu honetan Derion

TopaEguna ospatuko dute eta egun osoko egitaraua prestatu dute

I.G. | ARRASATE

*Ein daigun topa!* lelopean ospatuko dute aurtengo TopaEguna zapatuan, Derion. Euskaltzaleen jaia izango da eta leloak dioten bezala, *euskaltzaleon, auzolanaren eta mugimenduaren alde topa egiteko* jaia eta truke-eguna izango da. Izan ere, esperientziak konpartitzeko eta hartu-emenerako aprobetxatuko dute euskara elkar-teek. Hala dio AEDko dinamizatzailea den Itxaro Artolak: "Elkar ezagutzeko eta esperientziak trukatzeko balioko digu". Hain zuzen, esperientzien *trukagunea* antolatu dute egunerako. Artolak adierazi du egitaraua "interesgarria eta berezia" dela. Euskaltzaleen Topaguneaz gain, Derioko Tximitx elkar-tea eta Bizkaiko hainbat euskaltzale elkarte aritu dira aurtengo antolakuntza lanetan.

## Ekitaldi ugari

Urriaren 11ko hitzordua ekitaldi berezi batekin abiatuko dute; *Berbak erein* izeneko ekitaldiaz, hain zuzen ere. Hamabost urte barruko Euskal Herri euskalduna irudikatuko dute eta ametsak ereingo dituzte. Horiek 2029an jasoko dira, eta, uzta biltzean,



Iaz Soraluzen egin zen TopaEguna. | GOIENA

ametsak zenbateraino bete diren ikusi ahal izango dute. Ekitaldi horretaz gain, asko dira egunerako antolatutako ekintzak: kale animazioa, txango gidatua, batukada, kilikiak, bazkaria, Irrien Lagunak, puzgarriak... Ekitaldi nagusia 18:00etan izango da, Derioko pilotalekuan.

## Bertara joateko autobusak

Bailaratik autobusa egongo da TopaEgunera joateko. 08:45ean irtengo da Aretxabaletatik,

09:00etan Arrasatetik eta 09:15ean Bergaratik. Interesatuek herri horietako euskara elkar-teetara joan behar dute eguaztena baino lehen txartela erostera (zortzi euro da; ikasleentzat eta langabetuentzat, sei euro). Bestalde, Derion egingo den bazkarirako erreserba ere toki beretan egin behar da (menua 16 euro da; umeek, 10). Artolak euskaltzale guztiei egin die Deriora joateko gonbita, bereziki, euskara elkar-teetako bazkide direnei.

Urko Aristi | Tokikomeko presidentea

# "Uste dut aurrera elkarlanean egingo dugula, edo ez dugula egingo"

- ▶ Tokikomek eta EITBk lankidetzarako hitzarmena sinatu dute
- ▶ *Azpimarra*-n tokiko komunikabideetako kazetariak hartuko dute parte

IRATI GOITIA | ARRASATE

Tokikomek eta EITBk elkarlanean hitzarmena sinatu zuten egubakoitzean.

## Zertan datza EITBk eta Tokikomek sinatu duzuen akordioak?

Oinarri bat da. Nolabait esateko hazia landatu dugu eta orain landare hori ureztatu beharko dugu zuzen hazi dadin. Hazkuntza prozesu horretan urratsak zeintzuk izango diren finkatuko ditu akordio honek. Hein batean, borondate adierazpen bat da. Orain arte nahiko modu informalean ematen ziren harremanak eta orain bide formalek erraztu nahi ditugu, horretarako urratsak eta protokolo moduko bat finkatuz. Horrela, adibidez, zehaztuko da bi erakunde arteko zubi lana nortzuk egingo duten. Azken batean, horrelako gauza praktikoa zehaztea du helburu hitzarmenak.

## Dagoeneko zehaztu da, adibidez, Tokikomeko komunikabideetako kazetariak EITBko *Azpimarra* saioan hartuko dutela parte.

Kontua da gaurkoa –egubakoitzea– helmuga baino, abiapuntua dela. Askoz ere emankorragoa izatea espero dugun bide baten lehen urratsa. Eta bai, dagoeneko gauza txikitari hasi gara. Adibidez, Euskadi Irratiarekin iaz lortu genuen akordioa eta *Mezularia* saioaren barruan Tokikom tertulia entzuteko aukera izan zen, aurten ere astelehenero izango da. Oraina arte irratsaioarekin geneukan hartu-eman hori telebistara zabaltzea zen orain helburua eta lortu dugu. Hala, *Azpi-*



Urko Aristi. | GOIENA

*marra* saioan hasi dira parte-hartzen Tokikomeko kide diren komunikabideetako hainbat lankide. Horrek balioko digu Tokikomeko jendea bistarazteko eta balorean jartzeko, sektorean geuk ere badugula zeresana eta bagarela nor erakusteko. Uste dugu erakusleho ezin aproposagoa dela *Azpimarra*. Gero helburua izango litzateke beste saioekin ere antzeko zerbait egitea. Bi aldeak irabazle izango garen elkarlana gauzatzea da kontua. Guri *Azpimarra*-k ematen digu ikusgarritasuna, baina guk EITBri eskaintzen diogu toki guztietara iristeko aukera. Izan ere, handiek zailtasunak izaten dituzte azkeneko txokora

iristeko eta horretan gu lagungarri izan gaitezke. Era berean, handiak guri babesa ekarriko digu. Anai handiarekin hobeto eta errazago egingo dugu bidea.

## Beharrezkoa da elkarlana, beraz.

Bai. Garai batean zenbaiten buruan bazegoen bata bestearen kompetentzia ginela, baina nik uste dut oker gaudela EITB gure etsaia dela pentsatzen badugu. Guk gure txikitasunean ez dugulako euskal telebistaren gisako telebistari egingo, eta telebista handiarentzat txikiak ez garela sekula arerio izango. Kompetentzia baino, uztargarriak garela uste dut. Aurrera elkarlanean egingo dugu, edo ez dugu egingo.

## Bi aldean sinadura

Egubakoitzean sinatu zuten Tokikom eta EITBren arteko akordioa, EITBren Bilboko egoitzan, Urko Aristi Tokikomeko presidenteari eta Maite Iturbe EITBko zuzendariari. Biek ala biek positiboki baloratu dute akordioa. "Protokolo kontua izan da, argazkia. Baina hori ere egin behar da. Sukaldeko kontua da garrantzitsua eta hori lortu arteko bidea, baina argazkiak ere ospatu behar dira eta argazki hori bada esanguratsua", dio Aristik.



Urko Aristi–Tokikom eta Maite Iturbe–EITB, hitzarmena sinatzen. | TOKIKOM

## Salegik bihar deklaratuko du Auzitegi Nazionalan

I.G. | ARRASATE

*Topatu.info* webguneko hiru kazetarik, tartean, Iraitz Salegi bergararrak, Madrileko Auzitegi Nazionalera joan behar dute deklaratzera bihar, martitzena. 2013ko martxoan Urduñan egin zen Gazte Dandada jaialdian egindako ekitaldi politikoan gainean infor- matzeagatik deitu ditu deklaratzera Eloy Velasco epaileak inputatu gisa. Terrorismoari gorazarre egitea egotzi die.

Debagoieneko Sortuk prentsa-oharra kaleratu du hori salatzeke. Sorturen ustez, *topatu.info* prentsa eta adierazpen askatasunaren adibide da eta bere aurkako auzi honekin oinarritzeko den adierazpen askatasunaren aurka egiten omen du Madrilgo gobernuak. "Euskal Herrian gatazka politikoa konpontzeko urratsak ematen ari garen bitartean, Madrilek betiko lepotik du burua: dispertsioari eusten dio, Euskal Herriaren erabakitzeko eskubidea ukatzen du eta epaiketa politikoaren sokak ez du etenik". Adibide bezala jarri ditu: Egunkaria, Egin, Ardi Beltza, Jarrai, Haika, Segi eta Askapena. "Ehunka dira Madrilgo epaituak izaten diren pertsonak, ideia politikoak epaitzen dituen estatua estatu faxista dela deritzogu". Hala, "sorgin ehiza" bezala kalifikatu du *topatu.info*-ren aurka egina. Elkartasunerako deia ere egin dute. "Konponbide prozesuaren alde eta epaiketa politikoaren aurka mobilizatzeko deia egiten diegu debagoien- darrei". EAJri, berriz, eskatu diote "Madrilgo gobernuaren kolpe errepresiboaren aurrean" planto egiteko, eta ez dezala Ertzaintza erabili "lege in-justuak" betetzeko.

## LAN ESKAINTZA

### ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA (GIZARTE ONGIZATE SAILEKO BURUA)

Izena emateko epea: urriaren 7tik 16 arte (biak barne).

Oinarri-arauak: BAZen (goiz eta arratsalde) eta web orrian jaso daitezke [www.arrasate-mondragon.org](http://www.arrasate-mondragon.org)



Pertsonal Saila ■

## Ezkutuko altxorak ezagutzeko bisita gidatuak

XVI. mendea eta Loiolako San Ignazio ardatz, bisita gidatuak egingo dituzte abendu erdira arte

M. ALTUBE / I. GOITIA | ARRASATE

Loiolako santutegia, Arantzazuko, Antiguako ermita... oso ezagunak dira bai bertan, baita kanpoan ere, eta bisita asko jasotzen dituzten parajeek. Izan ere, Gipuzkoako kultura ondare aberatsaren harribitxi batzuk dira. Baina Gipuzkoan XVI. mendeko beste harribitxi batzuk ere badira bai Urola Erdian, bai Urola Garaian baita Debagoienan ere; Aretxabaletako Goroeta auzoko Santiago eliza, esaterako. Bada, horiek ezagutzera

emateko helburuarekin jarri dute martxan *Ezkutuko altxorak* egitasmoa Debagoiena, Urola Erdia eta Urola Garaiko mankomunitateetako turismo sailek. Egitarauaren berri eman zuten Aretxabaletako Goroeta auzoko elizan, hain zuzen, egunean.

### 16 tokitara bisitak

Ignaziotar Lurralde egitasmoko programa berria da *Ezkutuko altxorak*, udazkenerako gertatua. Orain dela ia 17 urte jarri zuten abian *Ignaziotar Lurraldea*, hiru

*tenpluen ibilbidea*, hiru mankomunitateek elkarlanean. Orain ezkutuan dauden altxor txikiak jarri gura dituzte balioan.

Hala, XVI. mendea eta Loiolako San Ignazio ardatz hartuta Debagoiena, Urola Erdia eta Urola Garaiko 16 lekutara bisita gidatuak egingo dituzte abenduaren 14a bitartean. Debagoienan egin duten lehenengoa atzo izan zen Goroeta auzoko elizara. Hurrengo urriaren 18an izango da Oñatiko unibertsitateko kaperara eta San Migel parrokiara. Ondoren dagoz Elgetako Jasokundeko Amaren eliza, Leintz Gatzagako Dorletako santutegia eta Eskoriatzako Bolibar auzoko parrokia, besteak beste. Bisita gidatuertarako alde aurretik egin behar da erreserba mankomunitatera deituta (943 79 64 63). Prezioa da 3 euro (12 urte arte debalde).

# Leihoen eta etxetresna elektrikoaren renove plana martxan da dagoeneko

Azaroaren 28ra arte, edo aurrekontua amaitu arte egongo dira indarrean aipatutako bi planak

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Energiaren Euskal Erakundeak leihoen eta etxetresna elektrikoaren renove planak abiarazi ditu. Planok, etxebizitzetan energia kontsumoa gutxitzea dute helburu, eraginkortasun handiko sistemen ezarpenaren bitartez.

Etxeko ekipamendua ordezkatzeko renove plana, joan zen astean, urriaren 2an jarri zuten abian. Leihoen renove planak 1,5 milioi euroko aurrekontua du; etxetresna elektrikoarenak, berriz, 1,4 milioi eurokoa. Bi plan horiek azaroaren 28ra arte, edo aurrekontuak amaitu arte egongo dira indarrean.

## Leihoen ordezkapena

Leihoen renove planari dagokionez, ohiko etxebizitzetan leihoen ordezkapena sustatu nahi dute, isolamendu hobea ematen duten leihoen erabilera bultzatuz. Hartara, berokuntzan energia aurrezteko lortuko da. Leihoak ordezkatzeko egiten den inbertsioaren % 22 da EEEK ematen duen gehieneko diru-laguntza. Inbertsio horren barruan sartzen dira: markoak, beirak, pertsiana-kutzak, eta arotzeriari lotutako kostuak. Etxebizitza eta onuradun bakoitzeko ematen duen gehieneko diru-laguntza 1.000 eurokoa da, eta ezin da gainditu inola ere kantitate hori.

Energiaren Euskal Erakundearen ustetan aurtengo leihoen renove planari esker, 2.000 etxebizitzetan energia eraginkortasuna hobetuko da.



Etxeko linea zuriko etxetresnak. | ARANTZAZU EZKIBEL

## Etxetresna elektrikoak

Linea zuriko etxetresnen ordezkapena sustatu nahi da; zehazki, A++ edo A+++ energia-kalifikazioa

ziora edo energia-eraginkortasun handiagoa duten hozkailuak, izekailuak, garbigailuak eta ontzi-garbigailuak erosteko diru-laguntza emango da. Etxeetan erabiltzen diren etxetresna elektrikoaren energia eraginkortasuna hobetu nahi da, etxetresna zaharren ordez, energia gutxiago kontsumitzen duten tresnen erabilera sustatuz. Kasu honetan, etxetresna erosten den saltokian bertan eta erosketan unean bideratuko da diru-laguntza. Gailuaren arabera laguntzak izango dira: 125 euro edo 105 eurokoak, hain zuzen.



Prentsaurrean, Aiertza eta Gibelalde. | ETB

## Mantso baina aurrera doa Gipuzkoako ekonomia

Gipuzkoako ekonomia asko jota %1 haziko dela uste du Gipuzkoako enpresarien elkarteak

A.E. | ARRASATE

Gipuzkoako enpresarien elkarteak emandako datuen arabera Gipuzkoako ekonomia poliki poliki aurrera egiten ari da. Adegiko ordezkariak Gipuzkoako enpresariei egindako inkestaren emaitzak aurkeztu zituzten joan zen egunean Donostian, eta egungo egoera ekonomikoari buruzko balorazioa ere egin zuten. Pello Gibelalde, Adegiko presidentea; Adegiko idazkari orokor Jose Migel Aiertza; eta, Adegiko lehiakortasun eta berrikuntza zuzendaria den Patxi Sasigain izan ziren agerraldian. Adegiren arabera, Gipuzkoako ekonomia asko jota %1 haziko da aurtan.

## Nazioartearikiko kezka

Gipuzkoako ekonomia aurrera doan arren, azaldu zuten, oraindik ere enpresen kezka nagusia Espainiako ekonomiaren ahulezia dela. Hala ere, azkenaldian nazioarteko egoera ekonomikoarekiko kezka gora egin duela zioten, Europaren geldialdiagatik eta gorabidean diren herrialdeen ahuleziagatik, batez ere.

Gipuzkoako enpresen artean egindako inkestaren arabera enpresa mailako konfiantzak hobetzen jarraitzen du: enpresen %80k uste du merkaturako dagoeneko ez dagoela atzeraldian eta %87ren arabera, ez da atzeraldian egongo datozen hilabeteetan.

## Ekoizteko gaitasuna

Gipuzkoako enpresak ekoizteko gaitasunaren %81,5n ari dira gaur egun; datu hori, 2008ko irailetik izandako mailarik onena da.

Datuen arabera, salmentak onera doaz, bai barne merkatuan eta baita kanpokoan ere, nahiz eta azkenaldian hazkunde erritmoa moteldu egin den. Batez besteko fakturazioa %2,5 igo da irailera arte, aldiz, maiatzetan %4,3koa izan zen.

## Erakunde publikoak

Inkestaren arabera, enpresek emandako erantzunen artean, Gipuzkoako Diputazioak indarrean jarritako aberastasunaren eta fortuna handien zergak jaso du erakunde publikoei emandako notarik txarrena.

## Ekuadorreko industria ministroaren bisita izan dute

Ekuadorreko Industria eta Lehiakortasun ministro Ramiro Gonzalez Arrasaten izan zen joan zen astean Mondragoneko zentro korporatiboa, IK4-Ikerlan, Copreci eta Fagor Elektronika bisitatzen. Egoketa eraginkorra programaren bitartez, gas sukaldeak aldatu nahi dituzte indukzio plakengatik.



TULANKIDE

## Galera ekonomikoak murrizten hasi da Eroski kooperatiba

Eroski taldeak emandako emaitza ekonomikoaren arabera Eroski Taldearen galera garbia 31,9 milioitakoa da uztailaren 31era arte. Iazko ekinaldiarekiko galerak murriztea lortu du: iaz baino %34 gutxiago galdu du aurtan. Egoera zuzentzen hasten lortu du, hortaz, kooperatibak. 2008tik, lehen urte erdian izan duen emaitzarik onena da aurtengoa. Orain dela urte bi, 2012an, izan zituen Eroskik inoizko galerarik handienak, 50 milioi eurokoak, hain justu. Krisiak ekarri duen kontsumoaren murriztearen ondorioz, negozio garbia %3 jaitsi da lehen zazpi hilabeteetan.

Francisco Letamendia 'Ortzi' | Ikertzailea eta EHUko irakasle emeritua

# "Erabakitze eskubidea gauzatu ahal izateko adostasun zabalak lortu beharko dira lehenbizi"

- ▶ Katalunia, Eskozia eta hemengo prozesuez dihardu politikari ohi eta ikerlari historikoak
- ▶ "EAJren eta ezker abertzalearen arteko borroka suizidak saihestu egin behar dira"

ENEKO AZKARATE | OÑATI

Franco hil osteko trantsizioa hastapenetan zegoela ospetsu egin zen Espainiako Kongresuan, besteak beste, autodeterminazio eskubidea aldarrikatzearen. EE (EIA eta EMK) eta HBrekin izan zen parlamentari. Politika utzi eta ikerketara eta hezkuntzara bideratu zuen bere jarduna, ondoren. Azkeneko urteak EHUan eman ditu, aurtengo irailaren lehen erretiroa hartu duen arte. Irakasle emeritu ere izendatu du unibertsitateak, "aurretik nirekiko egindako kalte-ordaina erreparatu". Burujabetza eta erabakitze eskubidearen gaineko hitzaldi bat ematen izan zen joan zen astean Oñatin, Gure Esku Dagok antolatuta.

**Erretiratu berri zarela enteratu gara...**

Bai, hala da. Irakasle emeritu izendatu naute, eta ohorea da hori, titulu hori ez delako horren samur ematen. Ikerketan egindako lanen aitortza da. Gainera, ni ez naiz katedraduna eta katedradun ez diren oso gutxi jasozen dute aitortza hori. Neurri baten, duela 13 urte Edure Uriarterekin eta Francisco Llerarekin gertatutakoaren kalte-ordaina dela esango nuke, orduan ez zidaten katedra onartu-eta. Oso pozik nago.

**Ezker abertzaletik urrundu zinen eta orain gertuago zaude?**

Bueno, sozialismoa eta eraikuntza nazionala beti izan dira nire oinarriak. Batzuetan, horregatik, ordaindu behar izan dudun arren. Konpromiso handia eduki dut. **Erabakitze eskubidearen gainean, bi indar abertzale nagusiek, EAJk eta EH Bilduk, darabilten estrategiaren gainean ze iritzi duzu?**

Postura ezberdinak dituzte. Batek, EAJk bi alde adostasunaren alde egiten du eta EH Bilduk, berriz, alde bakarrekoa bultzatzen du. Gero, bestetik, hor dago bakearen eta normalizazio politikoaren kontua eta, bereziki, presoen eta errefuxiatuen egoera konpontzea. EAJren apustua da errepresio bide guztiak desagertzearena: kartzela politika... ETak ere armak utzi dituelako. Bestetik, ezker abertzalearen ustez, horretaz guztiaz gain, hau da, errepresio edo neurri berezi edo ezohiko horiek desagertzeaz gain, estatus juridiko eta politikoa aldatu behar dela. Nik uste dudana da ezin daitekeela egon EAJren eta ezker abertzalearen arteko borroka suizidarik. Izan ere, erabakitze eskubidea gauzatu nahi baduzu, adostasun zabalak lortu behar-

ko dituzu alde aurretik eta ezinbestekoa izango da EAJren eta EH Bilduren arteko adostasuna, esaterako, galdeketa bat planteatzeko.

**Erabakitze eskubidea zenbateraino da eskubide? Non dago josta, inon badago? Zerk egiten du eskubide?**


Erabakitze eskubidea printzipio bat da. Eta hausnarketa filosofikoa ere izan du, Kanten bitartez. Baina legearen aldetik, erabakitze eskubidearen gaineko Hagako Tribunalaren duela bost urteko sententzia argi bat bada. Egia da haren interpretazio hertsia egin dela, hain justu ere, niri, 1978an, Espainiako Kongresuan, autodeterminazio eskubidearen gaineko emendakina aurkeztu nuenean egin zitzaidan moduan. Hau da, Espainiako Estatuak, esaterako, interpretatzen du autodeterminazio eskubidea aitortzen zaiela, soilik, kolonia edo protektoratu ohiei. Autodeterminazio eskubidearen aurkako guztiak aintzat hartzen dute hori. Baina aipatzen dudun Hagako Tribunalaren ebazpen hori Kosovoren kasuan aplikatu zen. Estatu bateko parte baten gehiengo zabal batek erabakitzen du beste estatu bat osatzea, eta erabat legezkoa ez izan arren, legez kontrakoa ere ez da. Eta onartu egiten da.

**Ze alde dago autodeterminazio eskubidearen eta erabakitze eskubidearen artean?**

Sakonean ez dago ezberdintasunik. Biek diote berdina. Baina, nazioarteko legediaren arabera, badaude ezberdintasunak. Nire hausnarketa hau da: autodeterminazio eskubidea badirudi murrizten dela erreferendumaren unera. Eta nire ustez, ez da hori. Eta erabakitze eskubidea kontzeptu zabalago eta aberatsagoa da. Prozesu iraunkorragoa da eta estatu bateko herri, nazio edo talde bati ere badagokio. Esaterako, ikusi ditugu, azkenaldian, Troiak edo bankuak herrien borondatearen edo erakundearen gainetik. Horren aurrean, hainbat mugimenduk, *haserretuenak*, esaterako, etorkizuna erabakitze eskubidea aldarrikatu dute. Estatu bako herrien kasuan, argiagoa da erabakitze eskubide eten-gabe edo iraunkorrarena.

**Ipar Euskal Herria eredu moduan jartzen duzu. Zergatik?**

Mugimendu oso interesgarria da eta Batak batu du, laborantza Ganbararen bidez. Euskal Herri sakon-sakonetik irten da. Lurra lotzen du herritarren sentimen-



Oñatin joan zen astean eman zuen berbaldiraren hasieran. | JULEN IRIONDO

**"Erabakitze eskubidea printzipio bat da, ez da aldarrikapen hutsa"**

**"Nazio katalanak erakutsi eta erabiltzen dihardu burujabetza"**

**"Espainiako bi indar nagusiak, PP eta PSOE, gainbeheran doaz"**

**"Gure Esku Dago sekulakoa da, egin beharrekoaren eredu da"**

du oinarritzkoekin, ez sistema produktibo moduan. Hainbat aldarrikapen dira: hizkuntza, unibertsitatea, departamendu propioa Frantziako Errepublikan... Oso ikuskera edo pentsamendu ezberdineko jendea elkar-tu du, baita Frantziako eskumaren joerakoak ere. Horretan, Hegoaldeko asko daukagu ikasteko Iparraldekoengandik.

**Kataluniaren une da. Zela amaituko du honek?**

Kristalezko bola izango banu... Baina Espainiako Estatuaren jokabidea oso itxia da. Horren ondorioz, Kataluniako nazioaren aldekoak gero eta gehiago dira. Indarrez edo indarraren mehatxuz zenbateraino aguantatuko duen Espainiako gobernuak? Katalan independentzia zaleak inteligentziaz ari dira eta gustatuko litzaidake orain arte erakutsi duten batasunari eustea. Modu antidemokratikoan guztiari ezetz esaten dion estatu baten eta nazio katalanaren arteko pulstua da. Nazio katalanak erakutsi eta erabiltzen dihardu burujabetza. Nazioarteko ordenak Espainiako Estatu babesten segituko duen? Ikuskizun dago.

**Espainiako herritarrek ze iritzi dute honi buruz?**

Estatuko bi indar nagusien eta hedabide nagusien diskurtsoa kolore bakarrekoa da. Hala da. Baina PP eta PSOE gainbeheran doazen alderdiak dira. Gero eta jende eta indar gehiago daude diskurtso hori bere egiten ez dutenak.

**Katalunian gertatzen ari dena egingarri da Euskal Herrian?**

Zergatik ez! Horretarako, burujabetzaren aldeko indar politiko eta zibilek bat egin beharko lukete. Eta, horretarako, EAJk eta EH Bilduk jarrera aldatu beharko dute.

**Ze iritzi duzu Gure Esku Dagoren lanaren gainean?**

Sekulakoa. Horixe da, hain justu ere, egin beharrekoa. Katalunian Asanblada Nazionalak egiten diharduenaren antzekotasun handiena duena da.

**Alex Salmond-ek porrot egin du, hainbatek dioten moduan?**

Ez, ez, ez. Subiranotasun iraunkorraren paradigma da eta sekulako aurrerapena lortu du. Salmond, orain, alde batera jarri da, baina itzuliko da.

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.









XABIER ATXA ZUGASTI . 2013ko Sari Nagusiaren irabazlea.



ARKAITZ LASKURAIN . 2013ko bigarren sariaren irabazlea.



MIKEL ZAMORA. 2013ko hirugarren sariaren irabazlea.

## UDA KO ARGAZKIEN X. GOIENA LEHIAKETA

# Irabazleen izenak

Astelehenean, urriaren 13ko Goiena paperean emango ditugu.

Eskerrik asko parte-hartzaile guztiei!

Argazki guztiak fotoblog honetan: [blogak.goiena.eus/argazkiak](http://blogak.goiena.eus/argazkiak)



Jarraitu gaitzazu: udakoargazkiak udakoargazkiak

ANTOLATZAILEA:

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

**kb**  
photoestudio  
www.kbphotoestudio.com

ARRASATE BIDAIAK

GURE AMETSA  
JATETXEA

Arrasateko hipermerkatua  
**EROSKI**  
zurekin

**karibu**  
munduko zaporeak  
karibumundukosaporeak.com

# HERRIAK



Deba ibaia Elorregi auzoan. | IMANOL GALLEGO



Hondakinak ibai bazterretan ikusten dira. | I.G.



Ertzetako zuhaitzetan kateatzen dira hondakin asko.. | I.G.

## BERGARA

# Deba ibaia, bizi iturri

- ▶ Antolatzaileek iazko marka hautsi eta jende gehiago erakarri nahi dute
- ▶ Gaur amaituko da zapatuko erreka garbiketan izena emateko epea

IMANOL GALLEGO | BERGARA

XVIII. mendean Industria Iraultzak gizartea eraldatzeaz gain, ibaien kalitatea ere zeharo aldatu zuen. Hamarkada gutxiren buruan, gizartearen parte ziren ibaiak estolda bilakatu ziren. Europar Batasunak, duela urte gutxi, Deba ibaiaren kalitatea eskasa zela esan eta gero, araztegiak egin ziren, honek baina, ez zuen erreka bazterren egoera konpondu.

Iaz sortu zen Erreka Garbitzeko Batzordeak, ibai garbiketaketaz ere Bergaran izandako erantzunaren ostean, edizio berri bat deitu du. Zapatuan 08:30ean elkartuko dira herriko hiru lekutan: Labegarrietako kiroldegian, San Martin plazan eta Osintxun. Garbiketarekin hasi aurretik talde argazkia aterako dute. Antolatzaileek argi utzi dute ekimena zabalik dagoela umeei, helduei zein

edadetuei. Aurten ere batutako zaborra plazara eroango dute.

### Ekosistema baino gehiago

Ingurugiroa zaintzeko ekimen bat den arren, kontzientzia sortzen laguntzen du, "gazteek asko ikas dezakete hemendik", dio herritar batek. Bergararen kasuan gainera, kirol jarduerarekin ere lotua dago ibaia.

Beti-Busti piraguismo elkar-teak adibidez, bere jarduera erre-

kan egiten du, eta sarbideak hobetzeaz gain, erreka berreskuratzeke ekimenek euren jarduerara ere hobetuko dute.

### Izena eman behar da

Aseguru kontuak dira eta, garbiketan parte hartzeko izena ematea beharrezkoa da. Horretarako hainbat bide jarri dituzte. [www.bergara.net](http://www.bergara.net) gunean dagoen inprimakia udaltzaingoan, kultura etxean edo Agorrosinen

entregatu daiteke. Horrez gain, [errekagarbitzeko@gmail.com](mailto:errekagarbitzeko@gmail.com) helbidea ere erabili daiteke izena emateko. Gogoan izan baina, epea gaur amaitzen dela.

Hauxe adierazi dute bultzaileek: "Asmoaren berri zure inguruan zabaldu, faborez. Iaz asko elkartu ginen, baina, halere, leku batzuetan motz geratu ginen... Gero eta gehiago elkartu, lan gutxiago, giro aberatsagoa eta hobeto ibiliko gara!".

## Iaz erreka oso zikin topatu zuten

330 bat lagunek eman zuten izena iaz, eta 15 taldetan banatuta Osintxu eta Epeleko araztegiaren arteko zatia garbitu zuten.

Ekimenarekin bat egin zuten lagunek, penaz hartu zuten erreka egoera, "oso zikinak gara, ibaian denetik topatu dugu", azaldu zuen parte hartzaileetako batek.

Bertatik ateratako zabor guztian plazara eroan, eta bertan laga zuten, herritarren artean naturen aldeko kontzientzia zabaltzeko.



Iaz ere taldetan banatuta egin zuten garbiketaketak. | GOIENA



ANDONI URCELAY  
BERGARA

"Ibaia orain hobeto dago, araztegiek asko lagundu dute horretan. Bazterrak baina... ez daude hain egoera onean".



LOREA MANTEROLA  
BERGARA

"Hobeto dagoen arren, ez nuke garbi dagoela esango. Urak itxura hobea dauka, baina ertzetan zikinkeria asko ikusten da oraindik".



ANDER GARITANO  
BERGARA

"Duela urte batzuk ura gorria, horia, berdea ikusten zen, orain garbiago dagoela uste dut. Umeak ibai ingurura jolastera ere jaisten dira".

### DATUA

# 500

LAGUN

Antolatzaileek jende kopuru hori nahi dute garbiketaketarako izan dadin.

Bikote dotorea, *photocall*-ean. | IMANOL SORIANO

Neskato taldea paperezko loreak saltzen. | IMANOL BELOKI



Neska-mutikoak Seberren, Irrien Lagunen ikuski.



Orio txaranga, klasikoetako bat maritxutan. | IMANOL BELOKI



Komisiñuko hiru kide, eskapularioak saltzen. | IMANOL BELOKI



Gure Esku Dagori keinua, eskapularioan. | IMANOL BELOKI



Mirariaren unea; Maritxuren kajoien azpian Palestinako bandera zabaldu zen. | IMANOL SORIANO

Laukotea, *photocall*-ean. | IMANOL SORIANO

## Poster berezia barikuko alean

Erantzun bikaina izan zuen Goienak udaletxeko arkupeetan ipinitako *photocall*-ak. Ilarak ere egon ziren; herritarrak agertzeko gogoz. Argazki guztiak, 238, *Goiena.eus*-en jasota daude, eta orain onena aukeratzea falta da. Zergatik? Boto gehien jasotzen dituen irudia posterrean aterako delako barikuko alean. Botoa emateko *Goiena.eus*-eko galeriara joan (QR kodean, bidea), argazkiaren zenbakia hartu eta *Botoa eman* botoiari sakatuta, formularioa bete eta jasota geratuko da.

## ARRASATE

# Palestinaraino bidali du aurten Maritxuk elkartasun mezu ozena

Orro eta oinaztu artean egin zuen agerkundea kajoiko birjinak, bonbardaketen oihartzuna ekarriz

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Penitentziatzat ajea duen ama-birjina bakar eta Arrasaten maitenak, ehunka *bekatari* hartu ditu aurten ere. Jada egun osoko prozesio jendetsu bihurtuta, doto-

rezia dute *maritxuzaleek* debotzio-ikur. Kale eta jatetxeak berriz ere beteta; txiki, gazte, nagusi eta familiak elkartzen ditu Maritxuk, gaur egun, goizetik, koardilan pilatuta denak, Arrasate-

ko jairik ezagunenaz gozatzeko. Eguneko inkognita, beti bezala, miraria. Eta haserre agertu da aurtengoan kajoikoa. Miraria barik barikuan protesta egin zuen Maritxuk palestinarren egoera

lazarriarekin elkartasunez. 20:30ak pasatxo, Oria txarangaren doinuak iragarle eta nahitaezko *Madrid se quema* kantuarekin konplututa, plazako argiak itzali eta Astondoakoen suen traka

ozenak aurreratu zuen agerkundea. Burrundara eta argi-oinaztu itsutzaileen artean, Palestinako bandera zabaldu zuen Maritxuk, hango oihartzuna ekarriz. Elkartasuna mirari bilakatu behar izan du aurten Maritxuk, ezinbestean, dohakabe gerrazaleen aurkako amorru biziz. Elkartasuna mirari bada, txarto gabiltza. Hori esan gurako zuen Maritxuk?

**Photocall-a ikusteko:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Txistera



zuna ikusten. | I.B.



Erdiko kale, jendez beteta. | IMANOL SORIANO



LOKI



Mutil kuadrilla, lore eskaintzarako gertu. | MAIALEN TORRES



Neska talde dotorea. | IMANOL SORIANO



arekin, agurtzen, photocall-ean. | IMANOL SORIANO



Kuadrilla, festa giro betean, photocall-ean. | IMANOL SORIANO

ANTZUOLA

Bigarren urteurrena gaztetxeak

Bi urte bete ditu Antzuolako gaztetxeak eta ospakizunekoak izan dute asteburua. Afaria eta kontzertua egin zituzten egubakoitzean, eta zapatuan, aldiz, bazkaria eta kontzertuak, berriz ere. Umeentzako jolasak ere egon ziren goizean, hain zuzen, herritar guztiak jaia partekatzeko modu bezala.



J.B.



IRET XABALETA  
Lanbide Eskola  
Goiena

2014/2015 IKASTURTEA  
IKASTAROAK DOHAINIK  
LANGILE ETA LANGABETUENDAKO

PROFESIONALTASUN  
ZIURTAGIRI  
BERRIAK

LANGILE ETA LANGABETUEI ZUZENDUA (HOBETUZ)

KATALOGO MODULAR BERRIA

ZIURTAGIRI PROFESIONALAK	PRESTAKUNTZA MODULOAK	PRESTAKUNTZA UNITATEAK	ORDUAK
(FMEH0409) URRADURAREN, ELEKTROHIGADURAREN ETA PROZEDURA BEREZIEKIN BIDEZKO MEKANIZAZIOA	MF0092_2 Urraduraren, elektro- higaduraren eta prozedura berezien bidezko mekanizazio-prozedurak	UF1006 Urraduraren, elektro- higaduraren eta prozedura berezien bidezko mekanizazio- prozesuen espezifikazio teknikoak	60
		UF1007 Urraduraren, elektro- higaduraren eta prozedura berezien bidezko mekanizazio- prozesuen kostuen kalkulua	40
	MF0093_2 Urradura, elektro- higadura eta prozedura berezietako makina eta sistemen prestaketa eta programazioa	UF1008 Makinak, ekipok eta erramintak prestatze urradura, elektro- higadura eta prozedura berezien bidezko mekanizazio- eragiketetan	80
(FMEC0110) ELEKTRODO ESTALIZKO ETA TIG BIDEZKO SOLDADURA	MF0099_2 Arku elektrikozko soldadura, estalitako elektrodoekin	UF1009 Urraduraren, elektro- higaduraren eta prozedura berezien bidez piezak egiteko CNCko programak egitea	80
		UF1640 Planoen interpretazioa soldaduran	60
		UF1622 Ebaketa- prozesuak eta ertzak prestatzea	70
		UF1623 Altzairu karbonozko profil eta xafraz estalitako elektrodo bidezko soldadura, errutilozko elektrodoak dituen	90
		UF1624 Altzairu karbonozko profil eta xafraz estalitako elektrodo bidezko soldadura, oinarritzko elektrodoak dituen	90
(SSCS0208) MENPEKO PERTSONEI ARRETA SOZIOSANITARIOA EMATEA ERAKUNDE SOZIALETAN	MF1016_2 Esku- hartzeen antolamenduan laguntzea, erakunde eremuan	UF1625 Altzairu karbonoz, herdoilezinez eta beste material batzuek egindako egituraz estalitako elektrodo bidezko soldadura	90
		UF0127 Erakundeetan mendeko pertsonen harreran laguntzea	30
		UF0128 Menpekotasun egoeran dauden pertsonen garbitasuna, mantenua eta antolaketa	70
		MF1017_2 Higiene eta elikagai- arretako esku- hartzeak erakundeetan	70
		MF1018_2 Arreta sozio- sanitarioko esku- hartzeak erakundeetan	70
MF1019_2 Erakundeetan dauden mendeko pertsonen komunikatzeko teknikak	UF0129 Menpeko pertsonen animazio soziala erakundeetan	30	
	UF0130 Erakundeetan dauden mendeko pertsonen eguneroko jarduerak mantentzea eta hobetzea	50	
	UF0131 Erakundeetan dauden mendeko pertsonen komunikatzeko teknikak	50	

LANGABETUEI ZUZENDUA (LANBIDE)

DOAN

KATALOGO MODULARRETIK KANPO

DOAN

ZIURTAGIRI PROFESIONALA: SSCS0108  
 Pertsonen etxean gizarte eta osasun- arreta ematea ..... 480 ordu  
 MODULO FORMATIBOA: MF0092\_2 Urraduraren, elektro- higaduraren eta prozedura berezien bidezko mekanizazio- prozedurak .... 100 ordu

Garabietan lan egitea	20	Solid Edge (Konjuntua)	30
Eskorgan lan egitea	20	AutoCad (basikoa)	40
Solid Edge (Pieza)	30	AutoCad (aurreratua)	40
Solid Edge (Txapa)	30		



IDAZKARITZAKO ORDUTEGIA: Astelehenerdik ostiralera: 08:00 - 18:00  
 ETXEBARRI AUZOAN, Z/G / 22 Pk. 20550 ARETXABALETA (GIPUZKOA)  
 WWW.IARETXABALETA.COM - IA@IARETXABALETA.COM  
 T. 943 797 900 / 943 797 943 - F. 943 770 955





Fruitu, barazki eta gazta lehiaketetako sarituak Udaleko ordezkariekin. | IMANOL SORIANO



Gaztetxoa behia laztantzen, zapatu goizeko abere azokan. | I.S.



Ibilgailu klasikoaren karabana Kale Barrian gora. | JOSETXO ARANTZABAL



Gizona sagardoa zerbitzatzen Foruen plazan izan ziren postuetako batean. | I.S.

**SARITUAK**

**FRUITUETAN**

1. Felix Azkargorta
2. Joxe Mari Lizarralde
3. Xabi Campo

LOTE EDERRENA:

Felix Azkargorta (madariak)

**BARAZKIETAN**

1. Xabi Campo
2. Arantzazu Sagarzazu
3. Joxe Mari Lizarralde

LOTE EDERRENA:

Xabi Campo (tomateak)

**GAZTETAN**

1. Nestor Altzelai
2. Gomiztegi
3. Akaitz

**OÑATI**

# Baserritar jantzi eta kalera irten dira oñatiarrak Herri Egunean

Zapatua izan zen egun handiena, baina asteburu osoan izan dira jaiekin disfrutatzeke ekintzak



**OLAIA LANDA**  
ARTISAUA

"Ekarri ditut poltsak, eraztunak, brotxak... Denak eskuz eginak. Lehendabizikoz etorri naiz azoka honetara. Pribilegio bat da, tokia zoragarria da eta badabil jendea".



**JOSU UGARTEMENDIA**  
OÑATI

"Gazta ogitartekoa erosi dugu plazan eta sagardoak lagunduta jan dugu. Ez ditugu sagardo denak probatuko, 21 dira eta larregi izango direla uste dut".



**MIKEL BOLINAGA**  
ABELTZAINA

"Behorrek ekarri ditut Araotzeko baserritik. Orain zaindari lanak egiten nabil. Ez da zaila, ohituta nago; izan ere, ez da ekarri ditudan lehenengo urtea".



**MIREN PALACIOS**  
OÑATI

"Ondo gabiltza. Goizean kalean ibili naiz lagunekin eta orain herri bazkarian. Gaur egingo dugu dantza apur bat, horretarako eguna da-eta".

**IRATI GOITIA | OÑATI**

Jaietako bigarren txanpa ospatu dute Oñatin –gaurkoa falta-. Egubakoitzean hainbat ekitaldi izan ziren; besteak beste, *Karrikaldia* txosnagunean. Askok, baina, hurrengo egunerako erreserbatu ziren.

**Herri Eguna**

Jaietako egunik ederrena da askorentzat Herri Eguna eta hori nabaritu zen. Izan ere, kaleak jendez lepo zeuden zapatu eguerdirako. Baserritar jantzia soinean, egun osoko festaz disfrutatzen irten ziren herritarrek. Hala, jende asko zebilen abereak ikusten, adibidez. Herriko baserritarrek behiak, behorrek, ardiak... jaitsi zituzten kalera. Ikustekoaz gain,

bazen zer erosi ere fruitu eta barazki azokan eta artisauenean: tomateak, piperrak, pikua, belarritakoak, poltsak, ukenduak... Taloa eta sagardoa ere ezin izaten dira falta Herri Egunean. Horrela, luzea zen taloak erosteko ilara, eta Foruen plaza lepo zen sagardo dastatzerako. Goiz guztia kalean egin ostean, asko izan ziren herri bazkarira joan zirenak. Giro bikaina izan zuten, herriko musikariak alaitua. Indarrak hartu ostean, hurrengo goizaldera arte jarraitu zuen festak askorentzat: herri kirolak, Erdizka Lauetan, Gozategi... Biharamuna izango zuten askok atzoko egunez, baina baziren hainbat ekintza; besteak beste, auto klasikoaren karabana.

Egubakoitzeko Goienaren aleak ekarriko ditu jaietako argazki gehiago, eta jaiekin emandakoa ikusteko aukera izango da gaur Goiena telebistan, 20:00etan.

**Argazkiak ikusteko:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.





Etxaide enpresako langileak dihardute lanean. Eraikinaren egitura sendotzen ari dira, besteak beste. | JOKIN BEREZIARTUA

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE  
Egubakoitzean ekin zioten Construcciones Etxaide enpresako langileek Uribarri auzoan, Polmetasa lantegiaren aurrean, dagoen Barrenatxo errotaren aztarna ekologikoak nabarmentzeko lanei. Obretako langileen arabera, dena ondo bidean gaur bertan amaituko dituzte lanak: "Ez da eraikin guztia zaharberri behar baizik eta aztarnak mantendu daitezela lan batzuk egin", adierazi dute.

#### Balio handiko errota

Barrenatxo errotaren inguruko lehen aztarna idatzia XV. mendekoak dira, eta besteak beste, bidezainen biltegia, ganaduaren dako pentsuaren lantegia eta okre-koloreko pintura lantegia izan da.

Orain gutxira arte egoera oso kaxkarrean egon den arren, Arrasaterendako balio handikoa dela nabarmendu izan dute Arrasate Zientzia Elkarteak kideek: "Arrasaten ez dago hain eraikin zaharrik, edo behintzat hain toki zaharrean agertzen denik. Finkatu egin behar dira behin betiko; erreferentzia moduan hartu behar ditugu horrelakoak".

Lanen aurrekontu osoa da 4.719 eurokoa.



Mertxe Perez de Ciriza. | I. BELOKI

**Mertxe Perez de Ciriza**  
Udal Bibliotekako arduraduna

## "Ariketa fisikoaz gain, ariketa mentala ere egin behar da"

I.B./J.B. | ARRASATE

0-3 urte bitarteko umeendako *Azalerako Ipuinak* deritzon ekimena, literatura solasaldiak euskaraz zein gazteleraz eta Bibliotekaren Eguna. Ekimen horiek aintza hartuta, udazken betea iragarri du Udal Bibliotekak datozen asteotarako. Mertxe Perez de Ciriza arduradunak eskaintza oparo horren gaineko hainbat xehetasun eman ditu. Izena emateko edo argibide gehiagorako: 943 25 20 25.

**Batetik, literatura solasaldiak datoz. Ekimen errotua da; aurtun ba al dago nobedaderik?**

Aurtengo berezitasuna da Europako literatura ikasturtearen barruan Luisa Etxenike idazleak eskainiko duen solasaldia. Normalean liburu bat hartzen da eta horren gainean solasaldiak egiten dira literatura-zaleen artean, baina oraingoan literaturan sakonduko du Etxenikek berak. Ikasteko aukera ona izango da. Gainerako ohiko solasaldiekin ere jarraituko dugu. **Iaz Azalerako Ipuinak ekimenak harrera ederra izan zuen. Aurtun errepikatzea erabaki duzue.**

Bai, 0-3 urte arteko umeendako hiru saio antolatu ditugu aurtun. Gurasoei dago zuzenduta bereziki, eta masajeetatik zein ahozko tradizioetik tiratuta oso aberasgarria izaten da ume zein gurasoendako. Guraso berriendako bereziki oso aproposa da, merezi du parte hartzeak.

**Ezer gaineratzerik gura duzue?** Oraindik bibliotekara hurbildu ez dena hurbil dadila. Doakoa da, irakurri. Ariketa fisikoaz gain, ariketa mentala ere egin behar da.

## "Merezi du 'Azalerako Ipuinak' ekimenean parte hartzea"

# Barrenatxoko aztarnak nabarmentzeko lanean

Errota bereziaren balio arkeologikoa mantentzeko obrak abiatu ditu Udalak

## The Lookers taldearen garaje-rocka, Kooltur-eko gonbidatua egunean

J.B. | ARRASATE

Kasbhäd taldeak bosgarren ikasurtearekin hasi ostean, egun honetan The Lookers taldea igoko da gaztetxeko agertokira Kooltur Ekintza taldeak gonbidatuta. Kontzertua 22:00etan hasiko da eta sarrera bost euro ordaindu beharko da. The Lookers taldea Ziburutik dator eta garaje-rock

doinuak eskainiko dituzte batez ere: "Garaje-rock bitxia egiten duen talde bitxia da. Power-trio bat da, hau da, ez dute beste inoren beharrik; Boston-rock gitarroa egiten dute. Patroi klasikoak dute baina noise (distortsioa) ukituarekin. Dotorea, landua eta berritzailea", adierazi du Kooltur Ekintzako Iker Barandiaranek.



The Lookers taldea zuzenean. | KOOLTUR EKINTZA

### NIRE USTEZ

AITOR OROBENGOA



## Suedia eredu

Suediari buruz entzundako lehen perpausa duela 44 urte entzun nuen. Larunbata zen eta bizilagun bat etorria zen afaltzera geurenera. Halako baten, nire aitarekin izaten ari zen solasean, gure bizilagunak honakoa adierazi zuen: "On Jose Mariak dio Suedia izan litekeela Euskadirentzat eredu jatorra". Nire aitak honela erantzun zuen: "On Jose Mariak asko daki eta, segurutik, zuzen ibiliko da".

Handik urte gutxira Suediako lehen ministro Olof Palme Txiki eta Otaegiri ezarritako heriotza zigorraren aurka agertu zen

eta Francoren erregimenaren aurkako boikota eskatu zuen. Horrek guztiak Suediarekiko jakin-mina areagotu zuen nigan eta, geroztik, bertan gertatzen dena gertutik jarraitzen dut.

Duela hiru aste hauteskunde orokorrak ospatu dira bertan. Jakin-mina asetze aldera, Wikipediara jo nuen Suediak gaur egun duen barne produktua begiratzeko. Geroztik buru makur nabil, Suediak bi aldiz aberatsago izaten jarraitzen du. Alegia, Suediako barne produktu gordina 57.948 dolarrekoa da biztanleko eta Euskadikoa, berriz, 24.444 dolarrekoa. Egia da 1970tik hona Suedia eta Euskadin arteko aldea txikitu egin dela, baina On Jose Mariak zioenez: "Suedia eredu jatorra izan liteke gure bizitzako alor askotarako". Besteak beste, honako hauetan: berrikuntza alorrean, ikerkuntzan, unibertsitate garapenean, kanpo hizkuntzen jakintza alorrean eta, agian, lana gogotsu egitean ere.

## Sarrera gutxi geratzen dira urriaren 30ean Amaia antzokian egongo den 'Don Giovanni' opera ikusteko

Ozenki elkarteak antolatuta, Don Giovanni operaz gozatzeko aukera egongo da urriaren 30ean Amaia antzokian. Sarrerak irailaren 21ean jarri ziren salgai eta honezkero antzokiko goialdekoak dira salgai dauden gehientsuenak; Internet bidez -Udalaren webgunean eta Kutxabanken- eros daitezke, 30 eurotan.

### OHARRAK

#### 1952AN JAIOTAKOAK

Zumaiara eta Zarautzera irteera egingo dute 1952an jaiotakoek urriaren 18an. Joan nahi dutenek 70 euro sartu behar dituzte urriaren 11 baino lehen zenbaki honetan: 3035 0001 51 00101128714 (Laboral Kutxa).

#### 1958AN JAIOTAKOAK

Arabar Errioxara irteera egingo dute azaroaren 8an. Parte hartzeko 60 euro sartu behar dira urriaren 27a baino lehen zenbaki honetan: 3035 0001 59 0011144438 (Laboral Kutxa).

#### 1964AN JAIOTAKOAK

Aurtun 50 urte betetzen dituztela eta ospakizun berezia egingo dute azaroaren 8an. Izena emateko 65 euro sartu beharko dira zenbaki honetan, izen-abizenak kontzeptu moduan jarrita: 2095 5055 50 9113880736 (Kutxabank). Urtemuga berezia denez gune bat ireki dute facebooken ([www.facebook.com/arrasate1964kintada](http://www.facebook.com/arrasate1964kintada)), txikitako, eskola garaiko eta gaztetako argazkiak edo bestelakoak igotzeko. Harremanetarako: [arrasate1964kintada@gmail.com](mailto:arrasate1964kintada@gmail.com).

# Bakarrik bizi diren nagusien premiak aztertu ditu Udalak

Su-detektagailuak jartzeko programa aprobetxatu eta etxebizitza horietako bizilagunek ze premia sozial dituzten aztertu dute

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Begarako Udalak bakarrik bizi diren pertsona nagusien gizarte premiak aztertzeko egindako lanaren emaitzak aurkeztu ditu. Suteak ekiditeko detektagailuak jartzeko programa aprobetxatu dute pertsona nagusien beharrak eta premiak zeintzuk diren jakiteko. 342 etxebizitzatan izan dira gizarte zerbitzuetako langileak, eta balorazio positiboa egin dute.

## 342 etxebizitza

82 urte beteta dituzten eta bakarrik bizi diren edo 82 urte beteta izan arren 65 urte baino gehiago duen beste norbaitekin bizi diren nagusiekin lan egin dute. Begarako Udalak ke-detektagailuak jartzeko programa martxan jarri zuen urte hasieran Atiempo enpresarekin elkarlanean; eta, hain zuzen, aukera hori aprobetxatu dute kolektibo horri zuzendutako beharrak eta premiak zeintzuk diren detektatzeko. Atiempo enpresak apirilaren 14tik ekainaren 12ra bitartean egin ditu lanok. Erroldaren arabera, 476 etxebizitza bisitatu behar zituzten; baina, azkenean, zerbitzua jaso dutenak 342 etxebizitza izan dira, %72.

## Aparteko sute arriskurik ez

Sute arriskuak baloratzerakoan, orokorrean, egoera ona dela ondorioztatu dute. Hau da, etxebizitza horietan ez dute aparteko sute arriskurik ikusi. Arriskuak beste etxe batzuetan dauden berak direla adierazi du Xabier Legorburuk, Gizarte Zerbitzuetako



Osoko bilkuren aretoan eman dute planaren berri. | JGOBA DOMINGO

arduradunak: "Detektatu ditugu herriko beste kolektibo baten topa ditzakegun arriskuak. Adibidez, galderei errebisioa egin gabe egotea, berogailuak estalita izatea, gas-ihesa egon daitekeelako behar den saretxoa ez izatea, argi diferentzialik ez edukitzea, tximiniak garbitu gabe egotea edo su ondoan likido sukoiak egotea".

342 etxebizitza horietan 397 ke-detektagailu jarri dituzte. Gainera, etxe guztietako krokisa egin, auto babeserako esku-liburuak banatu eta segurtasun pautak partikularrak eman dituzte.

## Premia sozialak

Horrez gain, etxebizitza horietan premia sozialen azterketa egin da. "Antzeman dena da jende batek gizarte zerbitzuetako baliabideei buruzko informazioa eman zaienean, laguntza batzuen gaineko informazio gehiago eskatu duela. Adibidez, telelaguntzari buruzko informazioa, mendekotasun balorazioari buruzkoa, etxeko laguntzen ingurukoa eta baita catering zerbitzuari buruzko informazioa ere", adierazi du Gizarte Zerbitzuetako Xabier Legorburuk.

## Aurten

Gizarte zerbitzuetan premia berezien beharra ere antzeman dute: konpainia beharra, bainugelak egokitzea eta etxeetan igogailuak jartzea, besteak beste.

Datu horiek eskura izanda, Gizarte Zerbitzuen hurrengo urratsa premia horiek adierazi duten herritarrengana jotzea izango da. Begarako Udalak duen asmoa da aurten bertan proiektu horrekin aurrera egitea. Horretarako, La Caixak 6.000 euroko diru laguntza eman- go du.



Aitzol Gandiaga. | A.G.

Aitzol Gandiaga  
Gaztelekuko begiralea

## "13 eta 17 urte arteko gazteak etor daitezke Xabalote gaztelekura"

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Xabalotek ekin dio ikasturte berriari. Bertako erabiltzaile izateko hara joan baino ez da egin behar.

## Nolako izango da gaztelekuko ikasturte berria?

Ekintza berri askorekin jositako urria dator gaztelekura: lehiaketak, eskulanak, irteerak... Aurreko ikasturtearen jarraipena izango da. Hala ere, ez dugu ahaztu behar aurten hamahiru urte beteko dituzten gazteak ongietorriak izango direla; beraz, 13-17 urte bitarteko gazteekin elkartuko gara.

## Zer eskainiko du eta noiz?

Hilabete oro ekintza ezberdinez osaturiko agenda bat proposatuko diegu gaztelekura hurbiltzen direnei, noizbehinka irteerak programatuko ditugul (azaro hasieran *paintball*-a, adibidez...). Horretaz gain, egun berezietarako -Euskararen Eguna, Emakumeen Nazioarteko Eguna, Gabonak, Aste Santua, uda...- egitarau bereziak egingo ditugu. Hau guztia lau hezitzaileekin batera aterako dugu aurrera. Xabalote gaztelekuak ordu-tegi hau dauka: egubakoitzetan, 18:00etatik 21:30era, zapa-tuetan, 17:00etatik 21:30era eta domeketan, 17:00etatik 21:00etara.

## Norendako dira ekintzak?

1997-2002 urte bitartean jaio-tako Begarako edozein gazte-terendako.

## Zer egin behar da Xabalotera joateko, kide izateko?

Bertara gerturatu, besterik ez da egin behar. Han hezitzaileok izen-emate orri bat emango diegu, bete dezaten. Gaztelekua doakoa da.

## Ze abantaila ditu??

Denbora libre lagunekin batera konpartitzeko aukera ematen du, bertan ditugun baliabide guztiak erabiliz, ekintzetan parte hartuz, lagun berriak ezagutuz... Aste bukaera guztietan ondo pasatzeko aukera paregabea da.

## TXALOAK ETA TXISTUAK

## Entxufe gehiago Agorrosingo aldageletan



Agorrosingo gimnasio eta igerilekuetako nesken aldageletan jarri dituzten entxufe berriekin pozik dagoela esanaz mezua bidali du erredakziora erabiltzaile batek. "Bazen ordua! Aspaldiko eskaera izan da. Erregleta handi bana jarri dituzte aldageletan, eta hiru entxufe gehiago daude orain, ile-lehorgailuak entxufatu ahal izateko, adibidez. Entxufe gehiago ere jarri ahalko zituzten erregleta horietan, akaso, baina pozik nago. Beharra zegoen".



OIHANA ELORTZA



# Bisitak urrian ere lorategi historikoak ezagutzeko

Datozen astebururako beste hiru bisita antolatu dituzte

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Udalak bisita gidatu bereziak antolatu ditu herriko lorategi historikoen eskaintza zabala ezagutzera emateko. Horietako lehe-

nak aurreko hilean egin zituzten Europako ondare jardunaldiak bat eginez, eta harrera oso ona izan zuten. Orduan ere iragarri zuten bisitok jarraipena izango

zutela eta Turismo Bulegoaren eskaintzan finkatuko zituztela. Bada, dagoeneko lorategi historikoak ezagutzeko bisita gidatuen urriko egutegia kaleratu dute.

Atzo, domeka, egin zuten lehena eta datozen asteetan jarraipena izango dute. Hurrengo bisitak izango dira: 12an eta 26an, biak ala biak domeka, 11:30ean eta 18an, zapatua, 17:00etan.

Gogoratu, bestalde, Androiderako sortutako aplikazio baten bidez, nor bere kabuz egin dezakeela bisita. Aplikazio horretan, lorategiak Bergarako beste ibilbide batzuekin gurutzatzen dira. CIC Tourgune ikerketarako elkar-goak eta Kultour enpresak sortu duten aplikazioa da, eta, oraingoz, Play Storen dago eskuragai, Doan jaits daiteke.

## Ezkutuko altxorrak

*Ignaziotar lurraldea* sakon ezagutzeko aukera ematen duen *Ezkutuko altxorrak* bisita gidatuen egitaraua martxan da zapatua ezker. Debagoiena, Urola Erdia eta Urola Garaia eskualdeetako hamasei baliabidetara bista gidatuak eskaintzen dira egitarau horren baitan, XVI. mendea eta Loiolako San Ignazio ardatz hartuta.

Bisitatu diren hamasei leku horien artean Angiozar dago. Hain zuzen, Angiozar ibarreko baliabide kultural eta naturalak ezagutzera ematea da asmoa, eta baita San Migel parrokia ere. Bisita hori azaroaren 22an izango da, 12:00etan.

Bisitatu parte hartzeko aurrez eman behar da izena, eta prezioa 3 euro da. Informazio gehiagorako zein erreserbak egiteko: [info@tierragnaciana.com](mailto:info@tierragnaciana.com), [www.ignaziotarlurraldea.com](http://www.ignaziotarlurraldea.com) eta 943 79 64 63 zenbakia.

Angiozarkoaz gain, honako bisita hauek ere erakutsiko dituzte Debagoienean: Elgetako Jaso-kunde Amaren elizako erretaula -abenduak 6-; Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitateko kapera eta San Migel kapera -urriak 18-; Dorletako santutegia -urriak 25-; *Mondragón* eta Atlantikoa XVI. mendean; Eskoriatzan, Bolibarko San Migel parrokia -azaroak 8-; eta Antzuolan, Anti-guako ermita eta erdigunea -azaroak 30-.



Irailean egindako bisitan Errekalden egon ziren, besteak beste. | IMANOL SORIANO

## NIRE USTEZ

JOSU ELORTZA



## Bere lekua

Kontsultak ari dira izaten ikasturte berri honen izarrak. Eskoziarrak izan ziren aitzindari euren etorkizuna hautesleketan erabakitze aukera=eskubidea izaten eta emaitzak askok imajina genezakeena azaldu ez arren, irabazle garbia demokrazia izan zenaren epaiak ez du eztabaidarik.

Herria zatituta geratu ei denaren ideia ez da errealitatearen isla, politikak bere lekua duela erakutsi baitigute eskoziarrek. Norberak bere ideien defentsan jarraitzen du, herri aberastasun oinarri nagusi izaki, bestearena zapaldu gabe, libre, ezin ikusirik gabe.

Zaila izaten da, gaia edozein delarik ere, politikarekin ez nahastea. Bakoitzak bere ideiak ditu,

**"Ez dut pertsona baten lana bere ideia politikoengatik baloratuko"**

errealitatearen ikuspuntu ezberdinak, baina guztiak posible gizar-te berean.

Ez dut beste pertsona baten lana, edozein delarik ere, bere ideia politikoengatik baloratuko, ezberdin pentsatzen duelako edo afizio ezberdinak dituelako. Betezen duen lanaz edo ikuslea lileratzeko egindako esfortzuaz baliatuko naiz epai horretan. Politikak bere lekua izan behar du, tokatzen zaion uanean soilik ateratzeko, bestelako unerik ez zapuzteko.

Iritsiko zaigu geuri ere hautesleketan demokratikoki gure nahia azaltzeko unea. Hori saihestu nahi dutenek lana izango dute, aurrean izango gaituzte eta! #28aklibre.

## OHARRAK

### 1957AN JAIOTAKOEN KINTADA AZAROAREN 29AN

Azaroaren 29an egingo duten ospakizunera joateko 70 euro sartu behar dira, urriaren 10etik aurrera, Laboral Kutxan ireki duten zenbakian.

### 1942AN JAIOTAKOEN BAZKARIA AZPEITXIN

1963ko kintok urriaren 25ean egingo dute ospakizuna. 14:30ean da bazkaria, eta aurretik talde argazkia egingo dute, urtero moduan. Izen-ematea urriaren

21ean amaituko da -ordutik aurrera ez dira onartuko- eta horretarako 20 euro aurreratu behar dira Laboral Kutxan (0091146315).

### 1959AN JAIOTAKOEN AFARIA TARTUFON

Urriaren 25ean egingo dute afaria Tartufo jatetxean. Izena emateko 30 euro sartu behar dira Kutzabanken ireki duten zenbakian: ES55 3035 0189 3118 9103 8671. Izena emateko azken eguna urriaren 20a da.

Tartufo jatetxera igotzeko irteera ordua 21:00etan izango da, azoka ondoan dagoen geltokian.

### 1948AN JAIOTAKOEN IRTEERA LIZARRARA

Urriaren 18an joango dira. Autobusa 09:00etan abiatuko da autobus geltokitik. Izen-emate epea zabalik dago: Kutzabanken bidaiarako espresuki zabaldu duten kontu zenbakian 50 euro sartu beharko dira urriaren 13a aurretik.

## Tailerra antolatu dute mina txikitu nahi duten nagusiendako

M.B. | MINA

Minez bizi diren eta min hori txikitu nahi dutenendako tailerra antolatu dute Gizarte Zerbitzuek eta San Joxepe erretiratuen elkarteak, La Caixarekin elkarlanean. Urriaren 20an hasi eta abenduaren 15era bitartean izango da tailerra: urriaren 20an eta 25ean, azaroaren 3an eta 10ean eta abenduaren 15ean. Saiok -guztiak astelehenetan- San Joxeperen egoitzan egingo dira, 16:30etik 18:30era.

Ana Sanchez erizainak zuzenduko du eta erabiliko den hizkuntza gaztelera izan-

go da, baina, nahi izanez gero, galderak euskaraz egin ahal izango dira.

### Estrategiak ezagutzeko

Minez bizi eta mina kudeatzeko estrategiak ezagutu nahi dituzten pertsona nagusiei edo mina duten pertsona batekin bizi direnekin pentsatutako tailerra da.

Izena emateko, San Joxepe elkartera jo behar da, urriaren 16a aurretik, astelehene-tik eguenera, 11:00etatik 12:30era; 943-76 21 40 zenbakira deitu edo [martxe48@telefonica.net](mailto:martxe48@telefonica.net) helbidera idatzi.

## Pol-Poleko beterranoek urriaren 12an egingo dute hurrengo irteera

Pol-Pol mendizale elkarteko beterranoek prest dute hurrengo irteera. Urriaren 12an egingo dute. Puerto de las Estacasen irten eta Las Machorraserainoko ibilbidea egingo dute; 18,8 kilometroko ibilbidea, hain zuzen ere. Izena mendizale elkartearen bulegoan eman behar da eta prezioa 20 euro da. Irteera egunean Fraiskozuritik abiatuko dira.

## Urriaren 8an egingo dute Kafekonponen hurrengo saioa

Udako oporren osteko Kafekonpon egitasmoaren bigarren saioa asteon izango da. Eguaztenean, urriaren 8an, egingo dute, hain zuzen ere. 16:00etan batuko dira San Joxepe erretiratuen elkarte-koen egoitzan. Etxean matxuraturatutako tresnak izan eta giro atseginean, kafetxo baten bueltan, konpondu nahi dituenak bertara joan baino ez dauka.



Veneziarrek gondola eta guzti Foruen plazan, iaz. | AMAIA TXINTXURRETA

## Gaur bukatuko dira jaiak, mozorro koloretsuekin

Karroza, osagarri eta trasteak uzteko tokia egokitu du Udalak, Lizaur kalean

O. ELORTZA / I. GOITIA | OÑATI

Errosaixo Bixamona eguna da gaur, jaietako azkena, eta mozorro koloretsuekin eta giro onean emango diete amaiera festei herritarrek.

Guztientzako moduko egitaraua izango da gaur ere. Goiztiarrenek bigantzen aurrean korrika egiteko aukera izango dute, 09:30ean sokamuturra izango da eta Foruen plazan, Arno ganadutegiko zezenekin. Arratsaldean ere egingo da sokamuturra, 17:30etik 19:30era, hain zuzen ere.

Indarrak hartzeko aukera ona izan daiteke txosnagunean egingo duten paella-jana, 14:30ean.

Musikariek ere ez da falta izango gaur: 12:00etan, Oñatiko Musika Bandak kalejira egingo du herriko kale nagusietan.

Arratsaldean, berriz, Psycho-C-lown bertsio taldeak egingo du kalejira ibiltaria. Txosnagunean *Di-bertsioak* izango dira, 18:00etan hasita, herriko musikarien eskutik. Eta Foruen plazan Lisker taldearekin dantzaldia 20:00etan eta 23:00etan.

### Karrozak uzteko tokia

Mozorroekin batera, karroza, osagarri eta traste asko atera ohi ditu jendeak kalera gaurko egunez. Horietako batzuek traba egiten dute egunak aurrera egin ahala. Horregatik, aurten ere traste horiek uzteko tokia egokitu du Udalak. Behar ez diren tramankuluak Lizaur kalean horretarako prestatutako tokian utz daitezke. Brigadako langileek dagokion tokira eramango dituzte gero handik.

# Zaharkitutako hoditeria aldatzen dabilta Olakuan

Ur-jarioak saihestu nahi dira lan horiekin, eta bi hilabete inguru iraungo dute

I.G. | OÑATI

Olakua auzoan ur hoditeria berri- tzeke lanetan dabilta. Gipuzkoako Ur Kontsorzioak dihardu horretan eta bertatik adierazi dute hoditeria zaharkituta dagoela eta horregatik egingo dituzte- la aldaketak.

### Nagusiak bakarrik

Ur edangarriaren hoditeria nagusia da aldatuko dena, zehazki. Ur Kontsorziotik azaldu dute hoditeria hori zaharkituta dagoela eta ur-jarioak gerta daitezkeela. Horrela, arazoak saihesteko asmoz, fibrozementuzko hodi zaharrak aldatuko dira burdinazko edo polietilenoazko berriak jarrita. Hoditeria nagusia da aldatuko dena; ez bertatik erai- kin edo etxe bloke bakoitzera doazenak. Izan ere, horiek aurreko urteetan aldatu dira.

Olakuako 1. zenbakidun be- arrutik 9. zenbakira egingo da hoditeria aldaketa, auzoaren alde zaharrean, hain zuzen. Orain dela hiru bat aste hasi zituzten lanok, eta, hasiera batean sei- zazpi astean dena bukatuta izan- go zutela pentsatzen bazuten ere, zertxobait luzatuko direla jaki- narazi dute Ur Kontsorziotik.

### Eragozpenak

Lanok egiteko hainbat zanga ireki dituzte auzoan eta hainbat eragozpen sortu dizkiete auzo- tarrei. Bada, Ur Kontsorziotik pazientzia eskatu diete bizilaguo-



Ahateen urmael ondoan egin duten zanga. | OIHANA ELORTZA

nei. Eta gaineratu dute badaki- tela hainbat arazo sortu dizkie- tela obrek, baina "euren onera- ko" izango direla.

Lanek ez dute zirkulazio moz- ketarik eragingo. Hala ere, erre- pide bazterrak zulatzen ari dire- nez, gidariei inguruetatik arre- taz eta abiadura txikian ibiltzeko eskatzen zaie. Horretaz gain, ohartarazi dute zenbait aparkaleku okupatuta egongo direla egun batzuetarako eta

lanak egin bitartean zenbait gara- jetarako sarrerak ere zulatuko direla. Kasu horietan, autoa sar- tu edo atera ahal izateko txapak jarritako dira, zuloak estaltzeko.

Bestalde, ur mozketak ere izango dira hodien arteko kone- xioak egin behar direnean, Ur Kontsorziotik adierazi dutenez, baina ez dago zehaztuta noiz izango diren. Zehaztu dute pro- gramatzen direnean jakinarazi- ko zaiela auzotarrei.

## NIRE USTEZ

ELIAS ZUMALDE



Komunikaziñuak inkomunikaziñua dakarrenian


Azken urte honeitan sekula- lako aldaketak emun dira teknologixa berri- xetan. Ez dau oso atze- ra jo biharrik telefono bakarrik ez euen garaiekin topo egitte- ko. Bape ez egotetik auzo bakoit- zian bat egotera pasau giñan eta hortik, etxe bakoitzian bat eukittera. Gaur, berriz, buruko bat dakogu eta gaiñera, Internet dala eta mundu osoko berrixak eskura dittugu. Akabo dira diz- kusiñuak, edozein zalantzaren aurrian atara poltsikatik tra- makuluoi eta zalantza guztixak argittuta. Akabo tabernaz tabe- rna lagunena bila ibiltzen ginen garaixak. Baiña, tamaiñu horre- tako aurrerapenak zorionsua- go egin gau? Ez dakit ba, kale

bazterretan gazte kuadrillak, eta ez hain gaztiak, alkarri ber- barik egin barik telefono mugikorretan jo eta sua ikusten dittutenian, edota itxoitten gau- zen tarte horreitan (medikua- renian, banketxian, geltokixan...) bakoitza bere aparatutxuari begira, zerbait inportantia gal- tzen gabitzela pentsaitten xat, aurrez aurreko harremanak. Teknologixa berrixak gauza on asko emuten doskue, baiña ken- du be kentzen doskue. Gauza danakin gertaketan dan moduan, hemen be neurrixan egongo da gakua. Albokuak ezezagun bihur- tu baiña leheneo, saiatu gaitze- zen telefono mugikorrei be neurrixa hartzen. Gaurkua egun aproposa izan leike segapotiok etxian itxi eta kaleko giruaz lagun artian disfrutaitteko. Ondo bukatu jaixak!

**"Alkarri berbarik egin barik, jo eta sua mugikorretan"**

## Arazoak saihesteko, hesitura

Joan den negu-udaberrian arazoak izan zituzten San Martin auzoan haize boladen ondorioz, atez ateko edukiontzia batetik bestera ibili ziren. Bada, eragozpen horiek saihesteko, gomak jarri zituzten esekitokietan, eta orain, hesitura jarri dute gune gatazkatsuenan.



### 'Sobran las palabras' filma emango dute egueneko zineklubean

Nicole Holofcener-ek zuzenduta- ko *Sobran las palabras* filma emango dute eguenean, urriak 9, zineklubean. Jaien aurretik dokumental bat eskaini bazuten ere, aste honetatik aurrera har- tuko du bere betiko martxa Oña- tiko zineklubak. Hau da, egue- netan, 20:00etan, kultura etxe- ko zinema aretoan.

### Iban Altuberen omenezko IV. irteera egingo dute domekan

Mendi bizikleta irteera hasiko da 09:00etan omenaldia egin ondoren, Foruen plazan. Bi ibilbide egingo dira -36 kilo- metrokoa eta 30ekoa-. Izen- e- mateko euro bat Aspanogi haur minbizidunen elkarterako izango da. Umeek, berriz, bost kilometroko ibilbidea egingo dute, 10:30ean abiatuta.

### Bihar irekiko dituzte Zubikoa kiroldegiko igerilekuak

Irailaren 25ean itxi zituzten Zubikoa kiroldegiko igerile- kuak garbiketa sakona egin eta igerileku txikiko lurzorua konpontzeko. Bada, behin lanok amaituta, bihar, mar- titzena, zabalduko dituzte, 14:00etan. Igeriketa ikasta- roak, berriz, urriaren 13an hasiko dituzte.

## ARETXABALETAKO

# 'Olympics', Aratzekoen azken filma egubakoitzean Arkupen

Olinpiadak ospatzeko beste era bat erakutsiko dute hamar minutuan

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Olinpiadak izango dira Arkupeneko Zaraia aretoko pantaila handian egubakoitzean, 19:30ean: hamar minutu irauten duen *Olympics* filma. Olinpiadak jaso dituzte, bai, baina Aratzekoenak: "Bi urtetik behin egiten dugu filma Aratzeko eta Atzegiko kideek, eta aurten tokatzen zen", jakinarazi du Jokin Antxia kideak. Aratzekoek egindako bosgarren filma da. Aurretik honako hauek egin dituzte: *Bidai baten ametsa*; *Amapolia*; *Are bale*; eta *Ekipo*.



Aratzeko kide Alex eta Iker igerian. | ARATZ ELKARTEA

## "Beste betegarri batzuk"

Adimen urritasunak dituzten aretxabaletarrek eta Durana kalean bizi diren Atzegiko pisukideek hartu dute parte azken film horretan; 21 lagunek, guztira. Eta jo eta su ibili dira kirol jardueretan: "Olinpiadak ospatzeko beste ikuspuntu bat era-

kusten du pelikula", dio Antxiak. Ibai Zangitu eta Mikel Alberdi izan dituzte lagun grabatzeko orduan, eta, beste behin, ilusio handiarekin egin dute lan guztiek. Datorren egubakoitzean elkartuko dira guztiak pantaila

handian ikusteko, eta senideak eta herritarrek alboan izango dituzte: "Pelikula hamar minutu irauten du, baina egubakoitzeko ekitaldiak badauzka beste betegarri batzuk", gaineratu du Antxiak.

## ESKORIATZA


# Igerilekua zabaldua, martxan da denboraldia

Datorren zapatuan fitness jaia egingo dute kiroldegian, kirol eskaintza herritarrei erakusteko

M.A. | ESKORIATZA

Esandakoa bete eta urriarekin batera zabaldu dituzte Manuel Muñoz kiroldegiko igerilekua eta beste hainbat gela. "Hala, normaltasun baten barruan sartu garelako esan daiteke, nahiz eta

oraindik barruko lan dezente geratu egiteko", jakinarazi du Rosa Lasagabaster kirol aholkulariak. Eta eskoriatzarrek gus-tura hartu dute berriro igerilekua, hiru hilabete pasatxo itxita egon ostean.



Kiroldegiko igerilekua urez beteta. | ROSA LASAGABASTER

## Fitness jaia zapatuan

Urriarekin batera kirol denboraldia jarri dute abian. Berrikuntzen artean dago osasun fitness zerbitzua, lehen fitness zerbitzua zena, eta ordutegi zabalagoa du orain, astean sei ordu, hain zuzen: martitzenetan eta eguenetan, 10:15etik 11:15era eta 18:30etik 20:30era.

Era berean, betiko eskaintzari eutsi diote: pilatesa, body-tonua, gimnasia abdominal hipopresiboa eta spinninga. Azken hori gela berriari hasi dira egiten, Joseba Iñurrategi pilotalekuan, hain zuzen ere, eta berrikuntza moduan azpimarratu dute sentazioen eta pultsazioen kontrola eramateko sistema estreinatuta dutela. Ekin-tza berrien artean zumba eta body-balancea ere badaude.

Gura dutenek bi saio debalde egin ahal izango dituzte eskaintakoa probatu ahal izateko; gonbidapenak kiroldegian dauzkate.

Bestalde, zapatuan, fitness jaia ospatuko dute kirol eskaintza herritarrei gerturatzeko. Hainbat ekintza probatzeko aukera izango dute Manuel Muñoz kiroldegian goiz osoan.

# Mendekotasunen bat duten herritarren zaintzaileendako taldea osatu gura dute

M.A. | ESKORIATZA

Mendekotasunen bat duten herritarren zaintzaileendako laguntza taldeak finantzatzeko Aldundiak Sendian programaren barruan, eta Eskoriatzan ere osatu gura dute talde hori. Aldundiak onartu egin du Udalak egindako eskaera, eta, hala, Eskoriatzakoekin batera Artxabaletako zaintzaileei emango diete aukera

zaintzaileen talde horretan parte hartzeko.

Izena emateko epea zabalik dago urriaren 17a arte. Taldea hileko laugarren ostegunetan bilduko da Ibarraundi museon, eta ordutegia taldearen arabera zehaztuko dutela jakinarazi dute.

Parte hartu gura duenak Gizarte Zerbitzuetara jo behar du izena ematera (943-71 31 36).

# Ibarraundiko hondakinen bulegoak beste ordutegi bat du

Gaurtik aurrera, Ibarraundiko hondakinen bulegoak beste ordutegi bat du. Aurrez aurreko zerbitzua bi egunetan dago: martitzenetan (10:00-14:00 eta 15:00-19:00) eta eguenetan (10:00-14:00). Harremanetan jartzeko bideak: telefonoz, 943-71 54 53 edo 688 862 527; eta postaz: [hondakinak.eskoriatza@debagoiena.com](mailto:hondakinak.eskoriatza@debagoiena.com).

## NIRE USTEZ

JOSU ZALOÑA



## 'Otsoak, uuuuh!!'

Horrela dio abestiak, joan den ostiral iluntzean abestu genuen hark.

Han izan ginen giro paregabean, mahai bat, bi kabilete, seina aulki, etxetik ekarritako jatekoak eta hainbat lagun. Musikariak denetarik euskal abestiak joz. Eta adin ezberdineko herritarrek elkarrekin kantuan: izeba, amama, gazteak, gaztetxoagoak... Hasieran lotsatu samar, gerora gogotsuago, janak eta edanak lagunduta. Gainera, izan ziren dantzara animatu zirenak ere. Beraz, pentsa nola ibili ginen sanmigeletan egin zen kantu afarian.

Oker ez banago, hirugarrenez egin da ekimena, eta urtero bildu da ehunka herritar kantu afarira. Ekimen xumea izan arren, edarra da hainbeste jende elkarrekin kantuan ikustea, kale nagusian goitik behera. Ostantzean, gurean galdu antzean dagoen ohitura dela ematen duen arren, izandako arrakastak erakusten du hor badela zerbaite. Horrela bada, zorionak ekimenaren sustatzaileei, eta, nola ez, musikariei.

Amaitzeko, gura izanez gero, anima zaitezte kantatzera... *Otsoak, uuuuh!! / Mendia gaintan ugari / xuri-beltzak, urdin, gorri / Trumilka ziren etorri. / Horregatik txanogorritxu / urrundu otsoetatik!* (bis).

## "Zorionak sustatzaileei eta, nola ez, musikariei"

# Ziburuko ikastolarentzat 1.030 euro jaso ditugu sanmigeletan

KOMUNITATEA GOIENA | E. BALTZATEGI  
ARIZMENDI IKASTOLA | ARETXABALETAKO

San Migel jaietako azokan 1.030 euroko laguntza lortu dute Basabeazpi eta Almenekoen Ziburuko ikastolarentzat. Eta aurreantzean beste hainbat ekimen aurreikusten ditugu Kaskarotenea ikastolari laguntzeko.

## Zozketa berezia

Ziburuko Kaskarotenea ikastola oso egoera larrian dago; izan ere, Udalak utzita zion eraikina ez uzteagatik, ikastolak eguneko 100 euroko isuna ordaindu beharra dauka. Arizmendi Ikastolak, egoera hori ezagututa, diruz laguntzeko asmoa hartu du, eta horretaz gain, egoera horren berri eman nahi dugu eta salatu. Horretarako, besteak beste, San Migel jaietan, ostiral eta larunbatean postua jarri zuten Basabeazpi-koek eta Almenekoen. Ostiralean txistorra pintxoak jarri ziren eta larunbatean Almeneko ikasleek egindako jaki goxoak. Gainera, euro baten truke zozketa

berezia egin zen, eta izugarriko arrakasta izan zuen. Guztira, 1.030 euro jaso ziren, eta Arizmendi Ikastolako oso pozik gaude erantzunarekin.

## Egoera larria

Ziburuko ikastolaren eraikina Udalarena da, bere garaian utzitakoa ikastola sortzeko. Hala ere, alde egiteko agindua eman zitzaion, eta Paueko administrazio auzitegiak zazpi eguneko epea eman zion ikastolari horretarako. Baina bertan jarraitzea erabaki zuten. Bada, agindua betetzen ez duen egun bakoitzeko 100 euroko isuna ordaindu beharko dute. Erabakia ikasturte hasieraren bezperan iritsi zen. Hori gutxi ez, eta Udalak argindarra eta ura moztu ditu. Argi moztetari aurre egiteko, argindarra sortzeko makina alokatu dute eta behar beste ur botila erosi dituzte. Baina gastu horiek 100 euroko eguneko isuna batuz gero 200 bat euroko kostua ekarriko dio ikastolari eguneko.



Lore eta Aitor seme-alabekin, opariak esku artean. | ARIZMENDI IKASTOLA



Elgetako erretiratu taldea, irailaren 17an, Errioxan. | JUAN MARI ARANTZETA

## ELGETA

## Xalbadorpe erretiratuen elkarteak irteera antolatu du Gernikako azokara

Irteeraren prezioa 30 euro da, eta interesa dutenek urriaren 11n, zapatua, eman behar dute izena Ozkarbi elkartearen, 11:00etatik 12:00etara

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Agenda ekitaldiz lepo dute udazken honetan ere Elgetako erretiratuek. Irailaren 17an Errioxan egin zuten egun-pasa, eta eguaztenean zahartzaro aktiboari buruzko hitzaldia entzun zuten Martziel Andrinua elizgizonaren eskutik.

Hil honetarako ere irteera antolatu dute. Gernikan, urriko azken astelehenean egiten den

azokara joango dira, Elgetatik autobusean abiatuta, 09:15ean. Irteera, beraz, urriaren 27rako proposatzen dute Xalbadorpe elkartetik. Asmoa da goizez azoka ikustea, eta bazkalorduan Lekeitiora gerturatzea bertako Egaña jatetxean otordua egiteko.

Prezioa 30 euro da, eta ezinbestekoa da aurrez izena ematea. Elkarteke zuzendaritzako kideek jakinarazi dute Ozkarbi elkartearen

izango direla zapatuan, urriak 11, 11:00etatik 12:00etara izen-ematea egiteko.

## Txertaketa kanpaina

Gogoratu behar da, bestalde, Elgetan ere martxan dela gripearan aurkako txertaketa-kanpaina. 65 urtetik gorako guztiendako izango da, eta baita gaixotasun kronikoren bat duten 65 urtetik beherakoendako ere.

## Ipuinak, barikuan

Udal Liburutegian, bestalde, umeendako ikasturteko bigarren ipuin kontalari saioa egingo dute barikuan, urriak 10. 3 urtetik gorako neska-mutikoei zuzendutako kontaketa saioa da, eta 17:20tik 18:00etara izango da, euskaraz. Herriko boluntarioekin egiten den Ipuinen Ordua ekimenaren barruan sartzen da ekintza.

Haurrak gurasorik gabe egongo dira liburutegian ipuin kontalari saioa entzuten.

## Maala guraso elkarteak urriaren 15ean egingo du batzar orokorra

L.Z. | ELGETA

Elgetako Herri Eskolako neska-mutikoen gurasoak deitu ditu, aurten ere, Maala Guraso elkarteak batzar orokorrera. Batzarra urriaren 15ean, eguaztena, egingo dute, 20:00etan, eskolako hirugarren solairuan dagoen musika gelan.

Gai zerrendan daude, besteak beste, 2013-2014 ikasturteko balantze ekonomikoa eta batzordeko kide berrien izendatzeak zein kargu hartzeak. 115 neska-mutikok hasi dute ikasturtea Elgetako eskolan. Familia guztiak daude urriko batzar orokorrera deitua.

## LEINTZ GATZAGA

## Trikiti eskola sortu gura dute aurtengo ikasturtean, Osinagarekin

Izena emateko orriak Labidean eskura daitezke, eta ez dago epe-mugarik izena emateko

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Ines Osinaga Arrasateko trikitilari ezagunaren gidaritzapean, trikiti eskola sortzeko pausoak ematen dihardute Gatzagan; besteak beste, izena emateko epea zabaldu dute dagoeneko eta Labidea dendan daude horretarako eskuorriak. Are gehiago, proiektua aurtengo ikasturtean bete-

tzeko asmoa dutela jakinarazi du Iñaki Agirreurretak, Kultura zinegotziak. Gabonen aurretik ez bada, urtarrilean, edo ahal denean, baina aurtengo ikasturtean izango dela, seguru.

## Eskolarik ez duen bakarra

Proiektuaren jatorriari buruz galdetuta, berriz, Agirreurretak

esan du ideia Gose taldeko abeslariarengandik berarengandik jasotakoa dela. "Hark beti izan du ideia herri txiki batean eskola bat sortzekoa. Eta Leintz Gatzaga da trikiti eskolarik ez duen Debagoieneko herri bakarra", esplikatu du.

## Puntu-lanak egiteko aukera

Bestalde, eta ikaste kontuak aipatzen jarraituz, oso bestelako gaia ikasteko aukera ere izango da laster herrian: puntu-lanak egiten. Ikastaroa egingo dute horretarako, eta, kasu horretan ere, izen-ematea zabaldu dute dagoeneko. Hori ere Labidea dendan egin behar da.

## ARAMAIO

## Sastiñako egubakoitz musikatuek izandako erantzunarekin pozik

Udaleko Kultura Sailak balorazio positiboa egin du: "Plazak bizitasun handia irabazten du"

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Algortako West Bluegrass Band taldearen kontzertuak itxi zituen Sastiñako egubakoitz musikatuak. Aurten, azken bost edo sei urteetako ohiturari jarraituz, ekaineko eta iraileko egubakoitz guztietan egon dira zuzeneko emanaldiak eta Udaleko Kultura Saila pozik dago orokorrean izan duten erantzunarekin: "Kalitatezko emanaldiak izan dira, jendea mugitu dute, eta, egubakoitz batean kenduta, eguraldi nahiko ona izan dugu. Orokorrean, giro polita egon da herriko plazan", dio Kultura zinegotzi Lierni Altunak.

Hori bai, datorren urterako aldaketa txiki bat zehaztu dute: "Irailean kontzertuak lehenago

jarri beharko ditugu, konturatu garelako irailean argia lehenago joaten dela eta fresko egiten duela, batez ere azken bi egubakoitzetan. Irailean aurreratu egin beharko ditugu; ekainean, berriz, ordu berean mantenduko dira, 20:00etan".

## Herritarren esker ona

Altunaren arabera, jendeak "oso gustura" ikusten ditu kontzertuak: "Herriko plazak bizitasun handia irabazten du eta jendeak asko eskertzen ditu kontzertu formatu horiek. Esker on hitz eta zorion asko jaso ditugu; beraz, jendeak nahi duen eta herrian ondo funtzionatzen duen ekintza batekin jarraitzea izango da helburua datorren urtean ere".



Iraileko egubakoitzak B3 Dixieland taldeak ireki zituen. | GOIENA

## ANTZUOLA

## Hezitzaile bezala lan egiteko deialdia zabaldu dugu eta izena eman daiteke

KOMUNITATEA GOIENA | GAZTETXOKOA | ANTZUOLA

Aurtengo ikasturtean gazte txokoan hezitzaile bezala lan egiteko deialdia irekita dago jada. Hiru hezitzaile aurreikusten dira ibiliko direla gaztetxoekin lanean. Bertan lan egiteko baldintzak 18 urtetik gorakoa izatea eta antzuolarra izan edota bertan bizitzea izango dira.

Hala eta guztiz ere, gazte txokoko lan esperientzia, begirale titulua izatea edota zerikusia duten ikasketak edukitzea baloratuko dira.

Izena emateko azken eguna urriaren 12a, domeka, da. Izena emateko bidali mezua [gazteantzuela@hotmail.es](mailto:gazteantzuela@hotmail.es) helbidera edota 943-76 60 65 telefono zenbakira deitu.



Izena emateko gazte txokoko gaztetxoek egindako irteera. | ANTZUOLAKO GAZTE TXOKOA

# Zeu irabazle

Goiena Klubeko txartela erakutsi eta aprobetxatu abantailak.



<p><b>ALZU</b></p> <p><b>ALZU, S.L. Ehiza eta arantzaz Arantzazuko Ama, 2   Oñati</b> Arropetan %10eko beherapena.</p>	<p><b>AQUARIUM</b> DONOSTIA SAN SEBASTIAN</p> <p><b>AQUARIUM – Donostia</b> Bi erosi eta bat ordaindu (Sarreana garestiena ordainduko da).</p>	<p><b>ARRIKRUTZ</b> oñatiko obak</p> <p><b>ARRIKRUTZ Kobak Araotz Auzoa   Oñati</b> Sarreran %10eko deskontua (topea bost pertsona).</p>	<p><b>AZPEITXI JATETXEA</b></p> <p><b>AZPEITXI Jatetxea*</b> Aranerrekalea 13, Bergara Tel.: 943 76 55 00 Azpeitxi jatetxeko otorduetan bazkide-txartela erakutsiz gero; Eguneko menuan, bazkarian kafea doan. Asteburuetako menuan, bazkarian eta afarian kafea doan.</p>	<p><b>caravanas Oñate</b></p> <p><b>CARAVANAS OÑATE Galdaragintza, Bizikletak Otadui Zuhaiztia, 25   Oñati</b> 50€-ko erosketa egiteagatik, %10eko deskontua stockean dauzkaten oinetako eta ehun-gaietan. (ez du balio beste promoziotarako).</p>
<p><b>ESKO Sport</b></p> <p><b>ESKO SPORT Kirol denda Intxaurtxueta 5   Eskoriatza</b> Arropa eta zapatiletan %10eko deskontua.</p>	<p><b>ESTACION SERVICIO ARRASATE Gasolindegia</b> San Andres 7   Arrasate % 2ko gasolindegian erregaia erositak. % 2ko dendako produktuetan.</p>	<p><b>EUREKA! zientzia museoa</b></p> <p><b>EUREKA ZIENTZIA MUSEOA Aisia Mikeletegi 43-45   Donostia</b> Sarrera bat erositak eta kupoia Goiena Klubeko txartela erakutsita, sarrera bat doan.</p>	<p><b>GAES</b> Centros Auditivos Entzumen zentruak</p> <p><b>GAES Entzumen zentroa Otalora 18   Arrasate Zurradero 10   Bergara</b> %10eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)</p>	<p><b>GAHIR fisioterapia osteopatia</b> RPS: 320/13</p> <p><b>GAHIR Fisioterapia / Osteopatia Aranburuzabala 6 behe   Eskoriatza</b> %50eko deskontua lehenengo kontsultan.</p>
<p><b>GRACIAN Mertzeria</b> Bidekurutzeta kalea 6, Bergara 25 eurotik goragoko erosketetan %20ko deskontua.</p>	<p><b>GUZTIZ EDER Estetika zentroa Kalebarria 29   Oñati</b> %5eko deskontua argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan (bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik). %10eko deskontua gorputz osoan txokolaterekin egindako estalduran eta masajean.</p>	<p><b>INSTITUTO OPTIKOA</b> Bidekurutzeta 10   Bergara %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan eta aparatu audifonoetan..</p>	<p><b>IONE MOÑUX fisioterapia zentroa</b> RPS: 301/14</p> <p><b>IONE MOÑUX Fisioterapia zentroa Burdinate plaza 2   Bergara</b> Lehenengo sesioa, sesio erdi..</p>	<p><b>KOMA language services</b></p> <p><b>KOMA AKADEMIA Iturriotz 35, behe, Arrasate</b> Ikasle berriandako %10ko deskontua kurtsoan hasten diren lehen dabiliziko kuotan (matrikula ez dago barne).</p>
<p><b>KUTTUNA</b> ESTETIKA ZENTROA RPS: 285/13</p> <p><b>KUTTUNA Estetika Aranburuzabala 19, behe   Eskoriatza</b> %5eko deskontua zerbitzu guztietan (beste promozio batzuk izan ezik).</p>	<p><b>LASTAI</b> Koltxoak eta umeentzako artikuluak Arkatza 1, 49 Pab   Gasteiz %5eko deskontua gehigarria helduentzako atsedenen arloan. %5eko deskontua haur kotxe eta automobileko segurtasun – aukietan. %5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietarako denboraldiko ehun-gaietan. %10eko deskontua denboraldiko hau-arropan. (Beharpenetan eta eskaintza berezietan izan ezik).</p>	<p><b>LILURA</b> EDERTZE INSTITUTUA RPS: 299/13</p> <p><b>LILURA EDERTZE INSTITUTUA Estetika zentroa Bidekurutzeta 7   Bergara</b> %15a laser depilazioan: hanka osoa + izterondo (besapekoak opari). %20eko deskontua elikagai intolerantzia proban. %10eko deskontua mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak. %10eko deskontua fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan. Bazkidearentzat eta lagunarentzat</p>	<p><b>MAGDALENA</b> ASOI INDEGITA</p> <p><b>MAGDALENA Gasolindegia Santxolopetegi auzoa   Oñati</b> % 2ko deskontua gasolindegian erregaia erositak.</p>	<p><b>MULTIÓPTICAS</b> lehen zerbitzu optikoetan R.P.S. 149/10 L.L.G.</p> <p><b>MULTIÓPTICAS Optika Juan Carlos Guerra, 1 behe   Arrasate Ibargarai, 16   Bergara</b> %15eko deskontua (deskontua ez da aplikagarria promozioetan ezta segurtasun betaurrekoetan)..</p>
<p><b>NAREN</b> Fisioterapia eta osteopatia zentroa Belorrieta 5 behe   Aretxabaleta %15eko zerbitzu guztietan (Errehabilitazioan izan ezik).</p>	<p><b>NINIKA</b> LORADENDA</p> <p><b>NINIKA Loradenda Ramon Maria Lili, 8   Bergara</b> %10eko deskontua artikulu guztietan.</p>	<p><b>OÑATI GARAJEA</b> PEUGEOT</p> <p><b>OÑATI GARAJEA Autoen garaje. Konponketak Goribar Auzoa 9   Oñati</b> Oñati %5eko beherapena egiten diren konponketetan.</p>	<p><b>PORTALOI Optika</b> RPS: 262/13</p> <p><b>PORTALOI optika Erdiko kalea 10, Arrasate</b> %15eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin eta ez aplikagarria segurtasun betaurrekoetan).</p>	<p><b>TXURI-URDIN</b> Izotz Jauregia</p> <p><b>TXURI URDIN Itzotz jauregia Anoeta Ibilbidea 24   Donostia</b> % 20eko deskontua zapatu eta domekatan (ez bada zubia edo oporraldia). % 10eko deskontua zubi eta oporraldietan.</p>

\* Eskaintza honek, GOIENA KLUBEKO txartelaren titular bakoitzeko, kafe bat hartzen du barne.

## GOIENA KLUBEKO ABANTAILA GEHIAGO:

**Goiena papera:** Astelehenetan ere etxean.

**Deskontuak:** Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskela guztietan.

Urte amaira arteko kuota: **15 €.** | 943 25 05 05  
kluba@goiena.com | goienakluba.com



**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!

# KIROLA



Antzuolako jokalarik Oinatz Agirre baloia oinetan duela, Beti Gazteren jokalariek begira dituela. | JOSETXO ARANTZABAL

## Gol aukerak bai, baina golik ez Antzuolak

- ▶ Julen Muruaren taldeak ez zuen asmatu azken erremateetan
- ▶ Lau jardunaldiren ostean ez dute partidurik irabazi oraindik gorriek

### EMAITZA

ANTZUOLA  
**0-0**  
BETI GAZTE

### FITXA TEKNIKOA

**Antzuola:** Mardaras, Jonpa, Jontxu, Altzeta, Arruti, Jokin, Godoi, Danel, Aranbarri, Imanol eta Oinatz.

**Beti Gazte:** Yanik, Iker, Fernando, Olaizola, Otxoteko, Flores, Unai, Beñat, Ander, Igor eta Jabier.

**Beste:** Antzuolako eta Lesakako zale dezente batu zen Estala futbol zelaietan, Ohorezko Erregional Mailako laugarren jardunaldiko partidua ikusteko.

### MIREIA BIKUÑA | ANTZUOLA

Irabaztea zuen helburu Antzuolak atzo, eta zelaietan igarri egin zen. Jon Muruaren taldeak arriskua sortu zuen lesakarren arean, eta gol aukera garbiak izan zituen, baina ez zuen errematean asmatu eta berdinketarekin bukatu zen partidua. Gol aukerak izan zituen bai, baina golik ez zuen sartu Antzuolak. "Ez dugu golik sartu, baina jaso ere ez. Alde positiboarekin geratuko gara", esan zuen bukaeran Julen Aranbarri jokalariek.

### Oinatz eta Danel

Lehen zatia etxeko taldeak menderatu zuen. Hasierako minutuetan baloi luzeekin jokatu zuten eta horrek zaildu egin zuen Yaniken atera erremate garbiekin iristea. Antzuolako Oinatzek areaz kanpo egin zuen lehen jaurtiketa, boleaz. Danelek egin zuen bigarrena, jokaldi pertsonalaren ostean. Ez zuten asmatu.

Bi jokalarik horiek izan ziren protagonista Antzuolaren eraso-jokaldi gehienetan. 18. minutuan Oinatzek baloia erdiratu zuen, eta bigarren zutoinean ez zuen asmatu Danelek. 28. minutuan, Danelek erdiratu zuen eta Oinatzek gora bota zuen baloia. Bi jokaldi horien artean, Altzetak

buruz errematatu zuen, eta Beti Gazteren atezainak geldiketa ikusgarria egin zuen.

Lesakarek 36. minutuan egin zuen lehen jaurtiketa. Arrisku barik. Hori izan zen lehen zatian erasoan egin zuten apurra. Atzeko bi lerroetan askoz sendoago egon ziren.



Antzuolako aulkitxoa: jokalariek adi-adi partidua ikusten. | JOSETXO ARANTZABAL

**JULEN ARANBARRI**  
ANTZUOLAKO JOKALARIA

**"Lehen lehia irabazten dugunean irtengo gara zulotik"**

Garaipena behar zutela aitortu arren, ontzat eman zuen puntua Aranbarrik.



**Nahi eta ezin ibili zarete.**

Batez ere lehen zatian ibili gara ondo. Baloia menderatuz eta aukera garbiak izaten, baina ez dugu asmatu.

**Gaur zen lehen garaipena lortzeko eguna?**

Helburu horrekin irten gara zelaira, baina ezin izan dugu. Oraingo bi puntu bakarrik ditugu, eta azken-aurreko lekuan gaude sailkapenean, baina irtengo gara hortik.

**Liga txapelketa hasi besterik ez da egin!**

Bai, ba! Horregatik diot denbora daukagula sailkapenean gora egiteko. Lau jardunaldi eta bi puntu. Ez da asko, baina taldeak hainbat aldaketa izan ditu eta denbora apur bat behar dugu. Guretzat errazagoa da Eztalan irabaztea, zelaiari neurria hartuta diogulako.

### Penaltia eskatu zuten

Bigarren zatian, lesakarek beste itxura bat eman zuten. Azken metroetan oso fin ibili ez ziren arren, beste freskotasan bat erakutsi zuten. 63. minutuan zutoinera bota zuten baloia, baina epaileak jokaldia baliorik gabe utzi zuen errematea egin zuten jokalaria joko kanpo zegoelako.

Bi minutu geroago, penaltia eskatu zuten Antzuolako jokalariek eta zaleek. Oinatz lesakarren area barruan erori zen. Epaileak ez zuen ezer adierazi.

77. minutuan etxekoan atezaina izan zen geldialdi ederra egin zuena. Floresek baloia loratu zion Mardaras, eta hark esku batekin atera bidali zuen kornerrera.

Askoz gehiago kosta zitzaion Antzuolari gol aukerak izatea bigarren zatian. Bi aldaketa egin zituen Muruak, baina ez zuen esperotako emaitza lortu. Hori bai, 75. minutuan, langara bidali zuen baloia etxeko taldeak.

Azken minutuak nahiko aspergarriak izan ziren.

### Hurrengo, Elgoibarren

Lau jardunaldi jokatu dira dagoeneko eta Antzuolak ez du partidurik irabazi: bi galdu eta beste biak berdindu egin ditu. Hurrengo Elgoibarren jokatuko dute.

## SENIOR NESKAK

# Maila altuagoko taldea eta zailduagoa dela erakutsi dute Aretxabaletakoek

- ▶ Ane Vicenteren, Paula Montianoren eta Ane Gartziairen golekina irabazi zuten derbia
- ▶ Jokoaren alor guztietan nagusitu ziren kanpokoak, gol gehiago egiteko aukerekin

## EMAITZA

BERGARA  
**0-3**  
ARIZMENDI

JULEN IRIONDO | BERGARA

Bergararrak saiatu ziren, baina ezer ezin izan zuten egin Arizmendikoen nagusigoaren aurrean. Markagailua azken minutuetara arte hautsi ez zen arren, kanpokoek ez zuten garaipena behin ere arriskuan izan, zelai erditik atzera estutasun askorik gabe ibili ziren-eta.

Partidua hasi eta lasterrera egin zuen Arizmendik aurreneko gola, Ane Vicenteren bitartez: "Agian pentsatu dugu lasai irabaziko genuela, gainera Bergarak aurreko astean 12 eta 0 galdu eta gero", zioen amaieran Aretxabaletako entrenatzaile Aritz Elortzak. Eta ez, ez zuten halako gol alde handiarekin irabazi, baina Elortzak berak onartzen zuen partidua "uneoro" izan zutela dominatuta: "Zapore gazi-gozo horrekin geratu naiz; aukera asko egin ditugula, beste sei edo zazpi gol egiteko adina".



Bi taldeetako jokalariek baloiagatik lehia. | IMANOL SORIANO

Eta hala da; ze kanpokoek nagusigoa nagusigo, atsedendira 1 eta 0 iritsi zen partidua. Arizmendiko neskek erakutsi zuten bergararren aldean urteak daramatzatela elkarrekin talde gisa jokatzeko, zelaian ondo koka-

tuta eta batzuk besteekin ongi konbinatuz: bat-bikoak, pase sakanak... Baloia gidaritzan ere teknikoki maila hobea erakutsi zuten Elortzaren neskek.

Hala izatea, normala, dena den; izan ere, zenbait urtez herrian

senior mailako nesken talderik gabe egon eta gero, aurten ateratu dute berriz ere, eta oso gazteak dira Gotzon Odriozola mahone- roen entrenatzaileak bere esanetara dituenak: talde erdia gazte mailako adinekoak, eta beste lau

jokalaria 20 urtez azpikoak; "disfrutatzea" dute, nola ez, aurtengorako helburu.

## Helburu desberdinak

Paula Montianok egin zuen Arizmendikoentzat 0 eta 2koa, eta kanpokoek hirugarren gola azken minutuetan iritsi zen: Ane Gartzia egin zuen.

Honenbestez, aurreko astean ligako aurreneko jardunaldian galduta -epailearekin oso haserre bukatuz, gainera; Agorrosinen aukeratik kanpora egon behar izan zuen entrenatzaileak, Ilintxaren kontra kanporatua izan eta gero-, lehen hiru puntuak batu zituen Arizmendik zapatuan. Azken urteetan Euskal Ligarako igoera fasea jokatu dute, eta ikusi egin behar aurten ere posible den; lehia horretan egon nahi lukete, behintzat, Aretxabaletakoek, nahiz eta onartu iaz baino maila apalagoko taldea dutela, izandako bost bajen ondorioz.

Bergarak, berriz, ikasten joatea eta kategoriara egokitzea izango du egiteko. Datorren astean berriz ere etxean ariko dira, Eibarren kontra. Eta beste derbi interesgarri bat ekarriko digu jardunaldi berriak: Arizmendi-Mondra.

## OHOREZKO ERREGIONALA

**Bat gutxiagorekin emaitzari eusten jakin izan zuten UDAkoek**

## EMAITZA

ANAITASUNA  
**0-1**  
ARETXABALETA

J.I. | ARRASATE

Nahikoa lo hasi zuten partidua Aretxabaletakoek, baina lehen hamar minutuen ostean nagusi izan ziren zelaian. 41. minutuan egin zuen partiduko gol bakarra Josu Arizmendiarririk.

Bigarren zatiari hobeto ekin zioten UDAkoek, baina erdi aldera okertu egin ziren gauzak, epaileak egotzi egin zuen-eta Aitor Perez. Gorka Valleren mutilak atzean sartu ziren, eta azkoitiarrek aukera pare bat egin zituzten, baina berdinketa ez zen iritsi. Dena irabazita eta golik jaso gabe, lider da Aretxabaleta.

## OHOREZKO ERREGIONALA

**Galdu zitekeen, irabazi ere bai, eta azkenean berdindu**

## EMAITZA

OSTADAR  
**1-1**  
BERGARA

J.I. | ARRASATE

Partidu orekatua eta polita jokatu zuten zapatu arrasaldean Lasarten Ostadarrek eta Bergarak. Lehenengo zatian mahonekoak izan ziren gehixeago, baina izandako aukerak ez zituzten gol bihurtu.

Bigarren zatian, berriz, etxeok indartsu hasi ziren, eta aurretik jarri ere bai markagailuan. Hiru minuturen buruan lortu zuen, ordea, Bergarak berdintzea, Xabier Jorge Markel hegoaletik ateratako falta buruz errematatuta. Azkenean, denak pozik.

## OHOREZKO ERREGIONALA

**Luzapenean egin zieten alde bi puntuk oñatiarrei**

## EMAITZA

USURBIL  
**1-1**  
ALOÑA MENDI

J.I. | ARRASATE

Denboraldiko lehen garaipena iristear izan zen Aloñakoentzat, baina luzapeneko bosgarren minutuan lortu zuten etxeok berdintzea.

Oñatiarrena izan zen lehenengo zatia, eta Asier Ugartek egin zuen 0 eta 1koa, Markel Aiastuiren pasea jasota. Bigarren zatian, berriz, Usurbilek izan zuen jokoaren ekimena, eta Igor Serranoren mutilak saiatu ziren atzean emaitzari eusten. Etxekoek ez zuten aukera asko sortu, baina luzapenean egin zuten gola.

## PREFERENTEA

**Aukeretan asmatu ez eta azkenean galdu arrasatearrek**

## EMAITZA

ZUMAIKO  
**2-1**  
MONDRA

J.I. | ARRASATE

Lehenengo zatiko 20. minutuan jaso zuen lehen gola Mondrak, kórner batean; lehenengo errematea geratu egin zuen atezainak, baina aldaratzea sareetara joan zen.

Bigarren zatiaren erdi aldera iritsi zen, ordea, berdinketa. Kontraeraso batean, Xabi Arrizabalagaren asistentzia aprobetxatu zuen Iker Urribarrenek, banakoa egiteko. Aukera gehiago ere izan zituzten Gotzon Urzelaireren mutilek, baina ez zuten asmatu, eta gogotik ordaindu zuten gero.

## SENIOR NESKAK

**Markagailuari buelta eman eta pozik etxera**

## EMAITZA

ILINTXA  
**1-2**  
MONDRA

J.I. | ARRASATE

Galtzen hasi ziren arrasatearrek Legazpin, eta hala joan ziren atsedendira. Bigarren zatian, ordea, jaun eta jabe izan ziren Andoni Ezkurren neskek, eta Ane Arregiren eta Eider Zeziagaren golekina irauli zuten markagailua.

Gol gehiago egiteko aukerak ere izan zituzten Arrasatekoek, baina ez zuten asmatu, eta, azken bost minutuak bat gutxiagorekin jokatuta, urduritasun apur batekin ibili ziren amaieran, nahiz eta estutasun askorik pasa ez.

## SASKIBALOIA

# Gernika Bizkaiak eraman du Euskal Kopa, kalitate handia erakutsita

Eskoriatzako kiroldegian jokatu dute emakumezkoen Euskal Kopa asteburuan, EAEko lau talde onenek



Gernikako Mazic, Vanderwal eta Mosby, EHUko Seguesekin, finaleko jokaldi batean. | JOSET

## EMAITZA

EHU DONOSTIA

# 56-87

GERNIKA BIZKAIA

## FITXA TEKNIKOA

**EHU Donostia:** E. Segues (4), Novo (11), Aduriz (6), Randolph (14), Foraste (5) —hasierako bostekoa—, Iparragirre, Gonzalez (4), Erauzetamurgil (2), Arroyo (2), Olabarria (8), A. Segues, Diaz. Entrenatzailea: Azu Muguruza.

**Gernika Bizkaia:** Pop (4), Monasterio (6), Vanderwal (9), Miller (15), Mosby (19) —hasierako bostekoa—, Peña (2), Diez (10), Mazic (18), Mugira, Garcia (4), Lazaro. Entrenatzailea: Mario López.

## USOA AGIRRE | ESKORIATZA

Gernikako neskek ziren Euskal Kopa irabazteko faborito eta aurreikuspen guztiak beteta eraman zuten azkenean kopa. Iaz igo zen Gernikako taldea lehen mailara eta aurtun ligari heltzeko talde bikaina dutela erakutsi dute aste bukaeran.

Finalean, partidu osoan markagailuan aurretik joan zen Gernika: 15-28 lehen laurdenean; 29-40 bigarren laurdenean; 41-62 hirugarren laurdenean; eta 56-87 bukaeran.

Erasoan, defentsan eta saskiratzeetan aurretik izan ziren gernikarrak, jokalariek duten maila onaren erakusgarri. Hain zuzen ere hori izan zen finala ikusi zuten guztiak azpimarratu zutena: Gernikako jokalarien maila bikaina eta taldeak lortzen duen oreka. Bost atzerritar gehitu dituzte aurtun taldean eta horrek indar handia eman dio taldeari. Ikusi bes-

terik ez dago Mosby, Mazic eta Millerrek finalean lortutako puntu kopurua; saiakera eta saskiratzeen arteko portzentaia ere oso altua izan zuten. Aurtengo ligan Gernika Bizkaiak ezustekoren bat emango duela aitortu zuen Fernando Raso Eskoriatza Kirol Elkarreko kideak. Hala, Eskoriatza moduko herri batean maila horretako jokalariek ikustea zorte handia dela esan zuen Rasok.

EHU Donostiari dagokionez, oraindik "errodajea" falta zaiela esan zuen Rasok: "Liga hasten denean ez dut uste horrelako alde-rik egongo denik bi taldeen artean", aipatu zuen.

## Finalerdiak

EHU Donostia eta Ibaizabalen arteko finalerdia 57 eta 53 bukatu zen. Oso lehiatua izan zen partidua. Atsedendira, adibidez, 22 eta 22 berdinduta iritsi ziren bi taldeak. Baina hirugarren laurdenean EHUk aurre hartu zuen, batez ere azken minutuetan, eta azken unera arte tentsio handia izan zen.

Araski eta Gernika Bizkaiaren artekoan gehiago igarri ziren ezberdintasunak. Atsedendira 40 eta 16 emaitzarekin joan ziren, Gernika aurretik zela eta bukaeran 68 eta 53 irabazi zuen. Araski hirugarren laurdenean hasieran baino hobeto aritu zen eta aldea txikitzea lortu zuen, baina Gernika gehiago izan zen.

## Bediak minutu batzuk

Aipatzekoa da, Izar Bedia arrasatearrak minutu batzuk jokatu zituela zapatuko finalerdian Araskirekin. Orain arte Eskoriatzako saskibaloitza taldean aritu da eta aurtun Gasteizko Araskin ari da jokatzen.

Gasteizko taldeari dagokionez, oraindik taldea egin gabe dutela esan zuen Fernando Rasok: "Taldekoko atzerritar bat falta da etortzeko, adibidez. Aurtengo helburua da igoerako play-offetan sartzea", aipatu zuen.

## NAIARA DIEZ | GERNIKAKO KAPITAINA

## "Lehenengo urtea izango da goiko mailan eta ilusio handiarekin gaude"

Naiara Diez Gernika Bizkaia-ko kapitaina pozik zegoen finala irabazita, baina zuhur ere bai, liga bestelakoa izango dela iriztita.

## Nola bizi izan duzue Kopa?

Euskal Kopa ilusio handiarekin jokatzen dugu, lau talde on etortzen dira-eta. Liga laster hasiko dugu eta proba ona izan da aste bukaera guztian jokatzea. Final gogorra eta serioa jokatu dugu. Azkenean irabazi egin dugu, baina gero ligan beste gauza bat izango da. Ligako lehenengo partidua, gainera, EHUren kontra izango dugu, Donostian.

## Markagailuari begiratu gero, badirudi askoz gehiago izan zaretela gernikarrak.

Gure taldean fitxaketa onak izan ditugu. Baina trukua da

lan egitea. Asko entrenatzen dugu, gogor eta norberak bada-ki ze eginkizun daukan taldean; saiatzen gara guztiok gure lana ondo egiten. Eta gero emaitzak etorriko dira. Euskal Kopan zortea izan dugu, saskiratzeetan asmatu dugu-eta. Dena dela, liga hasten denean ikusi behar-ko da. Gure eginkizuna da partiduz partidu joatea.

## Aurtun duzue gorengo mailan lehen urtea. Ze asmo duzue?

Pasa den urtean bigarren mailan geunden eta Gernikarentzat lehenengo urtea izango da goiko mailan. Herria ilusio handiarekin dago, taldea ere bai, eta ea nola joaten den lehenengo partidua. Partiduka joango gara eta liga bukaeran hitz egingo dugu ea zer moduz egin dugun kontatzeko.



U.A.



Gernika eta Araskiren arteko finalerdia. | IMANOL SOR



Finaleko bi taldeak batera, sari-banaketan. | USOA





JOSETXO ARANTZABAL



IMANOL SORIANO



MAGIRRE

## ESKUBALOIA

## Anaitasuna talde indartsuaren aurrean berdinketa lortuta, pozik Ford Mugarrikoak

Arrasatearrak aurretik joan ziren markagailuan norgehiagoka ia guztian

EMAITZA
FORD MUGARRI
<b>27-27</b>
ANAITASUNA

## IRATI GOITIA | ARRASATE

Anaitasuna hartu zuen etxean atzo Ford Mugarrik. Arerio zaila da. Talde indartsua, esperientzia askoko jokalaria dituena. Garciaren mutilak prest zeuden, ordea. Hala, lehia irabazteko asmoz irten ziren kantxara eta izan zuten markagailuan aurretik bukatzeko aukera, baina azkenean berdinketarekin konformatu behar izan zuten.

## Arerioari ondo egokitu

Bizi hasi zen norgehiagoka. Lehen minututik tentsioz beteta. Kan-

potarrek defentsa aurreratua erabili zuten -hiru eta hirukoa- eta horrek izan zuten eragina arrasatearren jokoan. Normalean ez bezala, bigarren lerroko jokariekin izan zuten baloia mugitzeko ardura eta sei metrotatik jokatzen hasi ziren, jokaldi askotan bi euskarri erabiliz. Hor lortu zuten aurrera egitea etxekoek -11 eta 5 aurretik ziren 17. minutuan-. "Moldatu beharra izan dugu. Asteazkenean landu dugu euren jokoa. Gauza batzuk ondo irten zaizkigu eta beste batzuk okerrago, baina irakurketa nahiko polita egin dugu eta jakin dugu defentsa hori gaitzen", adierazi zuen Pablo Garcia entrenatzaileak partiduan amaieran.

Hala ere, eskuratutako aldea txikitu egin zen atsedendira (14-11). Izan ere, aurkariak aulkian gordetzen du bere indarretako bat: 16 jokalarik osatzen dute taldea. Errotazio luzeak egin zituzten, jokalaria fresko mantentzeko.

## Hutsegiteak asko

Bigarren zatian ez zen joko politik izan. Bi taldeen hutsegiteak izan ziren nagusi. Eta egoera hori hobeto aprobetxatu zuten kanpotarrek. "Asobal ligan jokatzen duten jokalaria daude Anaitasunan, ofizio asko dute, eta hori nabaritzen da", esan zuen Garciak. Azken minutuetan tentsioa izan zen nagusi. 28. minutuan aurreratu ziren Anaitasunakoak lehenengoz (25-26) eta 29. minutuan, arrasatearrak markagailuan puntu bateko aldeaz galtzen zihozazenean, etxeko aldeko penaltia adierazi zuten epaileek. Kepa Grucetak baloia barrura sartu zuen eta ia urrea balioa zuen puntua eskuratu. Hala bukatu zen lehia: 27-27. Oso pozik zen Garcia amaieran: "Oso partidu ona jokatzen dugu. Maila eman dugu eta gustura nago berdinketarekin. Egia da, irabazteko aukerak izan ditugula, baina berdinketa merezitakoa izan da".



JOSETXO ARANTZABAL

## SASKIBALOA

### Natra Oñatik ezin izan du mendean hartu Ibaizabal (79-55)

Ibaizabalen etxean ezin izan zuen garaipena lortu Natra Oñatik. Sailkapenean goialdean doa Ibaizabal eta arerio gogorra da. Hala, Zuhaitz Gonzalez mutilek ezin izan zuten mendean hartu. Amaieran markagailua: 79-55. Sailkapenean 11.ena da orain Natra eta datorren astean Paulas Skoda hartuko du etxean.

## SASKIBALOA

### Eskoriatzako neskek gaizki ekin diote ligari, 70eko aldeaz galduta

Zapatuan neurtu zituzten indarrak Antigua Luberriren aurka ligako lehen partiduan Eskoriatzako neskek eta 70 puntuko aldeaz galdu zuten. Gaizki aritu ziren eskoriatzarrak, kantxan kokatu gabe, eta markagailuan aldea handia izan zen. Hurrengo partidua STL Bilintzen aurka dute.

## ESKUBALOIA

### Bergarako mutilek irabazi eta Aloña Mendiko neskek galdu

Muniategiren mutilek irabazi egin zuten Ereitzaren aurka. Lehia erreza izan zen. Aurkariak min hartutako jokalaria asko zituen. Amaieran: 18-28. Aloña Mendiko neskek oso ondo aritu ziren defentsan eta gelditu zuten Zarautz talde indartsua, baina puntu bateko aldeaz galdu zuten (15-16).



Luis Rey, motor berriarekin lehiatzen. | BENJA RAMOS



Txapelketako proba batean. | BENJA RAMOS

## CROSS COUNTRY-A

# Luis Rey arrasatearra, Euskadiko txapeldun

Erregularitasunari esker, Euskadiko txapela jantzi zuen Reyk La Pueblan

KOMUNITATEA GOIENA | BENJA RAMOS  
MOTOZALEA | ARRASATE

Luis Rey moto gidari arrasatearra beste garaipen bat gehituz bere palmaesari joan den astean Euskadiko Cross Country txapeldun izendatuta. Txapelke-

tako azken lasterketa Arabako La Pueblan jokatu zen joan den martitzenean, eta bertan Luis Reyk nahikoa izan zuen bosgarren sailkatzea. Sei froga izaten dira guztira eta guztietan erregularrena izateagatik jantzi zuen

txapela Reyk: Espinosan bigarren sailkatu zen; Bergaran, hirugarren; Oñatin, bigarren; Arratzun, bigarren; Elgoibarren laugarren; eta La Pueblan, bosgarren. Guztira 29 pilotu lehiatu ziren Reyrekin batera txapelketan.

## Espainiako txapeldun

Luis Rey txikitatik ibili da motorean. 31 urte ditu egun eta, taldea eta motorra aldatuta, emaitza onekin hasi du aurten aro berria. Z Racing Team taldearekin dabil orain lanean, Sherco 300 SEF-R 2014 motorra lagun duela.

Urte honen hasieran Espainiako txapeldun izatea lortu du arrasatearra. Lau probatan parte hartu eta gero lortu zuen Cross Country Senior B 4T mailako 2014ko Espainiako txapelketa irabaztea: Antzinen (Nafarroa), Malpartidan (Caceres), Guadalaran (Madrid) eta Cartayan (Huelva) jokatu zituzten txapelketako proba horiek.

Iazko urtean ere, emaitza oso onak lortu zituen arrasatearra: lehen postua, Euskal Enduro Txapelketan; bigarren postua, Euskal Cross Country Txapelketan; lehen postua, 4TT Kopan (Aguilar de Campo); eta laugarren postua, Espainiako Cross Country Txapelketan.

2014ko egutegiari dagokionez, lasterketa hauetan parte hartuko du Luis Reyk, besteak beste: Espainiako eta Euskadiko Enduro txapelketetan; 4TT Kopan; Errioxako Enduro Erresistentzia Txapelketan; Nafarroako Enduro Indoor Txapelketan; eta Nafarroako Cross Country Txapelketan.

## MENDI BIZIKLETA

## Iban Altuberen omenezko martxa, urriaren 12an

USOA AGIRRE | ARRASATE

Iban Altuberen omenezko 4. mendi bizikleta martxa egingo da datorren domekan Oñatin. Aurten ibilbide berria estreinatuko dute, gainera, 36 km-koa: 1.450 metroko igoera izango du eta 25. kilometroan saihesbide bat gehituko diote, nahi dutenek ibilbidea moztu 30 kilometro egin ditzaten. Goizeko 09:00etan irtengo dira Oñatiko plazatik. Izen-ematea 10 eurokoa da federatuendako eta 15 eurokoa federatu gabendako; izen-emate

bakoitzetik euro bat Gipuzkoako haur minbizidunen gurasoen elkartera bideratuko da.

## Mondran Bike

Urriaren 25ean, berriz, Mondran Bike martxa egingo da Arrasaten. Hor ere bi ibilbide izango dituzte aukeran: 34 eta 22 km-koak. Goizeko 09:00etan irtengo dira Musakolako kiroldegitik. Irteera baino lehen egingo da izen-ematea: 10 euro ordaindu beharko dute ez federatuak eta 5 euro federatuak.

## ARETO FUTBOLA

## Denboraldiko lehen partiduan kale Eskoriatzak

Ligako lehen partidua jokatu zuen atzo, domeka, Eskoriatzak etxean Soloarteren kontra. Lehen zatia ondo hasi zuten eskoriatzarrek; 2 eta 0 zeuden atsedenaldian. Bigarren zatian, baina, hankaz gora jarri zitzairen partidua. Minutu batean bi gol egin zizkieten eta azken segundotan egin zieten hirugarrena, 2 eta 3 galduz.



JOSETXO ARANTZABAL

## ERRUGBIA

## PILOTA

## Aitor Mendizabal antzuolarra ez da Lau t'erdiko Txapelketarako sailkatu, Lasaren kontra galduta

Mendizabalek 22 eta 18 galdu zuen zapatuan Aritz Lasaren kontra Zaldibian, txapelketarako aurre-kanporaketan. Ondorioz, urretxuarra izango da aurrera egingo duena, eta Mendizabal kanpoan geratu da. 18 eta 18koarekin aukerak izan zituen antzuolarrak, 11 eta 6 galtzen joan eta gero. Baina berriz ere Lasa izan zen tantoak batu zituena, eta 22ra joan zen zuzen. Mendizabalek amaieran estutu arren, jokoan gehiago izan zen Urretxukoa.

## ATLETISMOA

## Zapatuan, urriak 11, egingo da Arrasate-Oñati herri lasterketa; izen-ematea zabalik dago

Urriaren 11n izango da Antxintxiketan KEk eta Arrasateko Atletismo Taldeak prestatu duten Arrasate eta Oñati arteko 31. lasterketa. Izen-ematea zabalik dago [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) webgunean urriaren 10era, egubakoitza, bitartean. Zapatuan 17:00etan hasiko da lasterketa Arrasateko Portaloian eta Oñatiko Foruen plazan amaituko da. Txipak egunean banatuko dituzte, 15:30ean.

## Goiko postuei eusten die Arrasatek, etxean irabazita

Arrasate Kanpanzarrek irabazi egin zuen atzo, domeka, Elorrio La Parraren aurka. Etxean jokatzen zuten denboraldiko lehen partidua zen eta 24-7ko emaitzarekin nagusitu ziren arrasatearrak. Lehen 40 minutuetan bideratu zuten partidua arrasatearrek Arizalek lortutako bi entseguri esker. Bigarren zatian etorri ziren beste bi entsegu: etxekoak bigarrena Dolarak egina eta Elorrioko jokalaria. Ligako bigarren partidua irabazita, goiko postuetan jarraitzen dute Isasiren mutilek.



JOSETXO ARANTZABAL

**Iker Sarabia** | Arrasate Runners taldeko korrikalaria

# "Korrika egiteko fisikoa ondo landu daiteke, baina psikologia zailagoa da, berezkotik du asko"

- ▶ Mendian zein asfaltoan dihardu eta dagoeneko 13 urte daramatza zapatilak erantzi barik
- ▶ Apirilerako mendi lasterketa bat antolatzen ari dira; Udalatx igoko dute, besteak beste

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

13 urte pasatu dira Iker Sarabia arrasatearrak (Gasteiz, 1976) zapatilak jantzi eta korrika egitearena serio hartu zuenetik. Orduetik hona, hamaika probatan hartu du parte, asfaltoan zein mendian, eta duela lau bat urtetik Arrasate Runners taldeko kide da: "Korrika egitea zaletasun dugun lagunarte bat gara, beste barik", dio. Mendiko proba bat antolatzen dihardute 2015eko apirilerako, eta, maila pertsonalean, azaroaren 30ean egingo den Donostiako maratona du begiz jota.

**Nola piztu zitzaizun korrika egiteko zaletasuna? Zer ematen dizu korrika egiteak? Eta zer kendu?**

Orduan, Mondra futbol taldean ari nintzen laguntzaile moduan, eta beste barik hasi nintzen korrika egiten. Kirola ihesbide bat da niretako, eguneroko dinamikatik irteteko aukera ematen dit. Era berean, denbora mordoa kentzen dit eta eguna ondo antolatu beharra daukat entrenatzeko.

**Zein izan da zure ibilbideko lorpen handiena? Eta gogoratzen duzun lasterketarik gogorrena?**

Hemengo lasterketetan hartzen dut parte, batez ere, eta nire lorpen handiena da Arrasate eta Oñati artekoan lehen arrasatearra izan naizela hiru alditan. Bestalde, aitortu beharra daukat proba askotan sufritu dudala; Aloñako azken igoeran, esaterako, gaizki pasatu nuen. Errori egin nintzen eta min hartuta amaitu nuen. Horrez gain, egin ditudan maratoi guztietan asko sufritu dut.

**Zer nahiago, mendia ala asfaltoa?** Oso ezberdinak dira. Mendian paisaiaz gozaten duzu, hemen bertan sekulako parajeak ditugu-eta. Asfaltoan, berriz, markaren bila zoaz gehiago eta hankendako askoz kaltegarriagoa da mendia baino. Nik denboraldia zatitu egiten dut: udaberrian eta

udan mendian ibiltzen naiz eta udazkenean, ordea, asfaltoan.

**Urtea amaitu aurretik ze lasterketatan hartuko duzu parte?**

Hainbat egingo ditugu, baina nire helburua azaroaren 30eko Donostiako maratona da. Arrasate-Oñati, Behobia-Donostia eta beste lasterketa guztiak maratoinako entrenamendu moduan planteatuko ditut. Maratoian nire markara hurbiltzen eta ahal dudan heinean hobetzen saiatuko naiz.

**Maratoni baten fisikoaz aparte psikologiak ere pisu handia du, ezta?**

Itzela. Iaz, adibidez, hipotermia sintomekin hasi nintzen 25 kilometroan eta oso gaizki pasatu nuen proba amaitzeko. Halako egoeretan psikologikoki gogorra izan beharra dago, bestela ez zara eta helmugara iristen. Hori bai, fisikoa entrena daiteke, baina burua askoz zailagoa da lantzeko; berez izan behar da burugogorra.

**Izan duzu lesio aipagarririk?**

Duela urte batzuk belauneko lotailua zaintiratu nuen eta pare bat hilabete geldi egotera behartu ninduen horrek. Gogorra izan zen, batez ere geldi egon behar izatea. Hori izan zen okerrera...

**Azkenaldian nabarmen egin du gora asfaltoan zein mendian korrika egiteko zaletasunak. Zergatik?**

Batzuk hasi ziren eta haiei jarraitu diete askok. Hori da, nire ustez, arrazoi nagusia, beste barik. Era berean, norberaren fisikoarekiko gurtza asko hazi da azkenaldian. Guztiok gura dugu fisikoki ondo egon, gorputza eta estetika sakratuak dira egun. Horregatik ere jende asko hasi da korrika egiten. **Arrasate Runners taldeko kide zara. Nola eta zertarako sortu zen taldea?** Duela lau bat urte sortu zen Arrasate Runners. Hiru lagunek sortu zuten: Juan Pedro del Pozok, Fernando Nogalesek eta Josu Aldeak sortu zuten. Eurek sortu zuten taldea eta pixkanaka gai-



Iker Sarabia, taldeko maillotarekin, korrika egiteko gertu. | JOKIN BEREZIARTUA

izango, baina izango balira bezala tratatzen ditugu. Izan ere, Arrasate Runners taldeko kide izateko baldintza bakarra da korrikan egiteko zaletasuna izatea. Ez dugu elkarte izaerarik, lagunarte bat gara. Taldea sortu zenean korrikan egitea zaletasun dutenen artean lagun taldea sortzea zen helburua, eta egun ere horretan jarraitzen dugu. Denborak aurrera egin ahala, akaso elkarte moduan eratuko gara... Hori ikusteko dago, orain bertan lagunarte bat bakarrik gara.

**Korrikan bakarrik? Ala beste diziplina batzuetan ere aritzen zarete?** Badira batzuk bizikletan eta igerian ere aritzen direnak, baina gehienok korrikalariak gara. Asfaltoan zein mendian, baina korrikalariak.

**Denak zarete arrasatearrak?**

Arrasatearrak gara gehienak, baina ez guztiak. Aretxabaletako, Bergarako eta Oñatiko korrikalariak daude, besteak beste.

**Lasterketetan parte hartu duzue, oraingoz, baina entzun dut datorren urterako proba bat prestatzekotan zabilzate. Hala da? Ze lasterketa mota izango da?**

Bai, hala da. Arrasate Runners taldea bera, Eneko Urrizalki, Iban Aranguren eta Korrikan Trail dendako arduraduna ari gara antolaketa lanetan. Mendi lasterketa bat izango da eta asmoa da 2015eko apirilean egitea. Oraindik proiektu hutsa da eta lan handia dago egiteko, baina espero dugu errealitate bihurtzea. Aurrerapen moduan esan dezaket Udalatx igoko dela.

**Ezer gaineratu nahi?**

Gura duenari taldeko kide izateko gonbidapena egin gura diot. Facebooken orrialdea sortuta dago ([www.facebook.com/arrasate.runners](http://www.facebook.com/arrasate.runners)) eta bertara idaztea nahikoa izango da gurekin harremanetan jartzeko. Animatu!

**"Datozen probak Donostiako maratona begira egingo ditut"**

nerakoak joan gara batzen. Ni taldea bera sortu eta gutxira batu nintzen, eta orain hainbat kide gara. Taldeko kide moduan ia 30 bat lagun gara, eta, horiez gain, beste askok ere Arrasate Runners-en maillota erabiltzen dute. Akaso, ez dira zuzenean taldekoak

**"Arrasate Runners da korrika egitea zaletasun duen lagunarte bat"**

**"30 bat kide gara taldean eta beste askok gure maillota erabiltzen dute"**



Taldeko beste kide batzuk, irailaren 28an Orduñan. | ARRASATE RUNNERS



Arrasate Runners taldekoak, 2013ko Santamasetako krosean. | ARRASATE RUNNERS

# KULTURA

## Kulturaz bete dute Bergarako erdigunea

- ▶ Erraldoiak eta instrumentuak probatu zituzten txikiek plazan
- ▶ Tailerrak, musika eta dantza izan ziren zapatuan, egun osoan

USOA AGIRRE | BERGARA

Joan den zapatuan kalean kulturaz gozatzeko aukera izan zuten bergararrek egun osoan zehar. Aurten, bigarren aldiz, Kultura Kalean eguna antolatu dute herriko hainbat kultura eragilek. Hala, San Martin plazan kulturako diziplina askotako ekintzak ikusi eta probatzeko aukera izan zen.

Etxeko txikienak erakarri zituen ekintzetako bat erraldoiak probatzeko tailerra izan zen. Bergarako Erraldoien Taldeak zenbait erraldoi eraman zituen plazara eta han bertan erraldoien barruan sartu eta hara eta hona ibiltzeko aukera izan zuten.

Musika Eskolak ere instrumentuak plazara atera zituzten, eta ume zein nagusiek horiek probatzeko modua izan zuten:

biolina, txistua, soinua, pianoa, tronpeteta, txalaparta, xilofonoa... Oka jolasa eta musikari buruzko galderak uztartuz, berriz, Musio-ka jokoa aritzeko aukera izan zuten umeek.

### Erakusketak eta musika

Beste talde batzuetako kideek, berriz, bertatik bertara erakutsi zituzten artelanak egiteko teknikak: taila elkartekoek, Buztinza-le elkartekoek, Bearteko margolariak eta argazki elkartekoek tailer praktikoak egin zituzten. Ikusgai ere jarri zituzten beraiek egindako zenbait lan.

Bergara musikari askoren herria dela argi geratu zen egun zehar. Eguerdian, Bergarako Orkestra Sinfonikoko soka taldeak kontzertua eskaini zuen, Osintxuko Musiraka dantza tal-



Musiraka dantza taldeak emanaldia egin zuen, Bergarako Orkestra Sinfonikoarekin batera | U.A.



Bearteko margolariak | U.A.



Mutikoa tailan | U.A.

dearekin batera. Banaka egin zuten emanaldia, baina bukatzeko biek batera *Lord of the dance* ezaguna interpretatu zuten. Jende ugari bildu zen plazan eta txalo zaparrada jaso zuten.

Goizeko ekitaldia amaitzeko bisita gidatua egin zuten gazte-terera, han luncha egiteko.

Arratsaldean musika eta dantza gehiago izan zen: Orfeoak, Musika Eskolak, Aritzetak eta San Joxeppek kontzertua eskaini zuten. Egunarekin amaitzeko, Kantu Jira egin zuten.



Musio-ka jokoa egin zuten Musika Eskolak. | U.A.



**JON ANDER GARITANO**  
ERRALDOIEN TALDEA

"Gaztetxoak eta nagusiak ibili dira erraldoiak probatzen. Ea norbait taldera gerturatu den. Erraldoi berriak ditugu, hamar dira guztira eta horregatik komeni da jendea egotea; hogei lagun beharko genituzke denak eramateko".



**MANOLO GABILONDO**  
TAILA ELKARTEA

"Egiten dugun lana herriari erakusteko oso garrantzitsua da horrelako ekimena. Gabonetan aretoan izaten dugu erakusketa. Hara eta hona aritzen gara taila erakusten eta, gabiltzan bitartean, ez da gutxi".



**MARIJE UGALDE**  
MUSIKA ESKOLA

"Ume asko gerturatu dira instrumentuak probatzera. Batzuetan zaila da, baina denek nahi izan dute zer edo zer probatu. Beti saiatzeko gara kaleratzen egiten dugun lana, eta gaurko eguna oso positiboa da".



**LANDER ETA NAOM**  
ERRALDOIEN TALDEKO KIDEAK

"Bergarako Erraldoien Taldeko kideak gara eta Elhuyar anaiak eramaten ditugu. Pisu pixka bat izaten dute, 10 bat kilo edo, eta biok txandaka aritzen gara. Asko gustatzen zaigu erraldoiak ibiltzea. Herriko plazara ekarri ditugu erraldoiak lagunei lagatzeko eta beraiek ere proba ditzaten. Gaur musikarik gabe aritu gara, baina normalean dantzan aritzen gara erraldoiak bizkarrean hartuta. Ez da erraza, baina entrenatuz gero nahiko erraz egiten da".

# Goiena Klubako urriko zozketak!

Etxeko txikiendako urrian irabaz ditzakezuen saria aproposak. Hartu parte!

## IRRIEN LAGUNAK KLUBA



Irrien lagunen maletina.  
20 ditugu zozketatzeko.



Irrien lagunen motxila  
eta kamiseta. 4 ditugu  
zozketatzeko.



Irrien lagunen aldizkariko  
urriko aleak ditugu  
zozketatzeko.

Parte hartzeko sariaren izena:  
Irrien Lagunak



**ARRIKRUTZ**  
oñatiko kobak

### Sarrerak

Arrikrutz kobak bisitatzeko 6 sarrera zozketatuko ditugu.

Parte hartzeko sariaren izena:  
Arrikrutz



[www.harremandenda.org](http://www.harremandenda.org)  
Bidezko Merkataritzako produktuak

### Otarra

Bidezko merkataritzako produktuez osaturiko otarra.

Parte hartzeko sariaren izena:  
Otarra

### PARTE HARTZEKO:

**SMS:** KLUBA [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira

**Telefonoz:** 943 25 05 05

**E-postaz:** kluba@goiena.com

**WhatsApp:** KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.  
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestiozatzeko. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!



Ametz Arzallus, Unai Agirre, Maider Arregi, Alaia Martin, Urko Egaña eta Unai Iturriaga, Zubikoan. | JULEN IRIONDO



Maider Arregi kantuan, Unai Iturriagarekin. | J.I.



Urko Egaña bertsoan, eta Amets Arzallus entzuten. | J.I.

# Herriko bertso eskolakoak onenekin batera kantuan entzunda, zaleak gustura

Maider Arregi eta Urko Egaña txukun, Oñatiko saioan

JULEN IRIONDO | OÑATI

Oñatiko Bertso Eskolako Maider Arregik eta Urko Egañak saio berezia izan zuten egubakoitze-koa, herrian urterokoak diren bi saio nagusietako batean, jaietakoan, goi-mailako bertsolarietara agertokia konpartitzeko aukera izan zuten-eta. Eta maila txukuna eman zuten bataz zein besteak. Saioa, oro har, goxoa izan zen, bertsoaldi politekin. Jarlekuen hiru laurden bete ziren Zubikoan.

Ametz Arzallus, Unai Agirre, Alaia Martin eta Unai Iturriaga izan zituzten bertso-lagun Arregik eta Egañak. Eta bertso politikak bota zituzten Oñatiko Bertso Eskolako bi kideek, saioa hasi orduko eta Amets Arzallusekin

ari zela, Urko Egañak Oñatin zazpi urte daramatzan arren oñatiarrez ulertzen oraintxe hasi dela bota zuenekoan –azpeitiarra da izatez–, edo, Unai Agirre base-ritarra azokan begira zuela, Urko behiak ez erosteko, maita zezan eskatu zionekoan, adibidez.

Maider Arregik ere konplexurik gabe abestu zuen bertso-kideekin, Unai Agirreri, ezkon berritan, esanez ezkon bizitza gaizki hasita umeak iristean zer izango ote zen beldur zela, eta gidabaimena atera zezan eskatuz temati ibilitako Unai Iturriaga aitari erregutuz, utz ziezaiola orain kotxea, edo beste bat erosi, edo berearekin parrandara eramanez zela, besterik ezean.

Gainerakoan, gai politikak eta bertsoaldi on nahikotxo izan zituen saioak, kreditua ukatu zion Unai Iturriaga banketxe-ko langile ohiak eta Alaia Martinek kartoi artean lotan kalean topo egin zutenekoan bezala; arrangurarik gabe onartu zuen Martinek Iturriaga bere ondoan, eta udan kalean eta neguan kutxazain batean lo egiteko plana egin zuten, "izorratu gaituena izorra dadin!".

Maider Arregik amaierako agurrean bota zuen egunen batean kontatu ahal izango duela bertsolari haiekin kantatu zuela behin frontoian, eta haren segidan Amets Arzallusek aitortu zuen gustura egona zela abesten, baina "baita entzuten ere".

## Arabakorako sailkatu da Amilburu

2015eko Arabako Txapelketarako hirugarren eta laugarren aurre-kanporaketak jokatu ziren zapatuan Ozaetan, eta Paula Amilburu aramaiorak eskuratu zuen txarletetako bat. Aramaioko beste ordezkari bat ere izan zen, Peru Abarrategi, baina honen aurre-kanporaketan Unai Mendibilek lortu zuen txartela.

Zapatuko lehenengo aurre-kanporaketan horrela geratu zen sailkapena: Paula Amilburu, 206 puntu; Jon Ruiz de Pinedo, 165,5; Iker Pastor, 163,5; Asier Rubio, 162,5; Josu Campo, 159,5; eta Iñaki Cabeza, 125,5.

Beste kanporaketan, berriz: Unai Mendibil, 184,5 puntu; Unai Bengoetxea, 182,5; Peru Abarrategi, 176; Ainhoa Comas, 144; Jon Sanchez, 95; eta Maite Murga, 92.

Datorren zapatuko Elosuko azken aurre-kanporaketarekin jakingo da beste ze lagun ariko diren txapelketan, saio guztietako puntuen arabera. Xabi Igoa ere sailkatuta dago, Amilburu bezala.

## Lagun arteko giroan hasi dute Espaloiko aro berria

'Molestias clownicas'-ekin barre egin zuten hasiera ekitaldira joandakoek, aureskua eta gero

JULEN IRIONDO | ELGETA

Era xume eta lagun artekoan ospatu dute asteburuan Elgetan bertako Espaloia Kafe Antzokian aurreko hamar urteetan egindako lanari jarraipena ematera datorren aro berriaren hasiera. Aurretik ere ekintzarik izan zen arren –umeentzako Txokolatzeko ipuintxoak, Belen Azkaraterekin–, zapatu iluntzean egin zuten, nolabait esatearren, irekiera ekitaldia.

Oihulari Klown antzerki taldeak hartu du Espaloiko kultura

programazioaren ardura, eta Virginia Imazek azken hogeitik gora urteetan taularatzen ari den *Molestias clownicas* izeneko saioa aukeratu zuen egun berezira.

### Gogoz eta ilusioz

Pailazo jantzi aurretik, baina, ekitaldira joandakoak agurtzeko hartu zuen mikrofonoa Imazek, eta abentura berri honetarako desioen berri emateko. Saioa hasi aurretik Goienari egindako adierazpenetan zioen "gogo eta ilusio



Iribarrea aurpegian, Virginia Imazen antzezpenearekin. | IMANOL SORIANO

handiarekin" daudela: "Gurea bezalako antzerki konpainia baten tzentzatu hau ametsa da; espazio bat eta espazio honetan programatzeko aukera guk maite ditugun obrak". Erantzukizuna ere aipa-

tzen zuen Imazek, "lehen egon direnek oso ondo egin dutelako".

Aurkezpenaren ostean Antton Fernandezek txanda izan zen. Fernandezek bertso pareta bota zuen Espaloientzat beste aro

oparo bat iragarri, eta aureskua egin zuen gero.

Eta ondoren iritsi zen, berriro, Virginia Imazen txanda. Emakumei eta haien osasunari buruzkoa da Imazek taularatutako ikuskizuna: "Nire gomendioa da emakumeak mugitzea, barre egitea, haserretu behar badira haserretzeko, emozio guztiak kanpora ditzatela; emozio bat gehiago adierazita, pastilla bat gutxiago hartu behar". Eta, egiari zor, buruko min gutxiarekin pasako zuten zapatu gaua Espaloian bildutakoek, nahikoa barre egiteko aukera izan zuten-eta *Molestias clownicas*-ekin.

Aro berriko lehen asteburuko ekintzekin amaitzeko, bolero kontzertua, umeentzako puzgarriak eta jolasak eta Trokolo taldearen Burutik jota *clown* ikuskizuna ere izan ziren.

# Kantutegi tradizionalaren sustraia eta organo handiaren hats puztua

- ▶ Tradizionala eta modernoa batu zituen emanaldiarekin hasi zen zapatuan saio sorta
- ▶ Edertasun sentikorrez josi zuten Berzaitzek, Goikoetxeak eta Gartzia Santa Marina

J.B. | BERGARA

Herrikoia, sakroa eta modernitatea elkartu eta dotorezia osoz nahastu zituzten emanaldi batekin hasi da aurtengo Organo Erromantikoaren Nazioarteko XV. kontzertu sorta. Pier Paul Berzaitz, Joxan Goikoetxea eta Ana Belen Gartziaen maisutasunak batuta, euskal tradizioko abesti sorta hartu eta Gartzia bikainki jotako organo puztuta, doinu hain sustraituei bizi eta haize berria eman zieten zapatuan. Aurten ere, San Pedroko organoaren ezintasunaren aurrean, jaialdiko protagonista Santa Marinako XX. mende hasierako Lope Alberdi organoa da. Modernoagoa izanda ere, antolatzaileen esanetan, egoera eta soinu optimoak ditu hain maila altuko emanaldietarako.

Horren froga izan zen, noski, zapatukoa, magia berezia izan ohi duten horietakoa izan zen-eta; xarmak eta dotoreziak hornitutako magia. Bistakoa da iparraldekoek kanturako duten molde berezia eta Berzaitz baino hoberik ez da egongo, ziurrenik, *Maitia nun zira* eta *Nik baditut* moduko edertasun hauskor eta fineko piezei hats aldi berean



Ana Belen Gartzia, Santa Marinako organoan. | IMANOL SORIANO

sendo eta sentibera emateko. Joxan Goikoetxea multi-instrumentista zuen alboan, oraingoan akordeoi eta perkusioen pentzutan, kantutegi tradizionala moldaketa garaikideagoekin gaurkotzeko. Bi maisuen lanari Ana Belen Gartzia organoan jotakoa

batuta, euskal kantutegi tradizionalaren malgutasun eta estiloz gairako transzendentzia utzi zuten agerian. Hiruko konbinazio ezin ederrago horretan eta entzun zireneko ingurua kontuan hartuta, ia zerutiar ematera iritsi ziren lehenago aipatutako abes-

tiak edo Guridiren *Variaciones sobre un tema vasco* ala Aita Donostiaren *Nik baditut*, klasikoetan klasikoak, ia. Hain zuzen, modu ia protokolozko horretan amaitu zuten kontzertu ederra zapatuan, Santa Marina parrokan.

## Frantz Hauk eta Orfeoia

Organo Erromantikoaren Nazioarteko zikloaren hiru hanketako bat da Bergarako (Azkoitia eta Azpeitia dira beste biak). Hiru hanka eta hiruna saio izango ditu zikloak guztira. Horrela, Bergarako sorta oraingo zapatuan eta hurrengoan egingo dituzten kontzertuek osatuko dute, Santa Marina parrokan hirurak, 20:00etan.

Datorren zapatuan, hilak 11, Frantz Hauk organo-jotzailearen txanda izango da, XIX. mendeko eliza-musika emanaldi batekin. Hilaren 18an Bergarako Orfoiak abestuko du Aitor Olea organo-jotzailearen laguntzarekin; Mozarten eta Muniberen lan ezagunetan oinarrituko dute, batik bat, erreperitorioa.

## 'Don Giovanni' operaren aurrerapentxo bat, parrokan

Urriaren 30ean Amaian interpretatuko duten *Don Giovanni* operarako giroa berotzen dihardute Ozenki elkartekoek, eta atzo, Arrasateko parrokan, aurrerapen moduko bat egon zen. Parisko Celine V. Benavente sopranoak eta Josean Gartzia baritonoak Mozarten zenbait pieza abestu zituzten, Joseba Candaudap eta Isabella Blezien arrasatearrek pianoa jota. *Don Giovanni* operarako sarrerak salgai daude Kutxabanken eta Amaia antzokian.



## GURE MUSIKA TALDEAK

BLACK  
BEAUTY

Black Beautyko Gontzalo, Garfi eta Jontxu estreinako kontzertuan. | AINHOA BERISTAIN

# "Sugarballs-en agur kontzertuan erabaki genuen Black Beauty taldea sortzea"

- ▶ 70eko hamarkadako hard-rock musika jotzeko sortu zen laukotea
- ▶ Los Galernako Josu eta Sugarballseko kideak batzen ditu Black Beautyk

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Arrasate eta Azkoiti artean arnasa hartzen duen taldea da Black Beauty; 70eko hamarkadako rock-and-roll eta hard-rock talde handien oihartzunak batzen dituen proiektua, hain zuzen. Josu Garfi arrasatearrak (Shaggy Daddy & the Troublemakers, Lost Souls, Los Galerna) Azkoitiko Sugarballs taldeko *Uso*, *Jontxu* eta *Gontzalo*-rekin indarrak batu zituen, Grand Funk Railroad, Led Zepelin edo The Who taldeek erraizetan eragiten dieten zirrara isilarazteko asmoz.

**Nolatan sortu zen Arrasateren eta Azkoitiaren arteko lotura?**

Duela urte nahikotxo ezagutzen genuen elkar. *Uso*, *Jontxu* eta *Gontzalo*-k aurretik Sugarballs taldean jotzen zutelara, *high energy rock-and-roll* bezala ezagutzen dena egiten zuten; MC5, Hellacopters eta Turbonegro taldeen indarra riff eta erritmo klasikoekin nahastuta. Kontua da 2012ko abenduan Sugarballsek agurreko kontzertua jo zuela Azkoitiko Matadeixen eta Los Galernak haiekin jo genuen. Harreman handia zegoen ordu-

rako guztion artean, eta, kontzertua amaitu bezain laster, *Uso* bateria-jotzailearekin 70eko hamarkadako rock estiloko zerbait egitearen bueltan jardun genuen. Izan ere, talde askori

"Asteburuan bertan amaitu dugu maketa grabatzen"

gertatzen zaien moduan, Sugarballseko taldekide batzuek musika alde batera uztea erabaki zuten, baina beste batzuek zarata egiteko beharra sentitzen zuten.

**Beraz, jarraitu egin behar...**

Bai, ordurako hirurek argi zuten musika egiten jarraituko zutela, eta niri betidanik gustatu izan zait 70eko hamarkadako rocka, eta abestea ere faltan igartzen nuen; beraz, Black Beautyra batzea erabaki nuen.

**Lost Soulsen eta Sugarballsen arteko mutazio bat da?**

Bietatik duela esango nuke. Lost Soulsenek rock progresiborantz jotzen zuen, erritmo aldaketa asko, kantu luzeak... Sugarballs, ordea, klasikoagoa zen. Eta Black Beautyk bien arteko oreka bat lortu gura duela uste dut. *Gontzalo*-ren gitarra riffak ditu oinarri eta besteok horiei ekarpenak egiten diegu. Hasieratik kantu propioak egiteko asmoa izan dugu, eta horrela izan da.

**Nolakoa izan zen lokaleko lehenengo kontaktua?**

Egia esan, arraro samarra izan zen. Beti urduritasun antzeko zerbait sortzen da lehenengoz norbaitekin jotzera zoazenean; urteetan ezagutu arren, lehenengo aldiak urduritasuna sortzen du. Baina bost minutu pasatu ostean eta anplifikadoreak berotu orduko dena martxan jarri zen. Gainera, *Uso*-k, *Jontxu*-k eta *Gontzalo*-k urteak daramatate batera jotzen eta hori nabaria da, guztia ondo enpatatuta zihoan hasieratik.

**Lehenengoa Matan, ezta?**

Sugarballs hil zen oholza berean jaio zen Black Beauty eta Los Galerna taldearekin egin genuen kontzertua ere. Iaz apirilean hasi ginen laukote bezala entseatzen eta abenduan izan zen lehenengo kontzertua. Zuzenean kantu propioek osatzen dute erreperitorioa; oraingoz, bertsio bakarra jotzen dugu: Grand Funk Railroad taldearen *Sin's a good man's brother*. Kantu hori Lost Soulsenekin egiten nuen, eta, besteei gustatu zitzaenez, egitea erabaki genuen, baina gure kantuak dira oinarria. Oraingoz, hiru kontzertu besterik ez dugu egin, Matadeixen, Donostiko Bukowsky tabernan eta Azpeitiko Zurten.

**Orain, grabatzen zabilzate.**

Bai, lokalean maketa bat grabatzen amaitu dugu asteburuan bertan. Kontua da zuzenekoetarako garrantzitsua iruditzen zai-gula publikoari emateko zerbait izatea; hori da helburua. Guztiok batera zuzenean grabatu ditugu kantuak, ahalik eta azkarren egin eta ahal bada zuzeneko energia hori jasotzeko. Sei kantu grabatu ditugu, baina nahastu ostean, seguruenik, bost kantu maketa kaleratuko dugu, emaitzaren arabera erabakiko dugu. Gero, gure asmoa da diskoak etxean grabatu eta banaketa gure kontu egitea, kontzertuetan, lagunei... Azken finean, gure lehenengo kantuak zabaltzeko helburuarekin grabatu ditugu kantuak, Black Beautyren lehenengo aztarna uzteko.



# Gorde indarrak benetan zailak diren egoeretarako

Heldu egiten da seme-alaba nerabezaroan, eta bidelagun behar gaitu

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Nerabezaroak, orokorrean, kezka sortzen du gurasoen artean. Gatazkarekin, emozio-egoera gorabeheratsuekin eta errebeldiarekin lotzen da gure gizartean. Neurri batean horrela da, baina seme-alaba nerabearen larruan ipintzeak lagunduko digu egoerari beste jarrera batekin aurre egiten.

Heldu egiten da umea nerabezaroan, eta bide horretan aldaketa asko ematen dira; fisikoak, gurasoekiko harremanetan, lagu-

nekin... Jakin nerabearen helburu nagusia independentzia gehiago lortzea dela, eta prozesu horretan lagun taldeak familiak baino garrantzia handiagoa hartuko duela, agerikoan behintzat.

Nerabeak dituzten gurasoei gomendatzen diete gaiari buruzko liburuak irakurtzeko. Nerabearen larruan ipintzen saiatu behar du gurasoak, eta gogora ekarri bere nerabezaroa. Beste aholku interesgarria da sortzen diren gaztzen aurrean aukera-

keta ondo egitea. Alferrik da gutzia debekatzea. Gorde indarrak benetan arriskutsuak diren jarrerak: tabakoa, drogak, alkohola... Eta adi egon alarma seinaleei —pisu gorabeherak, atsedean arazoak, bat bateko lagun aldaketak, eskolako emaitzak, arazoak legearekin...— Ez ahaztu, bestalde, kontrako adierazten badute ere nerabeek ezinbestekoa dutela gurasoen gertutasuna. Esperimentazio sasoia da nerabezaroa, eta horrek arriskutsuak diren jarrerak hartzea eramango ditu, eta saiakera horiek guztiak ez dira beti ondo ateratzen.

Ezagutu seme-alabaren lagunak baita haien gurasoak ere. Gurasoen elkar hartzeak emaitza zoragarriak lor ditzake. Errespetatu, baita ere, gaztearen intimitatea —logela, liburuak, posta elektronikoa—. Eta informatu seme-alaba nerabezaroak ekarriko dituen aldaketen inguruan—hilekoa, amets bustiak...—. Pediatraren kontsulta izan daiteke azalpen horiei bidea emateko aukera aproposa. Modu irekian emango ditu azalpenak pediatrak eta etxean jarraipena emateko bidea zabalduko du.

Adituek gomendatzen dute harremana konfiantzatic eraikitzeko, baina beti ere mugak eta zereginak ondo zehaztuz. Nerabe batek mugak behar ditu: oheratzeko ordua, teknologia berrien kontsumoa, eta abar.



Nerabe taldea. | CHIESADIBEINASCO

## Gazteekin ere indarkeria matxistaren kontra lanean

Zazpi urte dira Beldur Barik programa martxan dela; 12-26 urte bitarteko gazteak ditu lan-ildo

Z. | ARRASATE

Emakundek hartu du programaren lidergoa eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundien finantzaketa du. Helburu nagusia da emakumezkoen kontrako edozein motatako indarkeria prebenitzea, batik bat emakumezko gazteen kontrako. Horretarako, hartu-eman libreak, errespetuzkoak, berdintasunekoak, anitzak eta ez-sexistak eraikitze konpromisoa lantzen dute gazteekin.

Bultzatzaileek hanbat esparrutan lantzen dute kontzientziazio eta sentsibilizazio kanpaina,

baina ikastetxeei dei berezia egiten diete programara atxiki eta webgunean erabilgarri duten unitate didaktikoa ikasleekin lantzeko.

2009an jaio zen Beldur Barik programa, eta ordutik hona hainbat material prestatu eta hainbat ekintza burutu dituzte. Aipaturiko unitate didaktikoaz gain, ikus-entzunezkoen Beldur Barik lehiaketa, Beldur Barik topaketa —aurten Urretxu-Zumarragan azaroaren 29an— eta gazteendako prestakuntza-tailerrak, eztabaidak eta jolas-jarduerak bultzatu dituzte.

### Ikus-entzunezkoen lehiaketa

2014ko Beldur Barik lehiaketa martxan da eta interesatuek azaroaren 12ra arteko epea dute lanak aurkezteko. Bi kategoria daude: bata, 12 urtetik 17 urtera bitartekoena, eta bestea, 18 urtetik 26 urtera bitartekoena. Bana edo taldeka parte har daiteke. Ikastetxe edo ikasgela modura edo elkarte modura ere aurkez daitezke.

Bost urtez egin da lehiaketa eta aurreko edizioan gazteek 151 lan baino gehiago aurkeztu zituzten lehiaketara. 1.066 gaztek hartu zuten parte.

Programaren helburua da Beldur Barik jarrera sustatzea, eta ikus-entzunezkoetan neska-mutikoei jarrera hori erakutsi behar dute; askatasunean, autonomian eta errespetuan oinarritutako jarrerak. Beste modu batean esanda, gazteek nola egiten diete aurre gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunei?

## Azazkalak jateko ohitura duten umeek giro lasaia behar dute

L.Z. | ARRASATE

Adituen estimazioen arabera, adingabeen %40-45 artean azazkalak jan dituzte unerren batean edo bestean. Jabier Agirre pediatrak artikulu berezia idatzi du gaiaren inguruan *Guraso.com* atarirako. Dio onikofagia ohitura txarra dela, eta hasiera batean arazo estetikoak soilik izan daitekeena osasun-arazo ere bilaka daitekeela —kutikuletako lesioak, azazkaletako deformazioak, infekzioak, hortzetako arazoak, ezpainenak herpesak edo aftak...

Dena den, pazientzia eskatzen du, eta gomendatzen du arazoaren sustraietara jotzea irtenbideak zein behar duen argitzeko. "Antsietatea, urdu-

ritasuna, ezinegona, estresa, edo, besterik gabe, aspertuta egotea izan ohi dira umetan azazkalak jateko arrazoiak". azaldu du.

### Ze neurri hartu

Agirrek gomendatzen du umeak giro lasaia behar duela, eta ohartarazten du errieta egiteak antsietate handiagoa sortuko diola. Egokiagoa eta eraginkorragoa ikusten du umeari arazo eta dakartzan ondorioak azaltzea. Interesgarria da baita ere azazkalak noiz eta zein egoeratan jaten dituen detektatzea. Azkenik, azazkalak jaten ari dela ikusten dugunean, eman ordeko objekturen bat esku artean ibil dezan.



Gaztetxoak atzamarrak ahoan. | JAVIER PAREJO

### ARGITALPENA

## 'Saba eta landare magikoa' komikia gaztetxoendako

L.Z. | ARRASATE

8 urtetik gorako umeendako gomendatzen dute Yann Degruel idazle frantziarraren *Saba eta landare magikoa* komikia. Tartalo argitalertxeak kaleratu zuen iaz.

Abisinian —antzinako Etiopia— kokatzen da istorio hori eta kafe-landarearen aurkikuntzaren kondaira azaltzen du. Istorioa bi mailatan kontatuta dago: lehen planoan, aitaita batek ipuin bat kontatzen du bere herrixkan, eta bigarren planoan, Saba neskatila txikiak kafe-landarea aurkitzen du mendi punta batean, ahuntz baten bitartez.

Jakin-mina, arriskua, askatasuna, babesa, haserrea, munduarekiko irekitasuna... lantzen ditu komikoak. Lan osoan marroia da kolore nagusia irudikatzen Abisiniako biztanleen larruazalaren kolorea, eta, batez ere, hango lur lehorra.

### IRTEERA

## Lea ibilbideko zati bat: Ugarran-Oleta auzotik Lekeitiora

L.Z. | ARRASATE

Umeekin patxadaz eta oztopo zein aldapa handirik gabe egin daiteke hiru bat kilometroko ibilbidea, oinez. Amoroto herriko Ugarran-Oleta auzoko Klaudio jatetxearen beheko aldean dagoen apartalekuan utziko dugu autoa, eta bertako jolasparketik abiatzen den bide berdea hartuko dugu.

Soro artean egingo dugu ibilbidearen lehen zatia eta asfaltozko errepidera irten-dakoan eskumara hartuko dugu, berriz ere, senda berdea hartzeko. Gaztainondo, pinu eta eukalipto artean egingo dugu bidea, Lea ibaia bidelagun isila dugula. Kostaldera hurbildu ahala aldatu egingo da paisaia, baita usainak ere. Marierrota marea-errotak egingo digu ongiatorria Lekeitio, eta bertatik laster iritsiko gara itsas ertzera. Itzulera bide beretik egingo dugu.





## ETXEKO SUKALDERAINO

## Aitor Biain | Musikaria

- ▶ Ganbara abesbatzako zuzendaria da, baita Bergarako orfeoikoa ere
- ▶ Egunero musikan jarduten dutenak miresgarriak direla uste du

## "Pastarekin esperimentatzea asko gustatzen zait, saltsekin-eta"

MIRARI ALTUBE | OÑATI

Musikaria da Aitor Biain (Oñati, 1983), musikaria hanka puntatik azken ilerraino: Oñatiko Ganbara abesbatzako zuzendaria; Bergarako orfeoiko zuzendaria; Lazkaoko musika eskolako irakaslea eta zuzendaria; eta Oñatiko bandako kidea.

### Aitor Biain zelakoa da?

Ikasteko gogo handia duen pertsona, musika asko maite eta bizi duena, eta egunero jaikitzen denean gehiago ikasteko eta lan egiteko gogo duena.

**Zein harreman duzu sukaldearekin?** Neuretako gertatzen dut, baina bestelakoan ez dut harreman handirik.

### Zein da zure espezialitatea?

Pastarekin esperimentatzea gustatzen zait, saltsekin-eta, baina ez naiz batere aditua.

**Zertara gonbidatuko zenuke lagun on bat?**

Kontzertu on batera.

### Eta etsai bat ezertara?

Bai, ez dut inorekin arazorik.

**Zeinekin gustatuko litzaizuke mahaiaren bueltan esertzea?**

Hurbilekoekin egotea dut gustuko.

### Musikari izateak zer eman dizu?

Guztia da musika, guztia. Musikaren inguruan daukat bizitza

guztia: lagunik onenak, bikote-kidea...

### Eta ezer kendu dizu?

Bai... Behar bada bizitza sozial apur bat, lagunekin egoteko denbora. Denbora gutxiago izan arren egoten naizen hori hobeto aprobetxatzen dut. Eta bizitza pasio handiagoarekin hartzen dut horrela.

### Zure lanbidean inor miresten duzu?

Miretsi? Berba handia da gero

hori. Nik uste egunero musikan lanean jarduten dugunok nahiko miresgarri garela. Bestelakoan ez naiz idolo zalea.

### Zer da mundu horretan gustuko ez duzuna?

Erakunde publikoek musikarekiko eta orokorrean kulturarekiko duten jarrera; krisi garaian kultura delako egurra gogorren jasotzen duena.

### Zer gurago zuzendari, abesbatzako kide edo klarinete-jole?

Ahotsaren munduarekin dut harreman onena. Eta zuzendari lana izugarri gustatzen zait, musika barrutik ezagutzeko aukera ematen duelako. Talde baten antolakuntza kontuak ere oso gustuko ditut: saioak egin, kontzertuak antolatu, proiektuak bideratu...

### Zein kontzertutara joango zinateke gustura?

Musikan aukera asko dauzkat baina kontzerturik gustukoena Brahms-en *Requiem*a da. Bai edo bai joango nintzateke.

### Iratxoek hiru desio eskatzeko aukera eman dizute...

Zoriontsu eta osasuntsu bizitzea; musikan aukera profesionalak eta proiektu interesgarriak izatea; eta desio orokorra, kulturakultzada handi bat izatea.

**AUKERAN...**



DONALDRUSSELL

**Lehen platera:** Pasta.

**Bigarrena:** Azpizuna edo txuleta.

**Postrea:** Hostopilezko kremadun pastela.

**Edatekoa:** Ura.



Aitor Biain oñatiarra, Ganbara abesbatzako zuzendaria. | AITOR BIAIN

## "Lagunekin egoteko denbora gutxiago izan arren hobeto aprobetxatzen dut"

### Zure bizitzako anekdota bat.

Ganbara Txikirekin ETBko *Oh Happy Day* saioan izan ostean kalean sinadurak eskatzen zizkiguten bai kantariei, baita niri ere. *Txokantea* izan zen.

**Musikari izateko zer da ezinbestekoa?** Esfortzua eta pazientzia.

### Damu zara...

Bizitzako etapa ezberdinetatik pasatu naiz, lanbide ezberdine-

tatik, eta batzuk gehiago gustatu izan zaizkit, baina damutu ez. Hori behintzat ona dut, beti positiboarekin geratzen naiz.

### Zer errepikatuko zenuke?

Sei urterekin musika ikasten hastea.

### Zerk beldurtzen zaitu?

Igual bakardadeak.

### Lanetik etxera iritsi berri, sofan eseri eta...

Lanean jarraitzen dut, mila kontu ekartzen ditut-eta. Sofan eseritzen naizenetan telebista jartzen dut tontakeriaren bat ikusteko.

### Nora egingo zenuke ospa?

Hondartza duen edozein herrialdetara.

### Ze esaldi konpartituko zenuke?

Orain ez dut bat ere gogoan.

## PATRIZIAREN GUTIZIA



Patrizia Vitelli

## PLATANO-BIZKOTXOA

Jogurtarekin egindako bizkotxo klasikoaren alternatiba proposatuko dizuet oraingo honetan: platano-bizkotxo. Udazkenean sartu berri garen honetan, platanoak ematen duen indarra lagungarri izango zaigu, postre honek berezkoa duen gozotasuna bigarren mailan utzi barik, jakina. Eta aipatzekoa da, baita ere, egiteko oso-oso erraza dela.

### Molde luzexkaren arabera

Postrea egiteko erabili behar diren osagaiak bizkotxorako erabiliko dugun jogurtaren beraren edalontziarekin neurtutakoak dira. Guztiak ere, bizkotxo egiteko molde luzexka horien arabera daude neurtuta.

Edozelan ere, masa sobratuz gero (guri gertatu zitzaigun moduan), magdalena molde batzuk betetzeko erabil dezakezue, banana-cupcake goxo-goxoak eginda.



Platano bizkotxo.

### Oso fruitu aberatsa

Platanoa dagoen fruiturik osoenetakoa da. Edozein dietatan ezinbestekoa da, baita argaltzeko edo diabetesa zaintzeko dietetan ere. Bitaminak, mineralak eta energia uztartzen ditu bere baitan. Besteak beste, B6, azido folikoa, potasioa, C bitamina eta oinarriko mineral ugari ditu. Duen ekarpen kalorikoa ere nabarmena da, bai-

na koipetik eratorritako kaloririk ez du; zuntz kantitate handia du, eta kolesterola, berriz, zero.

Horregatik guztiarengatik, bereziki da egokia platanoa kirola egiten duten pertsonen elikadurarako, eta baita umeen elikadurarako ere. Besteak beste, kirola egin aurretik janez gero, karranpak (kalanbreak) saihesten laguntzen du platanoak.

## Fitxa

- ▶ Denbora: 50 minutu.
- ▶ Zailtasuna: ★★★★★

### OSAGIAK

- ▶ Platanozko jogurt bat.
- ▶ Bi platano; bata dekoraziorako erabiltzeko.
- ▶ Jogurt-edalontzi bat bete oliba-olio.
- ▶ Jogurt-edalontzi bi bete azukre.
- ▶ Hiru jogurt-edalontzi bete irin.
- ▶ Hiru jogurt-edalontzi bete irin.
- ▶ Jogurt-edalontzi bat bete ur.
- ▶ Paketetxo bat legamia.
- ▶ Arrautza bat.
- ▶ Kanela.
- ▶ Azukre-hautsa (glass).

## Prestaketa

1. Katilu batean irina iragazi eta hauts eran dugun legamiarekin nahastuko dugu. Oliba eta ura gehituko dizkiogu eta guztia ondo nahastuko dugu. Arrautza azukrearekin irabiatu ostean, hori ere katilura botako dugu.
2. Irabiagailuaren ontzian jogurta jarri eta zatitutako platanoa bota. Gero, irabiatu egingo dugu, pure homogeneoa lortu arte. Hori ere katilura botako dugu.
3. Bizkotxoaren moldea ondo koipetuko dugu gurinarekin, itsats ez dadin, eta gainetik irina botako diogu. Gero, masa bota eta ondo zabalduko dugu. Aldez aurretik berotuta dagoen labean 30 minutuz sartu, 180 graduan.
3. Labetik atera eta bizkotxo hozo eta gero, moldetik aterako dugu. Gainetik azukre-hautsa, xerra finetan zatitutako platanoa eta kanela bota, eta halaxe aterako dugu.

# Modelo berrienen arteko tartea gero eta laburragoa da urterik urte mugikorretan

Applek, Googlek eta Sonyk hamabi hilabete behin aurkezten dute gama bereko modelo berria

JON BEERZIBAR | ARRASATE

Inor gutxi kolpatuko du goiburuak, oso agerikoa baita mugikorren gamak geroago eta maiztasun handiagoarekin berritzen dituztela fabrikatzaileek. Iaz 1.004 milioi terminal saldu ziren munduan.

Ordenagailuen salmenten beherakadarekin eta tableteten sukarrak baretuta, gama altuko mugikorren salmentatik egiten dute diru gehien konpainia handiek. Modelo berriak atera eta atera besterik ez dute fabrikatzaileek

sorgin-gurpilari eusteko. Hori erakusten duten datuak froga garbia dira. 2010ean gama altuko mugikorraren hurrengo bertsioa batez beste 382 egunera kaleratzen zen. Gailuen zaharkitze leihoa deritzon hori %30 estutu da ordutik hona. Apple da fabrikatzaile nagusietatik erregularrena: batez beste, 375 egun behin aurkezten dute modelo berria. Samsungek eta Googlek maiztasun oso antzekoekin kaleratzen dituzte modelo berriak. Sonyren leihoa, aldiz, are estuagoa da eta Xperia gamaren Z1 eta Z2 modeloen tartea sei hilabetekoa ere ez da. LG eta Sony, hain zuzen, duten katalogo zabala eta fragmentazioa kontuan hartuta, maiztasunik handiena duten markak dira. Fabrikatzaile asiarrak dira modelo batetik bestera denbora luzean hartzen dutenak.

# Chrome OSek Photoshop ekarriko du, lainoan

Sistema eragilerako 'on line' bertsioa da

J.B. | ARRASATE

Googleren sistema eragilea berriak, Chrome web-nabigatzailean oinarritzen denak, berritasun ugari aurkeztu ditu azken hilabeteetan. Horietako bat da Chrome OSren barruan Photoshop aplikazioa erabiltzeko aukera, Creative Cloud deritzon lainoko plataformaren bitartez, Adobe konpainiarekin lortutako hitzarmen baten emaitza bezala.

Lainoan exekutatu

Aplikazioa, berez, lainoan exekutatu da eta erabilpen ego-


kitako gutxienez 5 mbps-ko konexioa behar du. Noski, Google Drive-rekin lotura ere eskaintzen du fitxategien kudeaketarako.

Eskuragarri, mugekin

Chrome OSerako Photoshop editorearen bertsioa jada erabilgarri dago, baina, oraindik, beta bat da. Hala ere, irekia da eta interesa duenak eskaera egin dezake, Googletik bertatik sarbidea eman diezaioten. Hori bai, Ameriketako Estatu Batuetan dauden ordenagailuetatik bakarrak erabili ahala oraindik orain.

## Goienaren 'app' berri eta eraldatua

Eraldatuta eta aukera berriekin dator Goienaren mugikorretarako aplikazioa. Goienaren app berriak irakurle eta herritarrentzako komunikazio tresna zuzen eta azkarra bihurtu gura du, eta, horretarako, argazki, agur, kexa zein oharrak zuzenean Goienara bidaltzeko tresna izango da aurrerantzean; Goienako zerbitzuetarako sarbidea emanda. Androiden eta iOSen denda digitaletan eskura daiteke app-a.



## Kaseteen nostalgikoentzat

Kaseteen nostalgikoek badute teknologiaren abantailekin atzera ere antzinako *rekopi* horietakoak egin eta banatzeko modua. Bitxikeria besterik ez da, baina *Suan.fm*-en abesti sorta bat hartu eta kasete bati nahi den kolore eta diseinua eman eta pegatinak itsatsita, bilduma partekatzen da. Abestiak Soundcloud eta Youtubetik hartzen dira.

## CDen salmentak baino irabazi handiagoak ematen ditu jadanik 'streaming' bidezko musikak

AEBetako diskoetxeen elkarteak eredu berria erabat finkatu dela erakutsi du datu berriekin

J.B. | ARRASATE

Azken hamarraldietan teknologiak musikaren industria goitik behera eraldatu du. Interneten hedapen erabatekoak eta hamaika gailu, formatu eta partekatze moduk hankaz gora jarri dute urte gutxian panorama guztia. Orain, euskarrien eztabaida igarota, lainoan dagoen musikaren garaia da, *streaming*-arena, eta, azken datuen arabera, garai berrian bete-betean murgildu gara.

Behera CDek eta digitalak

Hazkundera, kontsumitzaileak gazteenengan batez ere, oso azkarra da eta belaunaldi etenez hitz egin daiteke jada. RIAA Ameriketako Estatu Batuetako

diskoetxeen elkartearen azken datuen arabera, *streaming*-aren irabaziak lehen aldiz historian CDen salmentan irabazitakoa gailendu zaizkie; hau da, *streaming*-ak eragiten du jada gaur egun diru-sarrera bolumen handiagoa, konparazioan. CDen salmentari bakarrik ez, musika digitalari ere eragin dio eredu aldaketak. Behera besterik ez baitute egin iTunes denda digitalaren salmentek, esate baretako. 2014ko datuei begiratuta, *streaming* zerbitzuek lehen seihilekoan, %28ko hazkundera-ekin, 859 milioi dolarreko diru-sarrerak ekarri dizkiete diskoetxeei. Horren froga da 2013an epealdi berean 670 milioi izan zela bolumena.

## TELE-BEGI

IMANOL GALLEGO



toñi, Toñi, TOÑI...

ez, ez izenburu horrek ez dauka Duo Dinamicoen edo Juan Pardoren abesti batekin inolako zerikusirik. Baina erritmo antzerakoa duela onartzen dut. Oraingo honetan, TVEren erregina berriaz ari naiz. Duela urte bete ezagutu genuen Toñi Moreno, eta hila-bete hauetan denetik egin du kazetari andaluziarra.

Morenok (Toñik ez Jose Luisek) kate publikoaren arratsalde hilak berpizteko enkargua jaso zuen, eta audientziari begiratzeko badiogu, argi dago, kritikak direla jaso dituen gauza bakarra.

Entre todos-ek Espainian ez ezik, kanpoan ere egurra jaso zuen besteak beste: txiroen programa, negarraren saioa... tankera horretako zerrenda luze baten ostean, Moreno gajoari programa kendu zioten, baina lasai RTVEren titiak ez dio bizkarra eman eta programa berria eman diote.

T con T beste magazin bat da, eta Morenok formatuari erritmoa eman nahi dion arren, ez du helburua lortzen. Haragia erakargarria denez, pasa den astean, nerabeen zoramenerako Auryn taldea galtzontzilatzen utzi zuen, hau bai hau zerbitzu publikoa! edo publikoa?

## ASTEAGOIENAN

## GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 6



## 'Harmailatik'

Antzuolak Lesakako Beti Gazte futbol taldea hartu zuen domekan etxean eta partidua eskainiko da. | 19:30

12:00 Debagoiena zuzenean  
13:00 Idemtitateak  
13:30 Zorion Agurrak  
13:35 Debagoiena zuzenean  
14:30 Berriak  
15:00 Donostiako Zinemaldia  
15:30 Onein  
16:00 Debagoiena zuzenean  
16:30 Berriak  
17:00 Ertzak  
17:50 Idemtitateak  
18:25 Zorion Agurrak  
18:30 Berriak  
19:00 Amaia DJ  
19:30 Harmailatik  
20:00 Debagoiena zuzenean  
20:30 Berriak  
21:00 Debagoiena zuzenean  
21:30 Berriak  
22:00 Harmailatik  
22:30 Debagoiena zuzenean  
23:00 Berriak  
23:30 Idemtitateak  
23:55 Debagoiena zuzenean  
00:25 Berriak

MARTITZENA, 7



## Gantzaga auzoa

Aramaion dagoen Gantzaga auzoa ezagutu ahal da Miguel Inuntziaga auzo alkaterearen eskutik. | 20:00

12:00 Debagoiena zuzenean  
12:30 Harmailatik  
13:00 Idemtitateak  
13:25 Zorion Agurrak  
14:00 Debagoiena zuzenean  
14:30 Berriak  
15:00 Harmailatik  
15:30 Onein  
15:55 Zorion Agurrak  
16:00 Debagoiena zuzenean  
16:30 Berriak  
17:00 Amaia DJ  
17:30 Ikusi irratia  
18:25 Zorion Agurrak  
18:30 Berriak  
19:00 Harmailatik  
19:30 Donostiako Zinemaldia  
20:00 Debagoiena zuzenean  
20:30 Berriak  
21:00 Debagoiena zuzenean  
21:30 Berriak  
22:00 Ertzak  
23:00 Debagoiena zuzenean  
23:30 Berriak  
23:30 Harmailatik  
00:00 Debagoiena zuzenean  
00:30 Berriak

EGUAZTENA, 8



## 'Berriak'

Debagoienean egunean zehar izandako albisteak jasotzeko aukera izango da albistegietan. | 14:30

12:00 Debagoiena zuzenean  
12:30 Ertzak  
13:25 Zorion Agurrak  
13:30 Harmailatik  
13:55 Zorion Agurrak  
14:00 Debagoiena zuzenean  
14:30 Berriak  
15:00 Euskal egitura  
15:30 Onein  
16:00 Debagoiena zuzenean  
16:30 Berriak  
17:00 Harmailatik  
17:30 Ikusi irratia  
18:25 Zorion Agurrak  
18:30 Berriak  
19:00 Ertzak  
19:55 Zorion Agurrak  
20:00 Debagoiena zuzenean  
20:30 Berriak  
21:00 Debagoiena zuzenean  
21:30 Berriak  
22:00 Donostiako Zinemaldia  
22:30 Debagoiena zuzenean  
23:00 Berriak  
23:30 Euskal egitura  
00:00 Debagoiena zuzenean  
00:30 Berriak

EGUENA, 9



## 'Amaia DJ'

Gazteek Whatsapp eta sare sozialen bitartez eskatutako bideo-klipak erakutsiko dira saioan. | 19:30

12:00 Debagoiena zuzenean  
13:10 Ur eta lur  
13:55 Zorion Agurrak  
14:00 Debagoiena zuzenean  
14:30 Berriak  
15:00 Ikusi irratia  
15:55 Zorion Agurrak  
16:00 Debagoiena zuzenean  
16:30 Berriak  
17:00 Donostiako Zinemaldia  
18:00 Idemtitateak  
18:30 Berriak  
19:00 Euskal egitura  
19:30 Amaia DJ  
20:00 Debagoiena zuzenean  
20:30 Berriak  
21:00 Debagoiena zuzenean  
21:30 Berriak  
22:00 Amaia DJ  
22:30 Debagoiena zuzenean  
23:00 Berriak  
23:30 Amaia DJ  
00:00 Debagoiena zuzenean  
00:30 Berriak

EGUBAKOITZA, 10



## Sukaldaritza

Sukaldaritza kontuak ekarriko ditu Julen Iriondo kazetariak Debagoiena zuzenean saiora. | 20:00

12:00 Debagoiena zuzenean  
12:30 Amaia DJ  
13:00 Ikusi irratia  
13:55 Zorion Agurrak  
14:00 Debagoiena zuzenean  
14:30 Berriak  
15:00 Amaia DJ  
15:30 Onein  
16:00 Debagoiena zuzenean  
16:30 Berriak  
17:00 Donostiako Zinemaldia  
17:30 Ertzak  
18:25 Zorion Agurrak  
18:30 Berriak  
19:00 Amaia DJ  
19:30 Jaiak: Oñatiko jaiak  
20:00 Debagoiena zuzenean  
20:30 Berriak  
21:00 Debagoiena zuzenean  
21:30 Berriak  
22:00 Jaiak: Oñatiko jaiak  
22:30 Debagoiena zuzenean  
23:00 Berriak  
23:30 Amaia DJ  
00:00 Debagoiena zuzenean  
00:30 Berriak

## ARRASATE IRRATIA

## 'Igo autobusera!' irratsaioa hasiko da gaur 10:00etan

Uda giroan irratsaioari lekuak hartuko dio gaurtik aurrera astelehenetik egubakoitzera egingo den *Igo autobusera!* irratsaioak. Gaur, astelehena, AEDko Zahar Berri egitas-moko Maitena Arana izango da elkarrizketaren tartean TopaEguna eta Mintzalagun ekimenari buruz berbetan.

## Bizipozaren jaiko kamiseta zozketatuko dute egubakoitzean

Arrasaten ospatu zen Bizipozaren Eguneko hurrendako kamisetak daude zozketatzeko Arrasate Irratian. Egubakoitzean, hilak 10, egingo da zozketa eta parte hartzeko bide hauek daude: 943 25 05 telefonora deituta edo bestela [irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com) helbidera idatzita.

## 'Ura eta erreka Deba ibarrean' dokumentala berbeta gai, bihar

Hilaren 13an Arrasaten estreinatuko da *Ura eta erreka Deba ibarrean* dokumentala eta ikus-entzunezkoa egin duen AVIS ekoiztetzeko kide den Alex Gutierrez elkarrizketatuko da bihar, martitzena, *Igo autobusera!* irratsaioaren elkarrizketa tartean. 11:00etan izango da hori Arrasate Irratiko 107.7ko uhinetan.

## TELE-ALBISTEAK

## Oñatiko jaiak eman dutena ikusi ahal da gaur Goiena telebistan

Zapatuko Herri Eguna eta asteleheneko Errosaixo Bixamonean jasotakoak erakutsiko ditu saioak

AMAIA TXINTXURRETA | OÑATI

Errosaixo jaiak ospatzen ari dira egunotan Oñatin eta jaiak telebista bitartez ikusi ahal izango dira gaur, astelehena, *Debagoiena zuzenean* saioan 20:00etan, 21:00etan eta 22:30ean.

## Jailetan jasotakoa

Zapatuan Herri Eguna ospatu zen, eta, besteak beste, unibertsitate inguruan egon ziren behi, ardi, ahari edota bildotsak ikusten egon ziren herritarren adierazpenak jasoko dira gaurko saioan. Eguerdian Foruen plazan

izan zen sagardo dastaketan batutakoak ere ikusi ahal izango dira eta orokorrean zapatuan herriko kaleetan egon zen giroa nolako izan zen ere ikusi ahal da.

Gaur, astelehena, berriz, Errosaixo Bixamon eguna da Oñatin eta kuadrillak moztortuta irten go dira kalera. Kuadrillentzako egun berezia izaten da gaurkoa eta aurtengo moztortuak eta kuadrillek egindako karrozak nolako izan diren ikusteko aukera izango da gaur eskainiko den saioan. Protagonisten hitzak ere jasoko dira.



Zapatuan Oñatin ospatu zen Herri Eguneko argazki bat. | GOIENA

## Saio berezia egubakoitzean, 19:30ean eta 22:00etan

## Saio berezia, egubakoitzean

Egubakoitzean, hilak 10, eskainiko da Oñatiko jaiak buruzko saio berezia Goiena telebistan 19:30ean eta 22:00etan.

Bertan Errosaixo jaiak emandakoak gain, San Migel jaiak eman

zutena ere ikusi ahal izango da. Besteak beste, jaiak hasiera ofiziala emateko egin zen txantxi-kuaren jaitsiera; nagusien danborrada; *Zuk ekarri, zuk jan* bazkaria edota *Acordes Navarros* taldeak eskaini zituen jotak.

## ZORION AGURRAK



**BERGARA**  
**Ion eta Udane Unamuno**  
Urriaren 11n, 3 urte.  
Zorionak, bikote! Ondo pasatu zuen urtebetetze egunean. Muxu handi bat familia guztiaren partetik.



**ARRASATE**  
**Uxue Iturbe**  
Hamargarren hilabeteko hamargarren egunian, hamar urte! Bai egun borobila! Disfrutatu zeure egunaz! Maite zaitugun danon partetik, mila zorion!



**OÑATI**  
**Aimar Iturricastillo Telleria**  
Urriaren 9an, 8 urte.  
Zorionak, txapeldun, eta urte askotarako. Oso ongi pasatu zure egunean. Muxu handi bat, etxekoan partetik.



**BERGARA**  
**Haizea Ayastuy Markina**  
Urriaren 9an, 5 urte.  
Zorionak, printzesa. Iritsi da azkenean! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta patxo handi-handi bat maite zaitugun guztion partetik.



**OÑATI**  
**Unax eta Mikel Zubia Martinez de Albeniz**  
Urriaren 7an, 4 urte. Zorionak, pottokook! Aupa! Egun on-on bat pasatu, maitiak, eta holakua izaten jarraitu! Patxo potolo pila bat familia danaren partetik, arreba Sararena goxuen. Asko maite zaituztegu!



**ARETXABALETA**  
**Julen Garcia Sanchez**  
Urriaren 5ean, 5 urte.  
Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure egunien eta patxo potolo bat danon partetik, laztana. Asko maite zaitugu.



**ARETXABALETA**  
**Maddi Kortazar Lasagabaster**  
Urriaren 5ean, 3 urte.  
Gure urte pizpittatuak hiru urte! Zorionak etxekoan partetik!



**BERGARA**  
**Jennifer Caballero Garcia**  
Urriaren 4an, 13 urte.  
Zorionak! Eta eskerrik asko nire bizitzako hoberena izateagatik. Denon partetik, eta bereziki amak.



**OÑATI**  
**Sara Arenaza**  
Urriaren 3an, 2 urte.  
Zorionak, poxpolintxo! Ondo pasatu zure urtebetetzia eta patxo asko etxeko danon partetik!



**OÑATI**  
**Libe Idigoras Garcia**  
Urriaren 3an, 2 urte.  
Zorionak, Libe! Mila muxu zure familia guztiaren partetik.



**ARRASATE**  
**Unax Iñarra**  
Urriaren 3an, 11 urte.  
Zorionak, maitia. Belarritik tirakada handi bat eta gutxienez 11 muxu potolo, zure familiaren eta, Gorka eta Aratzen partetik bereziki. Muxuak.



**OÑATI**  
**Danel Amenabarro Arregi**  
Urriaren 2an, urtebete.  
Zorionak, maitia! Muxu handi bat etxeko danen partetik!



**ARETXABALETA**  
**Aimar Gorosabel Velez**  
Urriaren 2an, 2 urte.  
Zorionak eta patxo handi bat etxeko danen partetik.



**ARRASATE**  
**Iñigo eta Ander Zabalo**  
Iñigok urriaren 1ean, 39 urte eta Anderrek urriaren 2an, urtetxo bat. Zorionak etxekoan eta, batez ere, Izaroren eta Izaskunen partetik. Muxuak bioi!



**BERGARA**  
**Maider Moral Lasheras**  
Irailaren 29an, 11 urte.  
Zorionak, sorgina. Oso ondo pasatu zure 11. urtebetetzean. Muxu handi bat etxeko guztion partetik. Maite zaitugu.



**BERGARA**  
**Naia Gabilondo Kapelastegi**  
Irailaren 29an, 5 urte.  
Zorionak, potxola! Ondo pasatu zure urtebetetzea eta muxu potolo bat, aitatxoren, amatxoren eta Juneren partetik.



**ARETXABALETA**  
**Manex eta Manex Arana Usandizaga**  
Manexek irailaren 24an, 6 urte eta Amaiurrek irailaren 29an, 3 urte. Zorionak, bikote, eta patxo potolo-potolo bat etxeko guztion partetik.



**OÑATI**  
**Ainhoa eta Maialen Anduaga Elorza**  
Ainhoa eta Maialenek 8 urte egingo dituzte urriaren 6an, eta Jonek 12 urte urriaren 8an. Amatxoren eta aitatxoren partetik, pa handi bana hiruroi. Oso ondo pasatu zuen egunak!



**OÑATI**  
**Mikel Elgero Gantxegi**  
Urriaren 5ean, 3 urte. Familia danaren partetik, zorionak, pirata! Horrelaxe jarraitu, beti pozik eta alai. Ondo pasatu San Miel jaixak.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

### Internet

Sar zaitetz [Goiena.eus](http://Goiena.eus) atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

### Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurra@goiena.com](mailto:zorionagurra@goiena.com) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

### Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko  
11:00ak arte  
jasotako zorion agurra  
bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak  
hurrengo astean  
argitaratuko ditugu.

**JAIOTAKOAK**



**Diego Vasile Bumbas Pricope**

Eskoriatza 2,130 Kilo. Irailaren 26a. Gurasoak: Dorica eta Onorel. Argazkian, Diego sehaskan lo.



**Eritz Larrañaga Iñurritegi**

Bergara 4,100 Kilo. Urriaren 1a. Gurasoak: Elaia eta Yon. Argazkian, Eritz, osaba Igorren besoetan.



**Aner Kabelo Garkusa**

Aretxabaleta 4,050 Kilo. Urriaren 1a. Gurasoak: Irina eta Gorka. Argazkian, Aner, amaren besoetan.



**Chloe Juanes Olivenza**

Arrasate 3,600 Kilo. Urriaren 1a. Gurasoak: Laura eta Ruben. Argazkian, Chloe txikia sehaskan lo.



**Maddi Outeriño Garitano**

Bergara 3,120 Kilo. Irailaren 30a. Gurasoak: Amaia eta Sergio. Argazkian, Maddi txikia lotan.



**Laia Etxabarri Azkarreta**

Bergara 3,310 Kilo. Irailaren 29a. Gurasoak: loar eta Martin. Argazkian, Laia, aitarekin.



**Amalur Zalama Negreira**

Arrasate. Irailaren 27a. Gurasoak: Natalie eta Mikel. Argazkian, Amalur, izeba Laurarekin.



**Arhane Elkoro Urzelai**

Bergara 3,370 Kilo. Urriaren 3a. Gurasoak: Leire eta Paulo. Argazkian, Arhane amatxorekin eta Ekaitz nebarekin.




**Jaio da!**

**Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENaren ordezkari batara.**

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

**DENBORA-PASA**

**HITZ GEZIDUNAK**

	Poztasun	Jakin-garri	Gizon izena
	Aldapa, malda	Hogerleko	Lekuak
	* Irudiko garraiobidea		
Arrain mota	Irudi geometriko		
Belarrimotz	Mailak		
		Kasik	
		Egun	
Zer lekutara?		Erregai mota	
Setatiak		Zalantza partikula	
			Haur hizkeran musu
Garestitu			Fosforoa
Makinen multzoa			Bokal meheea

**BILA-BILA 7**

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



**SOLUZIOAK**

**HITZ GEZIDUNAK**

V	I	R	E	N	I	K	V	M
p	■	U	L	U	R	V	K	■
■	K	V	O	S	O	L	E	S
S	V	G	■	V	R	O	N	■
V	I	■	O	L	E	K	V	M
I	K	U	R	I	H	■	p	■
V	O	L	U	V	■	■	■	■
S	L	V	D	T	V	■	■	■
I	■	D	■	V	■	■	■	■

**BILA-BILA 7**



## Gosaria ohean? Hobeto teiltuan!

Lorategi edo balkoi baten faltan, eta bertigorik ez izanez gero, aulki eta mahai sistema hori aproposa da airea hartuz gosaltzeko. [www.nopuedocreer.com](http://www.nopuedocreer.com)



## "Oso nekagarria da takoiak jartzea eta makillajea erabiltzea"

CHELSEA ATTONLEY | TRANSEXUAL BRITAINIARRA

Sexuz aldatzeko ebakuntza egin zioten duela zortzi urte Attonleyri, eta orain, berriz ere gizonezko organoak jartzeko ebakuntza Britainiako Osasun Zerbitzuak ordaintzea gura du. Emandako arrazoiaren artean dago albokoa. Emakume izatea hori bakarrik balitz bezala. [www.abc.es](http://www.abc.es)



Max. 24°

Min. 11°

Goizean hegoaldeko haize leuna ibiliko da, eta tenperaturak segituan egingo du gorantz. [euskalmet.net](http://euskalmet.net)

ASTELEHENKOA

# goiena

2014-10-06

HAMARREKOA

**Pello Reparaz** 24 urteko arbizuarra, 8 urterekin hasi zen tronboia jotzen eta 12rekin igo zen lehen aldiz agertoki batera; egun, Vendetta taldeko tronboi-jotzailea eta abeslarietako bat da. | TXOMIN MADINA

## "Asko kostatzen zait tronboia eskularru barik jotzea"

**1. 13 balas izeneko lana grabatzen ari zarete. Noren kontrako balak?**  
Positiboak izango gara honetan eta inoren kontrakoak baino gehiago, geureen aldekoak dira: geure irribarren aldekoak, geure borrokan eta geure bidean diharduten guztien aldekoak.

**2. Zergatik tronboia, gitarra, bateria edo pianoa hor daudenean?**  
Txikitik, irizpide handirik gabe, asko gustatzen zitzaidan tronboia, gora eta behera mugitzen zelako. Orain, erabat pozik nago nire instrumentuarekin, maitasun handia diot. Gitarrarekin, bateriarekin eta pianoarekin ere aritzen naiz, baina ez era profesionalen.

**3. Zertan nabari duzu taldekideen artean gazteena zarela?**  
Gazteena adin aldetik naiz, baina gero badago taldean gazteagoa denik. Ni hasiberria naiz: eurek urte asko daramate, asko dakite eta ni ikasten saiatzen naiz.

**4. Zer egin zenuen izan duzun udako gaurik luzeenean?**  
18 urtetik gorakoendakoak dira horiek, eta, hortaz, ez dakit elkarriketa honetan horrelakoek lekurik duten...

**5. Zale batek esandako zerk gorritu zaitu gehien?**  
Esandakoek baino gehiago, egingoak: hor egotea asko baloratzen da. Abestiren bat idazteagatik jasotako esker mezuak oso handiak dira; eskertzen dira, norberaren lana baloratzen dute.



MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Baten bati sekulakoa emango nioke buruan, espabilatzeko; lortuko balu, ez litzateke txarra izango munduarentzat".

AGM

**6. Kontzertuetan txora-txora eginda izaten dituzu zaleak. Zer ematen diezu?**

Dena: agertokian, era metafóricoan, biluztu egiten gara eta dena ematen dugu. Eurek ere horrela sentitzea eta gure sentipenekin bat egitea gauza handia da. Elkartrukea da: guk eurei ematen diegu, eta eurek guri.

**7. Miresten duzun zein musikariren aurrean jotzea gustatuko litzazuke?**

Sting asko miresten dut, baina ez dakit haren aurrean jotzea egokiena izango litzatekeen, barre egingo luke-eta!

**8. Zeintzuk dira zure bertute eta akats handienak?**

Bertutea, nire ustez, insistentzia: zerbait nahi badut, lortzeko borroka egiten dut... Akatsak asko ditut, gehiegi, gauza onerako!

**9. Artista eta maniak eskutik ei doaz sarri. Zuk zeuk, aitortzeko ezer?**

Mania handirik ez, baina, adibidez, asko kostatzen zait tronboia eskularru barik jotzea. Eskularru batekin jotzen dut beti, eta, hori ez badut, urduri jartzen naiz.

**10. Musikak bizibide moduan kale egiten badu, zer?**

Irakaskuntza. Nafarroako Unibertsitate Publikoan Irakasle ikasketak egin nituen; asko gustatzen zait, eta ahal dudan neurrian banabil horretan. Gustura, gainera, bide polita da.

AZKEN BERBA

XABIER ZUBIZARRETA



Hi-cas-tell-anoz

Aspaldian katalana gehiago entzuten da EHko hedabideetan euskara baino. Kontua da Kataluniako herria demokraziari buruzko lektzioa ematen ari zaigula, euren herrialdea Estatu (independente) bihurtu ala ez erabakitzeko duten prozesua eramateko lanetan. Homs, Mas, Junqueras eta enparauak dira ezagunenak, baina agian Carme Forcadell eta Muriel Casals, Assemblée Nacional Catalana eta Omnium Cultural-eko lehendakariak dira hurrenez hurren, inoiz Katalunian eman den gizarte mobilizaziorik handienetako ordezkari garrantzitsuenak eta eraginkorrenak; Katalunian independentzia zaleak iratzarri, antolatuta eta abian jarri dituzten gizarte zibileko ordezkari lehenak. Jeloskor ere jartzen naute apur bat baina eman diguten ikasgaia eskertu baino ezin diet egin. Zerbait ikasiko bagenu!

Gu ere zerotik ez garela hasi behar? Ados, baina bidaia hau nola burutu asmatzeko, eredugarri bihurtu zaizkigu. Hasieran nion katalana ez ote dudana gehiago entzuten euskara baino hemengo hedabideetan; bai, exajeratu xamarra da; baina zenbat nafar euskaldunek ezingo luke baieztatu hori?! Eskerrak, euskara *Lingua Navarrorum* dela! Eta bitartean Iribas kontseilari nafarra, euskarazko liburuaren erabilpena debekatzeko! Castell-gintzari bai!

**Euskalduna**

Hileta Zerbitzuak



BEILATOKIA • ETENGABEKO ZERBITZUA • LORE KOROAK  
ESKELAK • TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA



Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxa: 943 76 12 99 • e-posta: [euskalduna@harrespil.net](mailto:euskalduna@harrespil.net)